



emakunde**2010**txostena

emakunde
emakumearen euskal erakundea
2010ko jardueren memoria
MARTXOA 2011



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Izenburua: Txostena. Emakunde, 2010

Egilea: Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tfnoa.: 945 01 67 00
Faxa: 945 01 67 01
e-mail: emakunde@ej-gv.es
www.emakunde.es

Diseinua: equisbé

Inprimatzailea: Sacal

Ale-kopurua: 1.000

L.G.:

aurkibidea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea	11
Aurkezpena	21
1. Eusko Legebiltzarraren IX. Legealdiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintza	23
Eusko Legebiltzarraren IX. Legealdia.	
Berdintasunerako plan berria	24
2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Organoen Jardunbidea	29
2.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseilua.	30
2.2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Taldeak Euskal Botere Publikoekiko Izandako Jardunbidea	32
2.2.1. Eusko Legebiltzarra	32
2.2.2. Gipuzkoako Batzar Nagusiak.	33
2.2.3. EAEko Arartekoa / Herri Defendatzailea edo Ombudsmana	34
2.2.4. Eusko Jaurlaritzako sailak	34
2.2.5. Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza	35
2.2.6. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea	35
2.2.7. Foru aldundiak eta udalak	36
2.2.8. Erakunde artekoa	36
2.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza taldeak estatuko eta nazioarteko berdintasunerako erakundeekiko lankidetzarako izandako jardunbidea	37

2.4.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza taldeak eae-ko elkarteen eta eragile sozialen sarearekin izandako jardunbideak	39
2.4.1.	Emakumeen elkarte-sarea	39
2.4.2.	Enpresak eta beste eragile sozial batzuk	39
2.5.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza taldeak euskal hedabideekiko izandako jardunbidea	42
2.6.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza taldeak ekitaldi, jardunaldi eta kongresuetan izandako jardunbidea	50
3.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera atxikitako batzordeek izandako jardunbidea	61
3.1.	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea	62
3.2.	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea	63
3.3.	Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundearen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea	65
4.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arlo funtzionalen jardunbidea	67
4.1.	Sustapen, aholkularitza eta koordinazio instituzionala	68
4.1.1.	EAEko Administrazio Orokorra	68
4.1.2.	Foru eta toki Administrazioa	69
4.1.3.	Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzeta	75
4.2.	Genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa	77
4.3.	Berdintasun planak: txostenak, aholkularitza	78
4.4.	Prestakuntza	79
4.4.1.	Aholkularitza espezializatua	79
4.4.2.	Barne-prestakuntza	80
4.4.3.	Kanpo-prestakuntza	82

4.5.	Jarraipena eta ebaluazioa	86
4.5.1.	2006-2009 aldirako EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Plana eta 4/2005 Legea	86
4.5.2.	Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko zerbitzuek duten eraginaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa . .	93
4.6.	Emakumeen elkarteei aholkua ematea eta laguntzea	95
4.6.1.	Aholku Batzordea	95
4.7.	Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza	108
4.7.1.	Berdintasun planak: Txostenak eta aholkularitza	108
4.7.2.	Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak . .	108
4.7.3.	Erakunde laguntzaileen jarraipena	109
4.7.4.	Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena . .	110
4.8.	Programak gauzatzea	111
4.8.1.	Nahiko	111
4.8.2.	Gizonduz	112
4.9.	Aholkularitza juridikoa	115
4.10.	Azterketak, ikerketak, argitalpenak	117
4.10.1.	Diru-laguntza eta beketarako deialdia	118
4.10.2.	Argitalpenak	120
4.11.	Dokumentazio zentroa	121
4.12.	Gizarte sentsibilizazioa	128
4.12.1.	Emakunde aldizkaria argitaratzea	128
4.12.2.	Berdintasunaren Emakunde Saria	129
4.12.3.	Kanpainak	131
4.12.4.	VII. Berdintasunerako Gunea	134
4.12.5.	Beste erakunde edo gizarte eragileek antolatutako jardueretan parte hartzea	135
4.12.6.	Emakumeen desberdintasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina	136
5.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen IX. Legealdirako komunikazio plana	139

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA.
EZAUGARRIAK, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA FUNTZIOAK



Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurilaritzaren Lehendakaritzara atxikita.


Erakundearen helburu nagusia emakumeen eta gizonen artean berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea da, EAEko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren esparru guztietan. Bere lan-helburuak garatzeko, Emakunde EAEko berdintasun politikak sustatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakunde gisa eratu zen.

Haren funtzioak erakundea sortu zuen aurretik aipatutako legean zehaztu ziren. Dena den, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hauek adierazten ditu Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtzioetat:

- Lehen proposatutako helburuak lortzera zuzendutako arauak taxutzea eta EAEko botere publikoek aplikatu ditzaten sustatzea.
- Berdintasun politiken eta erkidegoko legediaren segimendua egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa egokitzeari dagokionez, bereizkeriaren aurkako arautegia salbu.
- Bi sexuen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra zailtzen edo eragozten duten oztopoak desagerrarazteko lege-erreformen proposamenak egitea, orobat 4/2005 Legea garatzeko arautegia proposatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak sustatzen dituen xedapen orokorrak lantzeko prozeduran emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko txostenak eta irizpenak egitea.
- Esparru politiko guztietan genero-ikuspegia integrazteko metodoak diseinatzea.
- Euskal administrazio publikoetako organo eskudunei baldintza minimo oinarritzko eta komunak proposatzea, entitate, organo eta unitate eskudunetako langileria emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean gaitzeari eta beren funtzioei dagokienez.
- Euskal administrazio publikoek aholkularitza eta laguntza ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza-planak diseinatzeako eta proposatutako helburuak lortzeko.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen funtzioak sustatzea eta koordinatzea, orobat autonomia erkidegoko botere publikoen arteko beharrezko koordinazio neurriak sustatzea, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragiten duten programei dagokienez.
- Emakumeen eta gizonen egoera, behar eta interesak aztertzea, baita bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean horregatik sortzen diren desberdintasunak ere, eta, baita ere, jarduera-esparru desberdinetan gauzatu beharreko politika zehaztera zuzendutako azterketak bultzatzea.
- Aholku ematea eta sustapen-neurriak ezartzea, enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako planak, programak eta jarduerak garatzeko baliabide material, ekonomiko eta pertsonalak emateko.
- Organo eskudunari entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako zerbitzuak emateko homologazioa lor dezaten aplikatu daitezkeen betebeharrak eta baldintza minimo oinarritzko eta komunak proposatzea.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumei oinarritzko eskubide sozialak bermatzera zuzendutako zerbitzuak sustatzea eta proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, familiarra eta lana bateratzea errazten duten zerbitzu soziokomunitarioak eman eta egokitu daitezzen sustatzea eta proposatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, horretarako egokitzat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta hedapen jarduerak eta kanpainak eginez; bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz, bai hura lortzearen eta emakumeen jabeakuntzaren alde lan egiteko beharraz.
- Erlazioak eta partaidetza-bideak ezartzea Emakunderen helburuak lortzen laguntzen duten helburu edo funtzioak dituzten elkarteekin, fundazioekin eta bestelako erakunde eta organismoekin.
- Erlazioak eta partaidetza-bideak ezartzea beste autonomia erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko antzeko erakundeekin.
- Eta, azkenik, bere helburuei loturik, eslehi dakiokkeen beste edozein funtzio.

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa



- Lehendakaria
- Emakundeko zuzendaria
- Emakundeko idazkari nagusia
- Eusko Jaurlaritzako sailak (6 kide)
- Foru Aldundiak (3 kide)
- Udalak (3 kide)
- Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta (6 kide)
- Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasunaren Batzordea
- Aholku-batzordeko ordezkaria

EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA

1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen gobernu organoak

Erakundea sortu zuen 2/1988 Legeak ezartzen du gobernu organoak hauek direla:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Erakundearen zuzendaria.

1.1. Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaritza Kontseilua Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala zehazten dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautzen du. Dekretu horrek adierazten duenez, organo horrek ondoko funtzioak dauzka, besteak beste: erakundearen jardueraren urteko memoria onartzea, orobat Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Plana, Emakumeek EAEn duten egoerari buruzko txostena, euskal botere publikoen berdintasunari buruzko jardueraren urteko memoria eta berdintasunaren inguruko arau-proiektuak onartzea, ondoren Gobernuari aurkezteko.

Zuzendaritza Kontseilua, erakundearen zuzendaritza organoa denez, honela osatuta dago:

- Kontseiluburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Kontseiluburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Kontseilukideak:
 - Sei pertsona, autonomia erkidegoko administrazioaren ordezkari gisa, sailburuorde direnak eta honako gai haueetan eskumenak dituztenak: hezkuntza, lan, osasungintza, industria, kultura eta gizarte-gaietan.
 - Diputatu kargua daukaten hiru pertsona, foru aldundietako ordezkari gisa.
 - Hiru pertsona, EAEko udalen ordezkari gisa.
 - Pertsona bat, Eusko Legebiltzarreko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eskuduna den batzordearen ordezkari gisa.
 - Eusko Legebiltzarrak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ibilbide personal edo profesional ziurtatua izateagatik izendatutako sei pertsona.
 - Pertsona bat, Emakundeko Kontsulta Batzordearen ordezkari gisa.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.



1.2. Emakundeko zuzendaria

Erakundeko zuzendaritzaren funtzioak lehen aipatu dugun 214/2006 Dekretuak arautzen ditu. Emakundeko zuzendariari ondoko funtzioak dagozkie, besteak beste: erakundearen lege-ordezkaria izatea, autonomia erkidegoko berdintasun-politikak zuzentzea, erakundearen zuzendaritza administratiboa eramatea eta erakundearen kudeaketa eta barne-ikuskaritza zuzentzea, langileria-politika zuzentzea, orobat Emakunderi esleitzen zaion beste edozein funtzio gauzatzea, horiek ez badaude berariaz Zuzendaritza Kontseiluari edo idazkaritza nagusiari esleitura.

2. Kudeaketarako administrazio organoa: idazkaritza nagusia

Emakunderen idazkaritza nagusiaren funtzioak ere 214/2006 Dekretuak arautzen ditu eta, besteak beste, honako hauek dira: kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa sustatzea, koordinatzea eta ikuskatzea; ondarea eta aurrekontuak kudeatzea; planifikatzea; azterketak eta dokumentazioa; aholkularitza juridikoa eta informazioa; programazioa; beste instituzio batzuekiko lankidetzak; kudeaketa eta laguntza informatikoko prozedurak; azpiegitura egokitzea eta institutuarentzat baliabide materialak eskuratzea; barne-prozedurak taxutzea; erakundearen gastuak, administrazioa eta langileria-kudeaketa; eta, langileentzako prestakuntza eta hobekuntza programak prestatzea.

3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeak

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak adierazten du erakundeari atxikita eta/edo lotuta daudela honako organo hauek, haien sorrera eta funtzionamendu arauak ezartzen duten moduan:

- 3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- 3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
- 3.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Kontsulta Batzordea.
- 3.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Batzorde hori, Emakundera atxikita dagoena, 4/2005 Legeak sortu zuen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan erkidego-, foru- eta udal-administrazioek gauzatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko organo arduradun gisa.

Urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak batzorde hori erregulatzen du eta honako osaketa hau ezartzen du:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa, batetik, hiru pertsona, sailburuordeak direnak, eta honako gaien ardura daukatenak: herri administrazioa, enplegua eta gizarte gaiak. Eta, bestetik, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.
 - Foru aldundien ordezkari gisa, bi pertsona foru aldundi bakoitzeko, diputatu direnak.
 - Udal administrazioaren ordezkari gisa, sei pertsona, zinegotziak direnak.
- Idazkaritza: Emakundeko idazkari nagusia.

3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.

Sail arteko Batzordea 1993an sortu zen formalki, Dekretu bidez. Dena den, Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politiken garapena, eta Batzordearen lanaren garapena bera direla eta, egokitu egin behar izan da.

Batzorde hori 4/2005 Legeak jasotzen du eta, gaur egun, abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak arautzen du. Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan gauzatzen dituen jardueren koordinazio-organoa da.

Batzordea Emakunderi atxikita dago eta honako kide hauek ditu:

- Batzordeburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Batzordeburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Lehendakaritzako idazkari nagusia.
 - Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko pertsona bat, dagokion saileko sailburuordea dena.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.

3.3. Emakunde–Emakumearen Euskal Institutuaren Aholku Batzordea.

Aholku Batzordea 1998an sortu zen, ekainaren 9ko 103/1998 Dekretuaren bidez. Batzorde hori, erakundeari atxikita dagoena, informazioa eta aholkuak emateko eta emakumeen eta gizonen berdintasun arloan inplikaturako elkarte-sareak proposamenak aurkezteko organoa da.

Batzordea, Emakundeko zuzendaritzaz eta langile teknikoez gainera, estatutuetan berdintasun-printzipioa sustatzea barne hartzen duten Emakume elkarteak eta EAEko fundazioez osatuta dago. Aholku Batzordearen esparruan, elkarte eta fundazioak lau jarduera-arlotan banatzen dira, helburuen arabera: esparru soziokulturala, prestakuntza, osasun-laguntza eta hausnarketa feminista.

Osaketa honakoa da:

- Lehendakaria: Emakundeko zuzendaria.
- Lehendakariordea: Emakundeko idazkari nagusia.
- Bokalak:
 - Hamabi kide, elkarte eta fundazio partaideen ordezkari gisa, bat lurralde historiko bakoitzeko jarduera-esparru bakoitzeko.
 - Emakundeko ikerketa, planifikazio eta agirien arduraduna.
 - Emakundeko hezkuntza arduraduna.
- Idazkaria: Emakundeko informazioaren eta elkarteen arduraduna.

3.4. Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko Erakunde arteko II. Akordioa sinatu zen eta, akordio horretan, Jarraipen Batzorde bat sortzea adostu zen. Batzorde horren funtzioen artean, akordioak honako hauek ezartzen ditu: akordioan jasotzen diren neurri eta irizpideen aplikazio eraginkorra bermatzea; baterako jarduerak eta erakunde arteko koordinazioa hobetzeko jarduerak proposatzea; eta jarduera-protokoloko edukiak sortzen diren egoera berrietara egokitzea.

Gaur egun, Jarraipen Batzordearen osaketa hau da:

- Lehendakaria: Emakundeko zuzendaria.
- Honako instituzioetako kideak (sailburuorde edo antzeko kargua dutenak):
 - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia.
 - Honako gaietan eskudunak diren Eusko Jaurlaritzako sailak:
 - Osasuna
 - Herritarren segurtasuna
 - Justizia
 - Gizarte zerbitzuak
 - Gizarte bazterkeria
 - Enplegua
 - Etxebizitza
 - Hezkuntza
 - Arabako Foru Aldundia.
 - Bizkaiko Foru Aldundia.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte.
 - Legelarien Euskal Kontseilua.
 - Euskadiko Sendagileen Kontseilua.
- Idazkaria: Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako zuzendaria.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren XI. legealdirako egitura organiko eta funtzionala arautzen duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza sortzen eta arautzen du eta, Jarraipen Batzordearen 2010eko azaroaren 18ko saioan, zuzendaritza horren partaidetza onartu zen Batzordeko kide gisa eta, gainera, idazkaritza lanak bere gain hartu zituen. Horren ondorioz, Emakundeko idazkari nagusiak Batzordeko kide eta idazkari izateari utzi dio.

4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako defentsa erakundea

Emakumeen eta Gizonen Defentsa Erakundea 4/2005 Legeak sortu zuen, herritarrak sexubereizkeriako egoeren aurrean defenditzeko eta autonomia erkidegoan emakumeen eta gizonen artean tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin sustatzeko.

Defentsa Erakundea, ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuak arautzen duena, Emakunderi atxikita dago, horren egitura hierarkikoan integratuta egon gabe, eta funtzioak administrazioarekiko erabateko autonomiaz gauzatzen ditu.

5. Emakunde-emakumearen euskal erakundearen kudeaketako arlo funtzionalak

Emakundek kudeaketako bost arlo funtzionaletan antolatzen den egitura bat du eta Erakundeko langileria horien inguruan taldekatzen da.

- Administrazio arloa.
- Aholkularitza juridiko eta informazio arloa.
- Lankidetzatza arloa.
- Azterketa, dokumentazio eta plangintza arloa.
- Programa eta heziketa arloa.

Aipatutako arloetako batean ardurak eta lanak gauzatzen dituzten langileez gainera, erakundeak laguntza-talde orokor bat du administrazio-lan orokorrak gauzatzeko, ordenantza gidari batekin.

Azkenik, aipatzekoa da erakundeko zuzendariak laguntzaile bat eta idazkari bat dituela. Halaber, Emakundeko idazkari nagusiak ere idazkari bat du.

aurkezpena

Memoria honek erakundearen 2010erako Jarduera Planaren kontu ematen du. Plan horrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak esleitzen dizkion funtzioak betetzea du xede. Halaber, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planifikaziotik ondorioztatutako konpromisoei erantzuten die. Planifikazio horretan, euskal botere publikoek dagokion legealdian emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan dituzten jarraibide eta ildo nagusiak ezartzen dira, orobat legealdi bakoitzaren hasieran plan orokor bat taxutzeari buruz 4/2005 Legeak ezarritako aginduak. IX. legealdi honetan, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak dokumentuan zehazten da, eta dokumentu hori Gobernu Kontseiluaren 2010eko ekainaren 29ko saioan onartu zen.

Emakunde EAEko berdintasun politikak sustatzeko, aholkua emateko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakundea izaki, eta 4/2005 Legetik ondorioztatutako edukia berdintasunari buruzko planifikazio orokor baten bidez lehenestea eta zehaztea erakundearen ardura izaki, jakina, eguneroko egikaritzan eta kudeaketan bi jardueraildoak gainjarri egiten dira.

Erakundearen jarduera-memoriari dagokionez, Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartu behar du, 214/2006 Dekretuan jasotzen den moduan. Hori dela eta, jarraian aurkezten den jarduera-memoria, Emakundek 2010 ekitaldian gauzatu duen lanari dagokiona, Zuzendaritza Kontseiluak 2011ko ekainaren 10eko bilkuran onartu zuen.

Memoriak Erakundeak garatzen dituen ekintzei buruzko ikuspegi globala eta tesuinguruaren araberakoa ematen du. Erakundea zuzentzen duten organoek (Zuzendaritza Kontseilua eta Emakundeko zuzendaria), idazkaritza nagusiak, erakundera atxikitako batzordeek eta Emakunderen antolaketa osatzen duten arlo funtzionaltako langile tekniko eta administratiboek egindako lana deskribatzen du.

1> EUSKO LEGEBILTZARRAREN IX. LEGEALDIKO EMAKUMEEN ETA
GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA



Eusko Legebiltzarraren IX. Legealdia. Berdintasunerako Plan Berria

Erakundeak sortzen duen Legeak, orobat Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, ezartzen dute Emakundek legealdi bakoitzaren hasieran plan bat taxutu behar duela, dagokion legealdian euskal botere publikoen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko jarduera orientatu behar duten esku-hartze ildoak eta jarraibideak modu koordinatu eta globalean jasotzeko.

4/2005 Legean jasotakoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek, foru aldundiek eta udalek beren planak taxutu behar dituzte, plan orokor horretan ezarritako jarraibideekin bat. Horretarako, taxutze prozesuan berdintasunerako planak edo programak diseinatzen eta garatzen dituzten profesionalen ezagutza eta esperientzia jaso behar dira eta, beraz, prozesu horretan parte hartu behar dute. Halaber, gure herrialdeko herritarren eta emakume elkarten itxaropenak ezagutzeko eta eskakizun eta nahiak jasotzeko aukera eman behar du. Eta, azkenik, planean euskal botere publikoen berdintasunari buruzko jarduera orientatu behar duten ildo orokorrak ezartzen direnez, lan-prozesu bat sortu behar da, Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan eta udaletan ardura politikoa eta teknikoa duten eta berdintasun politikak garatzen lan egiten duten pertsonekin adostasuna eta lankidetzaz ahalbidetzeko.



Berdintasunerako
V. Planaren
onarpena

Horrela, 2009an, EAEn berdintasun politikak definitzen eta garatzen egindako ibilbidea ezagutzeko eta baloratzea abiapuntutzat hartuta, ibilbide horren indargune eta ahulguneen analisi zorrotz bat egin zen, lorpenak kapitalizatzeko eta erronkak lortzeko estrategiak optimizatzeko. Hori guztia, EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. Legealdirako Jarraibideak taxutzeko helburuarekin egin zen.

Horren harira, Berdintasunerako V. Planaren hobekuntza-helburu nagusiak hauek dira: administrazioetan planifikazio operatiboagoak eta zehatzagoak ahalbidetzea; jarduera integralagoa sustatzea, koordinazioaren eta sail artekotasunaren bitartez; inpaktu adierazleen definizioa eta zehaztapena hobetzea, esku-hartzeko estrategia eraginkorragoak hautematea ahalbidetu dezaten; eta politikak behar edo genero-arrakala handienak dauden esparruetarantz orientatzea, edota egungo errealitatea transformatzeko ahalmen handiena agertzen duten esparruetarantz.

Beraz, EAEn berdintasun politiken horizonte komun bat definitu nahi da, XI. legealdi honetarako lehenetsi behar diren aldaketa sozialak adierazita, baina administrazioek ezarri beharreko esku-hartze estrategiak eta jarduera zehatzak definitu gabe. Laburbilduz, honako galdera honi erantzun behar zaio: zer genero-arrakala lehenetsi behar dira datozen lau urteetako lanean?

2010 honetan 2009an hasitako lan-prozesuarekin jarraitu dugu. Hartan, administrazioen, emakumeen elkarte-sarearen eta bestelako elkarten partaidetza teknikorako prozesu bat ezarri zen eta 110 ekarpen tekniko eta 250 elkarte-ekarpen jaso ziren, guztira.

Erakundeek egindako 110 ekarpen teknikoetatik, % 67,3 guztiz edo partzialki onartu ziren; % 20, berriz, kontuan hartu ziren, ondoren ekintza gisa hartzeko. Gainerako % 12,7a ezin izan zen Berdintasunerako V. Planean barne hartu, askotariko arrazoiengatik.

Emakumeen elkarte-sareko eta bestelako elkarteetako 250 ekarpenei dagokienez, % 25,6 guztiz edo partzialki hartu ziren kontuan; % 56, berriz, ondoren ekintza gisa onartzeko hartu ziren kontuan. Ekarpenen % 18,6 ezin izan zen Berdintasunerako V. Planean barne hartu, askotariko arrazoiengatik.

Ekarpen horien analisia oinarri hartuta, Berdintasunerako V. Planaren I. zirriborroa egin zen, eta hori administrazioetan ardurak politikoa duten pertsonen aurkeztu zitzaizkien, aztertu eta adostu zezaten. Horrela, Berdintasunerako V. Planaren I. zirriborroa Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluan aurkeztu zen, urtarrilaren 11ko saioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean urtarrilaren 14ko saioan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordean urtarrilaren 26ko saioan. Lan-fase horretan 120 ekarpen jaso

ziren eta horiekin I. zirriborroari 41 aldaketa egin zitzaizkion. Horrekin guztiarekin, Berdintasunerako V. Planaren II. zirriborrea prestatu zen.

Taxutze-prozesuaren azken fasean, II. zirriborrea herritarren aurrean aurkeztu zen, eta herritarrek ekarpenak egiteko aldi bat ezarri zen, 2010eko apirilaren 22tik maiatzaren 17ra. Fase horretan, Emakunderen webgunearen bidez, horretarako sortutako Berdintasunerako V. Planari buruzko blog baten bidez eta Irekia plataformaren bidez, 134 ekarpen jaso ziren (106 ekarpen posta elektronikoko bidez, 21 ekarpen Irekia plataformaren bidez, eta 7 ekarpen blogaren bidez). Ekarpen horien % 72,4 kontuan hartu ziren Berdintasunerako V. Planerako eta % 27,6, berriz, ez ziren kontuan hartu, askotariko arrazoiengatik.

Berdintasunerako V. Planaren azken taxutze-fase horren ostean, Berdintasunerako V. Planaren behin betiko proposamena prestatu zen. Hori ekainaren 9ko saioan aurkeztu zen eta Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartu zuen. Ekainaren 29an, berriz, Gobernu Kontseiluari aurkeztu zitzaion eta onartu egin zuen.

**EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA
TAXUTZEKO PROZESUAREN LABURPEN-KOADROA
IX. LEGEALDIA**

1. Planaren oinarritzko orientazioa: egituraren analisi globala eta definizioa	2009ko irailaren 1etik 18ra
2. Proiektuaren aurkezpen politikoa	2009ko IV. hiruhilekoa
3. Proiektuaren aurkezpen instituzionala eta ekarpenak egiteko aldia	2009ko urriaren 7tik azaroaren 13ra
4. Proiektua elkarteei aurkeztea eta ekarpenak egiteko aldia	2009ko urriaren 6tik azaroaren 13ra
5. Helburu operatiboak zehazteko lana	2009ko urriaren 14tik azaroaren 13ra
6. Helburu operatiboak eta maila instituzionalen eskumen-zehaztapena kontrastatzea	2009ko urriaren 7a 2009ko azaroaren 26a 2009ko abenduaren 2a
7. Emakundeko langileria teknikoaren barne-lana	2009ko azaroaren 20tik abenduaren 3ra bitartean
8. Berdintasunerako V. Planaren zirriborroa prestatzea	2009ko abenduaren 9tik 18ra
9. Zuzendaritza Kontseiluari Berdintasunerako V. Planaren I. zirriborroa aurkeztea	2010eko urtarrilaren 11
10. Berdintasunerako V. Planaren zirriborroa Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeari aurkeztea	2010eko urtarrilaren 14a
11. Berdintasunerako V. Planaren zirriborroa Berdintasunerako Sail arteko Batzordeari aurkeztea	2010eko urtarrilaren 26a
12. Berdintasunerako V. Planaren II. zirriborroa prestatzea	2010eko martxoa-apirila
13. Informazioko eta kontsulta publikoko aldia	2010eko apirilaren 22tik maiatzaren 17ra
14. Berdintasunerako V. Planaren proposamena prestatzea	2010eko maiatzeko II. hamabostaldia
15. Berdintasunerako V. Planaren behin betiko proposamena aurkeztea, Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak onar dezan	2010eko ekainaren 9a
16. Berdintasunerako V. Planaren behin betiko proposamena aurkeztea, Eusko Jaurlaritzak onar dezan	2010eko ekainaren 29a

2> EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO
ZUZENDARITZA ORGANOEEN JARDUNBIDEA



2.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseilua

2009an legealdi berri bat hasi zenez, Emakunderako zuzendaritza kontseilu berria eratu behar izan zen. Horregatik, 2010eko urtarrilaren 11n, lehendakariak zuzendutako saio batean, Zuzendaritza Kontseilua eratu zen. Hartara, IX. legealdiko lehen bilera arrunta egin zen eta honako gai hauek jorratu ziren:

- 2008ko irailaren 10eko saioaren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana-IX. Legealdirako Jarraibideak agiriari buruzko lan-dokumentua aurkeztea.
- Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak – 2008. Urtea txostena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana Botere Publikoen alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2008. Urtea agiria aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- 2009 ekitaldiko Berdintasunaren Emakunde Sarirako hautagaitzak aurkeztea.
- Galde-eskeak.

Saio horrez gainera, Zuzendaritza Kontseiluak 2010ean beste bi saio arrunt egin zituen.



Zuzendaritza
Kontseilua

Bigarren saioa 2010eko ekainaren 9an egin zen eta honako hau izan zen gai-zerrenda:

- 2010eko urtarrilaren 11ko saioaren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2009ko Jardueren Memoria aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Emakunderen 2010eko ekitaldirako Jarduera Plana aurkeztea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana- IX. Legealdirako Jarraibideak agiriaren zirriborroa aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Berdintasunaren Emakunde Saria sortzeko eta arautzeko irailaren 12ko 166/2006 Dekretua aldatzen duen dekretuaren proposamena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Aholkularitza-enpresak enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko laguntza teknikoa eman ahal izan diezaieten homologatzeko baldintzak arautzen dituen ekainaren 8ko 105/2004 Dekretua aldatzen duen dekretu proposamena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen IV. Titulua (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea) aldatzeko prozesuari buruzko informazioa.
- Galde-eskeak.

Hirugarren saioa 2010eko abenduaren 22an egin zen eta honako hau izan zen gai-zerrenda:

- 2010eko ekainaren 9ko saioaren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak – 2010. Urtea txostena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana Botere Publikoen alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2006/2009 agiria aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- IX. legealdirako eta 2011ko ekitaldirako Emakunde Planari buruzko informazioa ematea.
- Berdintasunaren Emakunde Saria sortzen eta arautzen duen irailaren 12ko 166/2006 Dekretua aldatzen duen dekretu proposamena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (IV. Titulua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea) aldatzen duen lege aurreproiektuaren proposamena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- 2010 ekitaldiko Berdintasunaren Emakunde Sarirako hautagaitzak aurkeztea.
- Galde-eskeak.

2.2. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza taldeak euskal botere publikoekiko izandako jardunbidea

2.2.1. Eusko Legebiltzarra

Eusko Legebiltzarreko taldeek egindako zenbait galdera idatziz erantzuteaz gainera, Emakundeko zuzendariak honako agerraldiak egin ditu Eusko Legebiltzarrean, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politika, Lan eta berdintasun Batzordearen aurrean:

- Martxoaren 8an, berak hala eskatuta, Emakundeko zuzendariak Batzordeari honako bi dokumentu hauek ezagutarazi zizkion: Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak - 2008 izeneko txostena eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana Botere Publikoen alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2008 txostena.
- Ekainaren 8an, Batzordeak hala eskatuta, Euzko Abertzaleak taldeak egindako eskaerarekin bat, familia eta lan-bizitza bateratzeko eszedentziari buruz egindako deklarazioak eta beste gai batzuk azaltzeko agerraldi bat egin zuen.

Legebiltzarra



- Ekainaren 8an, Batzordeak hala eskatuta, Aralar taldeak egindako eskaerarekin bat, Berdintasunerako Legeak hedabideetako sexu-kontaktuen iragarkiei buruz xedatzen duena bete dadin neurriak hartzeari buruzko informazioa emateko agerraldi bat egin zuen.
- Irailaren 24an, Batzordeak hala eskatuta, Euzko Abertzaleak taldeak egindako eskaerarekin bat, Emakundek berdintasunaren esparruan ekintza positiboak aplikatzeari buruz daukan jarrera azaltzeko agerraldi bat egin zuen.
- Irailaren 24an, Batzordeak hala eskatuta, Euzko Abertzaleak taldeak egindako eskaerarekin bat, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana aurkezteko agerraldi bat egin zuen.
- Irailaren 24an, berak hala eskatuta, honako dokumentuei buruzko informazioa emateko agerraldia egin zuen: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak; Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Jarduera Memoria - 2009; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen Urteko Txostena.
- Azaroaren 4an, Emakundeko zuzendariak, Gobernuko beste kide batzuekin batera, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrean agerraldi bat egin zuen, Emakunderen 2011rako aurrekontu-proiektua aurkezteko.

2.2.2. Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Urriaren 26an, Emakundeko zuzendariak agerraldi bat egin zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietako Emakumearen Berdintasunerako Politiken Batzordearen aurrean, Elkartea Gastronomikoen Garrantzia eta Eragina Gizartean txostena aurkezteko, zeina Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak egin baitzuen, 2010ean.

Azaroaren 26an, Emakundeko zuzendariak agerraldi bat egin zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Batzordearen aurrean, batzorde horretan administrazioak eta enpresek familia eta lana bateratzeari buruz sustatu beharreko neurriak aztertzeke eta gure gizartearen lehiakortasun integrala aztertzeke egindako ponentziaren inguruan hausnartzeko.

2.2.3. EAEko Arartekoa / Herri Defendatzailea edo Ombudsmana

Emakunderen Zuzendaritzak eta Arartekoak bi bilera egin zituzten, lankidetzarako eta trukerako. Lehena urtarrilaren 19an egin zen, Arartekoaren instituzioaren egoitzan; bigarrena, berriz, urriaren 21ean, Emakunderen egoitzan.

- Emakunderen Zuzendaritzak lanbidea, familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzen laguntzeko politika publikoak berrikusteari buruzko ikastaroan parte hartu zuen, Arartekoak Donostian uztailaren 9an antolatu zuena, EHUren XXIX. udako ikastaroen esparruan.

2.2.4. Eusko Jaurlaritzako sailak

Emakunderen Zuzendaritzak lehendakaritzarekin aldiari behin egiten dituen bilerekin gainera (Lehendakaritzaren kudeaketa arruntari loturiko jarduerak partekatze eta koordinatzeko), Emakunderen Zuzendaritzak lankidetzara eta koordinazio-lanak egin ditu Eusko Jaurlaritzako sailekin, Gobernuaren politika publikoetan genero-ikuspegia barne hartzei loturiko neurriak sustatzeko.

Urtarrilaren 7an, Emakunderen Zuzendaritzak bilera bat egin zuen lehendakariarekin. Horretan, Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasuneko lehenespen eta eskakizunak jakinarazi zizkion, Emakunderen Zuzendaritzak sailburuordeekin 2009ko bigarren seihilekoan izandako bileretan jaso zituenak.

Emakunderen Zuzendaritza Lehendakariaren Aholkularitza Kontseiluarekin ere aritu da lankidetzan gai sozioekonomikoetarako, berdintasun helburuak 2030 urteko Euskadiren eraikuntzan integratzeko.

Ekainaren 24an, Emakunde, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Ezagutzaren Gizartearen Zuzendaritzak, eta Justizia eta Herri Administrazio Saileko Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak jarduera-protokolo bat sinatu zuten, Emakumeak Sarean proiektuaren esparruan, emakumeen elkarte eta kolektiboek zuzendutako prestakuntza digitalerako.

Bestalde, Emakunderen Zuzendaritza sail arteko edo erakunde arteko batzordeetako kide da, orobat Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak sustatutako beste organo batzuetakoa (Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua; Familiaren Erakunde arteko Batzordea; Garapena eta Lankidetzara Sustatzeko Funtzaren Batzorde Kudeatzailea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua; Droga-mendetasunen Euskal Kontseilua; Ijito Herriaren Kontseilua; Herritar Etorrinen Integrazioerako eta Partaidetza Sozialerako Foroa; Adineko Pertsonen Batzorde Iraunkor Sektoriala), eta Kultura

Sailak sustatutako beste organo batzuetakoa (EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea; EAEko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra).

2.2.5. Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza

Emakunderen Zuzendaritzak eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari atxikita dagoenak, bi aldeko zenbait bilera egin dituzte, bi organismoen koordinazio beharrezkoa indartzeko, biek ere emakumeen aurkako indarkeriaren gaian garatu behar duten lana koherentea, osagarria eta kontsonantea izango bada.

Horrez gainera, Herrizaingo sailburuak eta Emakundeko zuzendariak, urriaren 8an, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, Emakunderen eta aipatu Zuzendaritzaren arteko lankidetzaren esparrua zehazteko, helburuak betetzeko eta funtzioetan jarduteko, betiere, indarrean dagoen legediaren arabera eta koordinazio, lankidetzaren, eraginkortasun, informazio, laguntza eta leialtasun instituzionalaren printzipioekin bat.

Emakunderen Zuzendaritzak, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzako beste ordezkari batzuekin eta beste instituzio eta entitate batzuekin bat, honako emakume hauen hilketengatik antolatutako ziren salaketa-ekitaldietan parte hartu zuten: Elena Cal (Tolosa, urtarrilaren 17a), Amelia Sánchez (Barakaldo, otsailaren 8a), Isabel Vélez (Lasarte-Oria, otsailaren 19a), Amelia Amaya (Bilbo, uztailaren 25a) eta Cristina Estábanez (Barakaldo, abenduaren 6a). Guztiak genero indarkeriaren biktima izan ziren. (Denak halakotzat sailkatuta daude?)

2.2.6. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea

Lehendakariaren abenduaren 22ko 22/2009 Dekretuaren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailearen, María Teresa Erro Jauregiren, funtzioen etetea deklaratu zen, hark bere kargu-uztea aurkeztu ostean; orain arte ez da beste pertsonarik izendatu Defentsa Erakundearen titular gisa. Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 17. artikulua ezartzen duenez, lanpostu huts, ausentzia edo gaixotasun kasuetan, administrazio-organotako titularrak aldi baterako ordeztu ditzakete organo eskudunek horretarako izendatzen dituzten pertsonak. Lehendakariak, martxoaren 2ko 2/2010 Dekretuaren bidez, Emakundeko zuzendariari esleitu zizkion 4/2005 Legeak eta ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuaren bidez onartutako antolamendu-arautegiak gozten dituzten Defentsa Erakundearen funtzioak.

2/2010 Dekretuak adierazten du funtzio-esleipenak aldi baterako direla, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailearen karguak hutsik jarraitzen duen bitartean, eta EHAAan argitaratzen den egunean bertan egongo dela indarrean (hori 2010eko martxoaren 15ean gertatu zen).

Horregatik, harrez gero, Emakundeko zuzendariak betetzen ditu Berdintasunerako Defentsa Erakundeari egotzitako funtzioak. Hori agerian utzi du Emakundeko zuzendariak Defentsa Erakundearen bi txosten Eusko Legebiltzarraren eta Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean aurkeztu izanak.

2.2.7. Foru aldundiak eta udalak

Emakundeko Zuzendaritzak lan-bilerak egin ditu foru aldundiekin eta EAeko udalekin, Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluaren saioen bidez (urtarrilaren 11n, ekainaren 9an eta abenduaren 22an), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearekin (urtarrilaren 14a) eta Etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearekin (azaroaren 18a), memoria honetan deskribatzen den moduan.

Bestalde, Emakundeko Zuzendaritza Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko kidea da.

Azkenik, Berdinsareari dagokionez (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea), Emakundek, 2005ean Emakundek eta Eudelek Berdinsarea martxan jartzeko sinatu zuten Lankidetzak Hitzarmenaren jarraipena egiteko, beharrezko lan-bilerak egin zituen. Ondoren, 2009an Eusko Jurlaritzak Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza sortu zuenean, hitzarmenean aipatutako zuzendaritza barne hartu zen, bai eta Berdinsarearen lan-esparruan ere.

2.2.8. Erakunde artekoa

Emakunderen Zuzendaritzak, Arartekoarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Laudioko Udalarekin batera, lan-prozesu batean parte hartu zuen, Laudioko Sant Roque Jaunaren Kofradiak abuztuko azken igandean antolatzen duen Ermandadearen Bazkarian emakumeek parte hartu ahal izan dezaten. Kofradia diozesiarra dela eta, lan-prozesua Gasteizko Apezpikuari ezagutarazi zitzaion, egokitzen jotzen bazuen, berak ere parte har zezan.

Azkenik, 2010ean, lau mendean baino gehiagoan lehen aldiz, emakumeek Ermandadearen Bazkarian parte hartu ahal izan zuten, abuztuaren 29an eta, kasu horretan, bi emakumek hartu zuten parte.

2.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza taldeak estatuko eta nazioarteko berdintasunerako erakundeekiko lankidetzarako izandako jardunbidea

Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak adierazten du beharrezkoa dela Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia erkidegoetako administrazioak lankidetzan aritzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea integratzeko dagozkien eskumenetan jardutean eta, bereziki, planifikazio-jardueretan. Hori dela eta, lankidetzaren esparru horretan, Emakunderen Zuzendaritzak Berdintasunari buruzko Konferentzia Sektorialaren Batzorde Teknikoan eta Berdintasunari buruzko Konferentzia Sektorialean parte hartu zuen, garai hartako Berdintasun Ministerioak deitu zituenak eta Madrilen egin zirenak, apirilaren 12an eta 26an, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, Emakunderen Zuzendaritza Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren Behatokiko kidea ere bada. Behatoki hori urriaren 6ko 1686/2000 Errege Dekretuak sortu zuen, emakumeen egoerari buruzko informazioa biltzeko, analizatzeko eta ezagutarazteko, orobat zenbait esparrutan emakumeen egoera hobetzeko helburua duten politikak proposatzeko.

Horrez gainera, Emakunderen Zuzendaritzak honako hauetan ere parte hartu zuen:



Sektoreko
Batzarra - Madril

- Pekin+15 Emakumeen Europako Foroan, Cadizen egin zena otsailaren 4an eta 5ean, Espainiak Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentetza izan zuenean, 2010eko lehen seihilekoan. Foro horretan, Europar Batasuneko estatu kideetako ordezkariak parte hartu zuten, orobat Europako Esparru Ekonomikoko beste herrialde batzuek, herrialde hautagaiek, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak, estatuetak parlamentuek, nazioarteko erakundeek eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen Europako elkarte nagusiek, Pekin+15 Ekintza Plataformaren berrikuspenaren aurrean hausnarketa egiteko eta proposamenak prestatzeko. Foroaren esparruan, Pekinen 1995ean egin zen Emakumearen Munduko IV. Konferentziako plataformaren eta ekintza planaren betetze-mailari buruzko Europar Batasunaren txostena ere aurkeztu zen, Suediak Europar Batasunaren Kontseiluaren presidentetzan zegoenean egin zuena, 2009ko bigarren seihilekoan.
- Nazio Batuen Erakundeko Emakumeen Batzorde Juridiko eta Sozialaren (CSW) 54. saioan. New Yorken egin zen, martxoaren 1a eta 12a bitartean, Pekingo Ekintza Plataformaren onarpenaren 15. urteurrena oroitzeko. Saio horretan, Pekingo Ekintza Plataforma martxan jarri osteko 15 urteetako berrikuspena egiteaz gain, Batzar Nagusiaren hogeita hirugarren ezohiko batzarraldiko emaitzen txostenaren 10 urteak ere berrikusi ziren; hau da, Emakumea 2000. Urtean: Generoen arteko Berdintasuna, Garapena eta Bakea XXI. Menderako izeneko txostenarenak.
- Azkenik, maiatzaren 17tik 21era, Emakunderen Zuzendaritzak, Nazio Batuen Erakundeko UNIFEM erakundeak gonbidatuta, hitzaldiak eman zituen La Pazen eta Santa Cruz de la Sierran (Bolivia), berdintasun politikak deszentralizatze politikoko instituzio inguruneetan aplikatzeari buruz.



Bolivia



New York

2.4. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza taldeak EAE-ko elkarten eta eragile sozialen sarearekin izandako jardunbideak

2.4.1. Emakumeen elkarte-sarea

Emakunderen Zuzendaritzak, berarekin topaketa- eta kontraste-bilera bat egitea eskatu zuten erkidegoko emakume-elkarte guztiekin egindako bi aldeko bilerez gainera, emakumeen elkarte-sarearekin eta beste elkarte batzuekin bilera bat deitu du, eta horretan parte hartu du maiatzaren 11n, Bilbon. Bilera horren helburua EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak agiria taxutzeko prozesuan egindako ekarpenak nola jaso diren azaltzea izan zen.

2.4.2. Enpresak eta beste eragile sozial batzuk

2010ean, Emakundeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, 10 entitate emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko entitate laguntzaile gisa onartu dira.



Arcelor Mittal Bergara, S.A.



Daiteke- Careers&Jobs, S.L



Ekonomisten Euskal Elkargoa



Beaz, S.A.



Bilbao Metr6poli-30



Policl6nica Gipuzkoa, S.A.

- Arcelor Mittal Bergara, S.A.
- Ekonomisten Euskal Elkargoa.
- Bilbao Metr6poli-30.
- Lantegi Batuak fundazioa.
- Protecci6n y Seguridad T6cnica, S.A. (Prosetecnisa).
- Daiteke- Careers&Jobs, S.L
- Beaz, S.A.
- Policl6nica Gipuzkoa, S.A.
- Zubietxe elkarte.
- Sociedad Financiera y Minera, S.A. (Cementos Rezola).



Lantegi Batuak fundazioa



Zubietxe elkartea



Protección y Seguridad Técnica,SA (Prosetecnica)



Sociedad Financiera y Minera, S.A. (Cementos Rezola)

Figura hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, gizarte- eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baita entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko ere. 1994az geroztik eta 2010eko ekitaldira arte, hori barne, 53 entitatek jaso dute onarpen hori.

2.5. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza taldeak euskal hedabideekiko izandako jardunbidea

Herritarrak Emakunderen helburuen inguruan sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, Emakunderen Zuzendaritzak hedabideei zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-lan garrantzitsua egiten du. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidaltzen ditu, eta prentsaurrekoak eta bestelako ekintza batzuk antolatzen ditu.

Emakunderen Zuzendaritzak hedabideei zuzenduta egindako informazio jarduera zabala azaltzea ezinezkoa denez (prentsa-oharrak, irriti eta prentsa elkarrizketak eta abar), jarraian, iritzi-artikuluak, prentsaurrekoak eta hedabideei egindako deialdiak bakarrik adieraziko dira:

- **Otsailaren 1a.** Berdintasunaren Emakunde Sarirako epaimahaiaren erabakia aurkezteko prentsaurrekoa. 2009an, Lilaton Taldearentzat izan zen. Otsailaren 18a. *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak bost urte* iritzi-artikulua, Eusko Legebiltzarrean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu zeneko bosgarren urteurrena zela-eta.
- **Otsailak 18** Iritzi-artikulua: «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak bost urte», Eusko Legebiltzarrean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu izanaren bogarren urteurrena ospatzeko.
- **Otsailaren 24a.** Martxoaren 8an izaten den Emakumeen Nazioarteko Egunari buruzko «Ordu asko eta denbora gutxi» sentsibilizazio-kanpaina aurkezteko prentsaurrekoa.



Martxoaren 8ko kanpainaren aurkezpena



Berdintasunaren aldeko Emakunde Sariaren aurkezpena



Emakumeen Jardunaldiak - 2.0



Emakunde Saria

- **Martxoaren 8a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundeko zuzendariak Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen aurrean egindako agerraldia zela-eta.
- **Martxoaren 23a.** Hedabideei arreta ematea, Bilbon egindako «Emakumeak, berdintasunerako, sarean ezberdin» jardunaldiaren ondorioz. Jardunaldi hori Emakundek, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza eta Informazioaren Gizarterako Zuzendaritzak eta KzGunea sareak antolatu zuten.
- **Apirilaren 14a.** Hedabideei arreta ematea, Berdintasunaren Emakunde Sariaren ematea zela-eta. 2009an, saria Lilaton Taldearentzat izan zen.
- **Apirilaren 30a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundek Gasteizen Nahiko programaren inguruko mintegi bat antolatu zuela-eta.
- **Maiatzaren 10a.** Maiatzaren 10etik 30era izan zen Berdintasunerako VII. Foroa aurkezteko prentsaurrekoa.
- **Ekainaren 3a.** Emakundek Gasteizko Emakumearen III. Lasterketa aurkezteko prentsaurrekoan parte hartu zuen, beste erakunde batzuetako ordezkariekin batera.



Nahiko



Emakunde Saria

- **Ekainaren 8a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundeko zuzendariak Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen aurrean egindako agerraldia zela-eta.
- **Ekainaren 17a.** «Berdintasunerako garaia? Denborari, generoari eta gizarte-antolaketari buruzko gogoetak» ikastaroa aurkezteko prentsaurrekoa. Ikastaroa Emakundek eta EHUK antolatu zuten, EHUren udako XXIX. ikastaroen esparruan.
- **Ekainaren 24a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundek, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Berrikuntza eta Informazioaren Gizartearen Zuzendaritzak eta Justizia eta Herri Administrazio Saileko Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak Emakumeak Sarean proiektuaren esparruan jarduera-protokolo bat sinatu zutela-eta, emakumeen elkarre eta kolektiboek zuzendutako prestakuntza digitalerako.
- **Ekainaren 29a.** Eusko Jaurlaritzak ekainaren 29an EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak onartu zuela-eta Gobernu Kontseiluak antolatu zuten prentsaurrekoan parte hartu zuen Emakundek.
- **Uztailaren 6a.** Hedabideei arreta ematea, «Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizonak inplikatzeko»

ko politika publikoak» mintegia zela-eta. Mintegi hori Miguel Lorente Acostak eman zuen, garai hartako Berdintasun Ministerioiko genero indarkeriaren aurkako gobernuaren ordezkariak, eta Emakundek antolatu zuen Gasteizen.

- **Irailaren 21a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundek Gasteizen Nahiko programari buruzko mintegi bat antolatu zuela-eta.
- **Irailaren 24a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundeko zuzendariak Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen aurrean egindako agerraldia zela-eta.
- **Irailaren 28a.** Hedabideei arreta ematea, Emakundek Gasteizen «Emakumeak goi-mailako kirolean» mintegia antolatu zuela-eta.
- **Urriaren 21a.** *Emakunde* aldizkari elektronikoa berria aurkezteko prentsaurrekoa. *Emakunde* aldizkariaren 78. zenbakitik aurrera, aldizkaria formatu elektronikoan egiten da eta horren laburpen bat paper-formatuan jasotzen da, batez ere emakume elkarteei zuzenduta.
- **Azaroaren 17a.** Hedabideei arreta ematea, «Berdintasunerako tresnak erakundeetan» jardunaldia zela-eta. Emakundek antolatu zuen, Bilbon, Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako XVI. Astearen testuinguruan.
- **Azaroaren 24a.** Prentsaurrekoa, beste erakunde batzuekin batera, azaroaren 25ean izaten den Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko Egunaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina ezagutzarazteko.



Protokoloaren sinadura



Nahiko

- **Azaroaren 25a.** Azaroaren 25ean izaten den Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko Egunaren inguruko iritzi-artikulua.
- **Azaroaren 27a.** Hedabideei arreta ematea, Beldur Barik jaialdia zela-eta. Zenbait instituziok antolatu zuten, azaroaren 25ean izaten den Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko Eguna zela medio.
- **Abenduaren 1a.** «Zenbakiak egiazkoak dira. Zeure ardura ere bada» sentsibilizazio-kanpaina aurkezteko prentsaurrekoa. EITBren eta Emakunderen arteko lankidetzaz hitzarmenaren esparruan egin zen eta EITBn eman zuten, abenduaren 1etik 19ra.



Euskalit ekitaldia



Beldur Barik jaialdia



Emakunde aldizkariaren aurkezpena



«Zifrak egiazkoak dira. Zure ardura ere bada» sentsibilizazio-kanpainaren aurkezpena

2.6. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza taldeak ekitaldi, jardunaldi eta kongresuetan izandako jardunbidea

2010. urtean, Emakunderen Zuzendaritzak ekitaldi publiko ugarian parte hartu du.

- **Otsailaren 5a.** 2010eko Berdintasunerako VII. Foroari hasiera eman zion mintegia inauguratu zuen. Foroa antolaketa sozial arduratsuaren alde lan egitearen ingurukoa izan zen.
- **Otsailaren 10etik 12ra.** Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren VIII. Kongresuko Batzorde Zientifikoan parte hartu zuen, irekieran eta itxieran, baita lan-taldeetan ere. Kongresuak «Gizartea eta Berrikuntza XXI. mendean» izenburua zeukan, eta Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak antolatu zuen, Bilbon.
- **Otsailaren 17a.** Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen (AED) IV. AED Enpresa Sarian epaimahaikide gisa parte hartu zuen.
- **Otsailaren 24a.** Duske (Deustuko Unibertsitateko Sylff bekadunen elkarte) eta Alus erakundeek (Leipzigeko Unibertsitateko Sylff bekadunen elkarte) antolatutako «Local initiatives to the global financial crisis» nazioarteko foroko mahai-inguru batean parte hartu zuen. Deustuko Unibertsitatean izan zen, otsailaren 24tik 26ra.
- **Martxoaren 5a.** HAEK antolatutako eta Eusko Jaurlaritzaren goi-karguei zuzendutako «Berdintasuna, esparru politikoan» ikastaroa ireki eta horretan parte hartu zuen. Ikastaroa Salamancako Unibertsitateko irakasle eta 2004-2008 Estatuko legealdian Berdintasun Politiketako idazkari nagusia izan zen Soledad Murillo de la Vega eman zuen.
- **Martxoaren 7a.** Lilaton lasterketaren sari-banaketan parte hartu zuen.
- **Martxoaren 17a.** Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen (AED) IV. AED Enpresa Saria eman zuen.
- **Martxoaren 23a.** Bilbon antolatutako «Emakumeak, berdintasunerako, sarean ezberdin» jardunaldia ireki zuen. Jardunaldia Emakundek, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntzako eta Informazioaren Gizarteko Zuzendaritzak eta KzGunea sareak antolatu zuten.



Emakunde Saria



Emakumeen Jardunaldiak - 2.0

- **Apirilaren 23a.** Eusko Legebiltzarraren eraketaren XXX. urteurrenean parte hartu zuen.
- **Apirilaren 30a.** Emakunderen Nahiko programari buruzko mintegian parte hartu zuen.
- **Maiatzaren 5a.** Innobasqueren 2010-2011rako Planaren ildo estrategikoak aurkezteko topaketan parte hartu zuen, Gasteizen.
- **Maiatzaren 10a.** Eusko Legebiltzarreko ordezkariekin batera, «Berdintasuna sortzen denboraren erabileraren bidez» mintegian parte hartu zuen. Mintegi hori Eusko Legebiltzarrak antolatu zuen, Donostian, Berdintasunerako VII. Foroaren esparruan.
- **Maiatzaren 11 eta 12a.** «Feminismoa, Ikerketa eta Praktika Politikoa» izeneko nazioarteko kongresuan parte hartu zuen. Hori Madrilgo Konplutentse Unibertsitateko Ikerketa Feministen Erakundeak antolatu zuen.
- **Maiatzaren 12a.** Marcela Lagarderen hitzaldia («Beste gizarte antolaketa erantzukide baterako proposamenak») aurkeztu zuen, Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialeko Zerbitzuaren Jardunaldietan.
- **Maiatzaren 12a.** «Denboraren erabilerak eta zaintzen duten pertsonak» mintegian parte hartu zuen. Mintegi hori berdintasunerako Aizan Elkarte Psikosozialak antolatu zuen, Gasteizen, VII. Berdintasunerako Gunearen testuinguruan.

- **Maiatzaren 13a.** «Denboraren erabilera berrien tokiko kudeaketa» jardunaldian, Europako esperientzien mahai batean parte hartu zuen. Bartzelonako Diputazioko Berdintasun eta Herritartasun Sailak antolatu zuen, Bartzelonan.
- **Maiatzaren 13a.** Tokiko Hitzarmenak Kontziliaziorako programari buruzko II. Jardunaldietan parte hartzea. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatu zituen, Iruñean.
- **Maiatzaren 13a.** Santurtzi Berdinguneak antolatutako «Gizonak eta Emakumeak Berdintasunean» jardunaldiak ireki zituen.
- **Maiatzaren 15a.** Arabako Guraso Bananduen Elkartearen (AGUBAE) III. Biltzarrean, Gasteizen, zainketa partekatuari buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen.
- **Maiatzaren 19a.** «Kontziliatuz aurrera egiten dugu: organizazio, familia eta gizarteratze lanetan» mintegian parte hartu zuen. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak antolatu zuen, Gasteizen, VII. Berdintasunerako Gunearen esparruan.
- **Maiatzaren 27a.** Emakumeen Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen XVII. Topaketen irekieran parte hartu zuen. Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak antolatu zuen (Bilbo, maiatzaren 27tik 29ra).
- **Maiatzaren 28a.** Emakundek, VII. Berdintasunerako Gunearen esparruan, Gasteizen antolatutako «Emakumeen denborak, lanak eta osasuna» mintegia ireki zuen.
- **Maiatzaren 31.** Mai Masriren *Diario de Beirut: verdades, mentiras y videos* (*Yawmeyat Beirut: hakaek, akazeeb, wa videos*) filmari buruzko mahai-ingurua ireki zuen, II. Emakumeak, Ekialde Ertaina eta Erresistentzia Zibila Zinema Foroaren testuinguruan, Biladi Palestinar Kultura Zentroak antolatuta.
- **Ekainaren 3a.** Arabako Kirol Federazioen Elkartek (AFDA) Gasteizen antolatutako «Kirola eta emakumea» jardunaldian hitzaldi bat eman zuen.
- **Ekainaren 4a.** Q-EPEAk (EAEko Erakunde Publikoen Elkargunea) Donostian antolatutako Herri Administrazioetako Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko III. Biltzarrean parte hartu zuen.
- **Ekainaren 10a.** 2010eko OcioGune ekimenean, «Aisia eta balioen aldaketa» ize-neko I. foroan parte hartu zuen. Deustuko Unibertsitateak bultzatutako ekimena da.

- **Ekainaren 10a.** «Hainbat Herri Administrazioetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak» mahai-inguruan parte hartu zuen eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak ezartzeko dauden oztopoak» mahai-inguruaren moderatzailea izan zen, EHUren Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterreko «Lege-aldaketen ondoren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak: erronkak eta proposamenak» izeneko I. jardunaldian. Donostian izan zen.
- **Ekainaren 10a.** Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak antolatutako «Identitatea, kultura eta erlijioa herriko plazan: Hiyab-ari buruzko eztabaida» jardunaldian parte hartu zuen.
- **Ekainaren 11.** Kataluniako Generalitateko Lan Sailak Bartzelonan antolatutako She Leader 2.0 Emakumezko Zuzendari eta Profesionalen Nazioarteko Kongresuan «Emakumeek lan egiteko aukera-berdintasuna izatea sustatzeko ekimen publikoak» mahai-inguruan parte hartu zuen.
- **Ekainaren 13a.** Bularreko minbiziaren aurkako Emakume Lasterketan parte hartu zuen. Gasteizen izan zen, eta 2.839 emakumek parte hartu zuten.
- **Ekainaren 14a.** Santurtziko Udalak Emakunderekin lankidetzan antolatutako «Gizonak erantzukidetasunaren eta zaintzaren aurrean» jardunaldiak ireki zituen.
- **Ekainaren 16a.** «Erljioa, feminismoa eta demokrazia» mahai-ingurua moderatu zuen, II. Bilbao Kultur arteko Hiria Jardunaldietan, «Pluralismoa, erlijioak eta bizikidetzak» leloaren pean. AlhondigaBilbaok antolatu zuen, Bilbon.
- **Ekainaren 17-18a.** «Berdintasunerako garaia? Denborari, generoari eta gizarte-antolaketa buruzko gogoetak» ikastaroa ireki eta horretan parte hartu zuen. Ikastaroa Emakundek eta EHUk antolatu zuten, EHUren udako XXIX. ikastaroen esparruan.
- **Ekainaren 30a.** Irungo Alarde Mistoa babestu zuen, San Martzial eguneko alardea zela-eta.
- **Ekainaren 30a.** Ermuko Berdintasunerako III. Plana onartzeari buruzko aurkezpenean parte hartu zuen (Ermuko Udala).
- **Uztailaren 6a.** «Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizonak inplikatzeko politika publikoak» mintegia

ireki zuen. Mintegi hori Miguel Lorente Acostak eman zuen, garai hartako berdintasun ministerioko genero indarkeriaren aurkako gobernuaren ordezkariak. Mintegia Emakundek antolatu zuen, Gasteizen.

- **Uztailaren 7a.** Argiak Bilbon antolatutako «Adinekoen zaintza nola kudeatu» mahai-inguruan parte hartu zuen.
- **Uztailaren 9a.** «Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean» ikastaroan parte hartu zuen. Arartekoak eta EHUK antolatu zuten, Donostian, EHUren XXIX. udako ikastaroen ingurunean.
- **Uztailaren 12-16a.** Murtziako Unibertsitateak udako ikastaroen esparruan antolatutako «Generoa eta politika publikoak: aurrekontua genero ikuspegiarekin» ikastaroan parte hartu zuen.
- **Abuztuaren 26-27a.** Espainiako Unibertsitateetako berdintasun unitateak topaketetan parte hartu zuen. Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateak antolatu zuen, Santanderren, udako ikastaroen ingurunean.
- **Irailaren 2a.** Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen inaugurazio ofizialean parte hartu zuen, Donostian.



Mintzaldia:
Miguel Lorente -
GIZONDUZ

- Irailaren 8a. Hondarribian, Jaizkibel konpainia mistoari babesari adierazi zion, Hondarribiko alardean.
- Irailaren 10-11. «Emakumeen prostituzioari buruzko laneko jardunbide egokiak» biltzarrean parte hartu zuen. Balear Uhartereko Prostituzioari buruzko Azterketa Talde Iraunkorrek antolatu zuen, Palman.
- Irailaren 15a. Emakundek berak Gasteizen antolatutako VII. Berdintasunerako Gunea ixteko mintegian parte hartu zuen.
- Irailaren 15a. Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak antolatutako Giza Eskubideen Nazioarteko IV. Biltzarrean parte hartu zuen (Bilbo, irailaren 15etik 17ra).
- Irailaren 19a. Mikel Ruedaren *Izarren argia* filmaren estreinaldian parte hartu zuen, Donostia Zinemaldiaren 58. edizioan. Emakundek film horren finantzaketan parte hartu du.
- Irailaren 21a. Emakundek Gasteizen antolatutako berdintasunaren, errespetuaren eta indarkeriarik ezaren aldeko heziketa-kidetzako Nahiko Programaren mintegia ireki zuen.
- Irailaren 28a. Emakunde berak Gasteizen antolatutako «Emakumeak goi-mailako kirolean» mintegia ireki zuen, hitzaldiak aurkeztu zituen eta parte hartu zuen.
- Irailaren 28a. Bilboko 2010eko Zinema Ikusezinaren / Film Sozialen Nazioarteko II. Jaialdian parte hartu zuen. Kultura Communication eta Desarrollo KCD GKGEek sustatzen dute. Emakundek emakume batek egindako Lan Onenaren Sariaren ekarpena egin zuen.
- Irailaren 29-30a. «Tratu txarren biktimak diren emakume ikusezinak» mahai-ingurua ireki eta moderatu zuen, eta «Genero-indarkerian hain bistakoak ez diren moduak» jardunaldietan parte hartu zuen. Eusko Jaurlaritzaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak antolatu zituen, Bilbon.
- Urriaren 5a. Kultura Communication eta Desarrollo KCD GKGEek Bilbon antolatu zuten 2010eko Zinema Ikusezinaren / Film Sozialen Nazioarteko II. Jaialdiaren itxieran parte hartu zuen, eta emakume batek egindako Lan Onenaren Saria eman zuen.

- **Urriaren 8a.** «Emakumeen sareen esperientziak. Arrantza-sektorean lan egiten duten emakumeei buruzko proiektu zehatzak» mahai-ingurua moderatu zuen. Donostian izan zen, Arrantza-sektoreko Emakumeen Espainiako Sarearen I. Biltzarraren esparruan. Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioko Itsasoko Idazkaritza Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak batera antolatu zuten.
- **Urriaren 14a.** Emakumeek Egindako Zinearen XV. Erakustaldian parte hartu zuen. Simone de Beauvoir Elkarteak eta Bilboko Udalak antolatu zuten.
- **Urriaren 14a.** Arabako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Arabako III. Foru Planaren aurkezpenean parte hartu zuen.
- **Urriaren 15a.** Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Landa Eremuko Emakumeen Batzordearekin batera, Biasterin antolatutako «Parte hartu, zuk erabakitzen duzu» jardunaldia ireki zuen. EAEko Landa-eremuko Emakumeen VII. Nazioarteko Egunaren esparruan antolatuta zegoen.
- **Urriaren 18a.** Deustuko Unibertsitateak antolatutako Europako Balioen Inkestari buruzko III. lantegian parte hartu zuen.
- **Urriaren 19a.** «Berdintasunaren alde hezten» mintegiko «Berdintasuna sustatzen» mahai-inguruan parte hartu zuen. Coruñaiko Ikasketa Politiko eta Sozialen Institutuak antolatu zuen, urriaren 18tik 21era bitartean.



«Emakumeak goi mailako kirolean»

- **Urriaren 23a.** Etorkinei egungo euskal gizartean egiten duten ekarpenarengatik eskerrak emateko ekitaldian parte hartu zuen. Gipuzkoako SOS-Arrazakeria elkarteak antolatu zuen, Donostian.
- **Urriaren 28a.** Helena Tabernaren *Nagore* filmaren aurre-estreinaldian parte hartu zuen. Valladolideko Zinemaren Nazioarteko 55. Astearen ingurunean.
- **Azaroaren 3a.** Etxeko Andre Elkarteak XL. urteurrena ospatzeko antolatu zuen biltzarrean parte hartu zuen.
- **Azaroaren 5a.** Genero-indarkeria delituak egin dituzten erasotzaileak berriz hezteko programei buruzko nazioarteko jardunaldian parte hartu zuen. Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak antolatu zuen, Bilbon.
- **Azaroaren 9a eta 10a.** Eginaren Eginez Elkarteak Gasteizen antolatutako «Dibertsitate funtzionala duten emakumeak. Diskriminazio anizkoitza» jardunaldietan parte hartu zuen.
- **Azaroaren 10a.** Portugaleteko Udalak antolatutako Andre-gizonak Aukera Berdintasunaren alde Jardunaldiak ireki zituen (azaroaren 10a eta 11).
- **Azaroaren 10a.** Gasteizko Udalaren *Nesken gorputz jarduera sustatzeko* PAFiC *gidaren* aurkezpenean parte hartu zuen, Gasteizen.
- **Azaroaren 10-12a.** «Genero-berdintasuneko politikak prospektiban: agertoki, aktore eta egituraketa berriak» Nazioarteko Biltzarrean «Emakumeen eta gizonen berdintasuna Espainiako unibertsitateetan» eta «Berdintasunerako politikak eta *mainstreaminga*: oztopoak eta tresnak EAEren kasuan» hitzaldiak eman zituen. Latinoamerikako Gizarte Zientzien Fakultateak (Flacso) antolatu zuen, Buenos Airesen (Argentina).
- **Azaroaren 11-12a.** Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak Bilbon antolatutako Generoak, sexualitateak eta gorputzak» jardunaldietan parte hartu zuen.
- **Azaroaren 16a.** Erakunde arteko 2010eko Beldur Barik kanpainan epaimahai gisa parte hartu zuen, azaroaren 25ean izaten den Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko Eguna zela-eta.

- Azaroaren 17a. Emakundek berak Bilbon antolatutako «Berdintasunerako tresnak erakundeetan» jardunaldia ireki zuen, Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako XVI. Astearen ingurunean.
- Azaroaren 17a. Bilboko Elizbarrutiko Cáritasek *Jaunak, hitz egin behar dugu* argitalpena aurkezteko egindako ekitaldian parte hartu zuen.
- Azaroaren 19a. «Gizon eta emakumeen berdintasuna: giza eta enpresa berrikuntzaren osagai gakoa» hitzaldia eman zuen, Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako XVI. Astearen ingurunean.
- Azaroaren 19a. Paco Abril Morales soziologoak emandako «Gizonak erantzunkidetasunaren erronkaren aurrean» hitzaldia aurkeztu zuen. Emakundek antolatu zuen hitzaldia, eta Gasteizen izan zen. Konferentzia hori zuzenean jarraitu ahal izan zen, Irekia plataformaren bidez.
- Azaroaren 20a. Euskal Herriko Alargunen Federazioak Durangon antolatutako «Alarguntza pentsioen arauketa eta emakumeengan duen eragina» jardunaldia ireki zuen.
- Azaroaren 23a. Askabide elkartearen XXV. urteurren ekitaldian parte hartu zuen.
- Azaroaren 24a. Aizan elkarte psikosozialak Gasteizen antolatutako Berdintasun eta Genero indarkeriari buruzko VIII. Jardunaldietan «Emakumeen egoera: errealitatea eta erronkak» mahai-inguruan parte hartu zuen.
- Azaroaren 25a. Nahiko programa Arabako Campuseko Irakasle Eskolako ikasleei aurkezteko hitzaldi bat eman zuen.
- Azaroaren 27a. Berdinsareak Bilbon antolatutako jaialdian parte hartu zuen, azaroaren 25ean izaten den Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko Eguna zela-eta.
- Azaroaren 30a. Immigrazioari buruzko VII. Jardunaldietan, «Emakumea, desberdintasuna eta immigrazioa» hitzaldia eman zuen. Barakaldoko Udalak antolatu zituen, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren laguntzaz.
- Abenduaren 2a. «Denboraren erabilera berriak aurkituz, esku hartze sozio-politikorako» izeneko Bizkaiko Emakumeen Elkarteen VI. Jardunaldiak ireki zuen.

- **Abenduaren 3a.** «Denboraren erabilera berriak aurkituz, esku hartze sozio-politikorako» izeneko Gipuzkoako Emakume Elkarte VII. Topaketa ireki zuen.
- **Abenduaren 13a.** Gasteizko Udaleko Montehermoso Kulturguneak antolatutako Artearen eta Kulturaren Eremuetan Sexuen arteko berdintasun Politikei buruzko I. Topaketan parte hartu zuen.
- **Abenduaren 14a.** Rosario Morejónen *Género, autoeficacia y proyección profesional* liburuaren aurkezpenean parte hartu zuen.
- **Abenduaren 15a.** «Ezintasunak dituzten emakumeen enplegarritasuna hobetzeko teknologia berriak» izeneko Emakumearen VIII. Jardunaldiaren irekieran parte hartu zuen. Elkartu eta Coamificioa elkarteek antolatu zuten, Donostian.
- **Abenduaren 16a.** Donostiako Emakumeen Etxearen inaugurazio instituzionalan parte hartu zuen.
- **Abenduaren 16a.** Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialak Bilbon egin zuen *Mi tiempo es mío* emakumeen agendaren aurkezpenean parte hartu zuen.
- **Abenduaren 21a.** XXI. Mendeko Emakumea Enpresari eta Profesionalen Elkarteak ematen dituen Bilbotarrak 2010 Sarien banaketan parte hartu zuen.



Irakasleen
Unibertsitate
Eskola - Arabako
campusa

3> EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDERA ATXIKITAKO BATZORDEEK IZANDAKO JARDUNBIDEA



3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.

2009an XI. legealdia hasi zenean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea eratu zen. Hori dela eta, 2010eko urtarrilaren 14an Erakunde arteko Batzordea osatu zen, eta IX. legealdiko lehen ohiko bilera egin zuen. Bilera hartan, honako gaiak jorratu ziren:

- 2008ko uztailaren 23ko saioaren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Batzordea osatzen duen pertsona bakoitzak teknikari bat eta ordezeko bat izendatzea, ahal dela erakundeetan berdintasuna bultzatzeaz eta horren inguruko aholkularitza emateaz arduratzen diren teknikari arduradunen artean, Erakunde arteko Talde Teknikoa eratzeko.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak agiriari buruzko lan-dokumentua aurkeztea.
- Batez ere udalerrri txikietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzeko erakunde arteko lan-prozesuari buruzko informazioa.
- 2010eko ekitaldirako emakumeen eta gizonen berdintasunerako diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten Emakunderen ebazpenei buruzko informazioa.
- Galde-eskeak.



Erakundearteko Batzordea



Sailarteko
Batzordea

3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.

2009an IX. legealdia hasi zenez, kasu horretan ere emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail arteko batzorde berri bat eratu behar izan zen. Hori dela eta, 2010eko urtarrilaren 26an Sail arteko Batzordea sortu zen, eta IX. legealdiko lehen ohiko bilera egin zuen. Biler horretan, honako gai hauek jorratu ziren:

- 2009ko otsailaren 6ko saioaren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Batzordea osatzen duen pertsona bakoitzak, sailen bateko ordezkaria denak, teknikari bat eta ordezeko bat izendatzea, ahal dela sail bakoitzean berdintasuna sustatzeaz eta horren inguruko aholkularitza emateaz arduratzen diren teknikari arduradunen artean, Sail arteko Talde Teknikoa eratzeko.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak agiriari buruzko lan-dokumentua aurkeztea.
- 2009an EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana betetzeko sailek gauzatutako ekintzen jarraipen txostena egiteko informazioa.
- Eusko Jurlaritzako berdintasun politiken antolaketa-egiturei buruzko dokumentu tekniko bat aurkeztea.

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana ebaluatzeko adierazleak definitzeko lan-prozesu baten proposamena aurkeztea eta, hala bada-gokio, onartzea.
- Galde-eskeak.

2010eko azaroaren 19an, Sail arteko Batzordeak bigarren ohiko bilera egin zuen, honako gai-zerrenda honekin:

- 2010eko urtarrilaren 26ko saioaren akta aurkeztea eta, hala bada-gokio, onartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken 2009 ekitaldiko jarraipen txostenaren aurkezpena.
- Sailek berdintasunari buruzko beren programa-dokumentua aurkeztuko dute, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak agiriaren ingurunean.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak agiriaren ebaluazio-ereduari buruzko informazioa.
- Galde-eskeak.

Erakundearteko
Batzordea



3.3. Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

2010eko azaroaren 18an, IX. legealdiari dagokion EAEn etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko Sail arteko II. akordioaren Jarraipen Batzordea eratu zen. Horrela, legealdiko lehen ohiko bilera egin zen, eta honako gai hauek jorratu ziren:

- 2009ko apirilaren 24ko saioaren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- Eusko Jurlaritzaren egitura berria deskribatzea eta Eusko Jurlaritzaren IX. legealdirako Jarraipen Batzordearen egitura egokitzeko proposamena.
- Arartekoak Jarraipen Batzordean parte hartzeko egindako eskaera aurkeztea eta baloratzea.
- Jarraipen Batzordean parte hartzen duten erakundeek teknikariak izendatzea (bokala eta ordezkoa), Erakunde arteko Talde Teknikoa eratzeko.
- Galde-eskeak.

Lehen azaldu dugun moduan, Eusko Jurlaritzako Herrizaingo Sailaren XI. legealdirako egitura organiko eta funtzionala arautzen duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza sortzen eta arautzen du eta, Jarraipen Batzordearen 2010eko azaroaren 18ko saioan, Zuzendaritza horrek Batzordeko kide gisa parte hartzea onartu zen eta, gainera, idazkaritza lanak bere gain hartu zituen. Horren ondorioz, Emakundeko idazkari nagusiak Batzordearen kide eta idazkari izateari utzi dio.

Jarraipen Batzordearen Erakunde arteko Talde Teknikoari dagokionez, saio horretan erakunde partaideetako teknikariak izendatu ziren, Talde Teknikoa eratzeko eta 2011. urtearen hasieran abian jartzeko.

4> EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARLO
FUNTZIONALEN JARDUNBIDEA



4.1. Sustapen, aholkularitza eta koordinazio instituzionala

4.1.1. EAEko Administrazio Orokorra

Emakundek Eusko Jaurlaritzaren baitan garatzen du berdintasun-politiken sustapen- eta aholkularitza-funtzioa du, batez ere Sail arteko Talde Teknikoaren bidez. Talde horren helburua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea¹ arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat, Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea da, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez. Emakundek taldea sustatzen eta koordinatzen du eta, sail arteko bileren eta bi aldeko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektore-politikak analizatzen laguntzen du. Hala, berdintasuna sustatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak definitzen ditu, eta tresnak planteatzen ditu, sail bakoitzerako eta gobernu oso-rako berdintasun-politikak planifikatzeko, egikaritzeko eta jarraitzeko orduan. Ildo horretan, 2010. urte osoan, Gobernu sailei legealdiko programa dokumentu propioa taxutzeko lankidetzak eta aholkularitza eskaini zaizkie, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.2 artikuluan aurreikusten den moduan.

Aholkularitza-lanean 93 kontsultari eman zaie arreta, guztira, eta horiek sailek eta Gobernu organismo autonomoek egin dituzte. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzak eman da, batez ere materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintza berritzaileak abian jartzeko. Orobat, berdintasunerako politiken planifikazioa, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira. Lankidetzak-esparru horretan, EAEko 2011-2014 aldirako Gizarte Zerbitzuen Planari loturiko txosten teknikoa egin da.

Hauek dira Emakundek, 2010ean, Sail arteko Talde Teknikoaren esparruan, garatu dituen ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- 2009 urteari dagokion Gobernuaren baterako jarraipen txosten bat egin du.
- Sail arteko Talde Teknikoko kideei aholkularitza eskaini die, legealdiko programa-dokumentuak eta horien jarraipena egiteko txostenak taxutzeko.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana egiteko partaidetza-prozesua sustatu eta koordinatu du.

¹ Ikus Emakunderi atxikitako batzordeak, 3. atala.

- Legealdiko eta urteko programa-dokumentuak prestatzeko irizpideak proposatu eta adostu ditu.
- Sail arteko Talde Teknikorako lan-ildoak proposatu ditu eta lan-talde tekniko espezifikoak sortu.
- Genero ikuspegia plan estrategikoetan integratzeko metodologiaren inguruan hausnartu du.
- Prestakuntza beharren analisia sustatu du eta edukiak proposatu ditu Administrazio Orokorraren eta horren organismo autonomoen Berdintasunerako Prestakuntza Planerako.
- V. Planaren ebaluaziorako adierazleak definitu ditu.
- Berdintasun jarduera egokiak definitzen dituzten ezaugarri eta irizpideak birdefinitu ditu, bankuan sartu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako sailen eta horren erakunde eta sozietate publikoen, beste instituzio publikoen, enpresa pribatuen eta Estatu osoko emakume-elkarteen jardunbideez gainera. Horretarako, aplikazio informatiko bat egin du, hala nahi duten pertsonak jardunbideak kontsultatu ahal izan ditzaten.

4.1.2. Foru eta toki Administrazioa

Emakunderen funtzioa da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal administrazio publikoetako jardueren arteko lankidetzaren sustatzea, batez ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen bidez.

Erakunde arteko Batzordea² arautzen duen dekretuak xedatutakoarekin bat, eta erkidego, foru eta toki administrazioek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari loturiko politikak eta programak koordinatze aldera, 2010ean Erakunde arteko Talde Teknikoa abian jarri da. Talde horren xedea Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoak ematea da. Horretarako, bere esku uzten diren gaiak aztertu, horien inguruko txostenak egin eta proposamenak aurkeztuko ditu.

Emakundek taldea sustatzen eta koordinatzen du, bai instituzio arteko bileren bidez, bai lan-talde bileren bidez.

² Ikus Emakunderi atxikitako batzordeak, 3. atala.

Emakundek ekintza zehatz hauek garatu ditu 2010ean, Erakunde arteko Talde Teknikoaren esparruan:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Erakunde arteko Talde Teknikorako lan-ildoak proposatu eta lan-talde tekniko espezifikoak sortu ditu
- Lan-talde tekniko bat sortu du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari loturiko gaietarako administrazio publikoek eskaintzen dituzten laguntza eta diru-laguntzen errealitatea aztertzeko. Hartara, horien eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko proposamen bat egingo du. Prozesu horren emaitza gisa, irizpide teknikoen proposamen bat prestatu da eta hori Erakunde arteko Batzordeari aurkeztuko zaio, azter dezan.

Halaber, informazio- eta aholkularitza-lana egin da, EAEko udal eta aldundiekin, eta 85 kontsulta jorratu dira guztira.

Bestalde, udalen arteko lankidetzak, batez ere, bi ildo nagusiren bidez gauzatu da:

Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen eta 2005ean Eudelekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek hitza ematen du sarea dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatuzko finantzaketan parte hartuko duela eta Eudelek hitza ematen du hori sortu eta kudeatuko duela, orobat hori garatzeko beharrezko jarduerak gauzatuko dituela.

2005eko otsailaren 24an sinatutako hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren egitura eta funtzio berrietara egokitzeko, 2010eko irailaren 1ean lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten Eudelek, Emakundek eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak, Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea) garatzeko.

Sare horrek honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea: Eudel, Emakunde eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzako ordezkariak osatuta dago, eta hitzarmenaren jarraipena egiteaz arduratzen da, orobat lan-plan bat taxutzeko orduan sarearen jarduerak gidatzen duten irizpideak finkatzeaz eta lehentasunak proposatzeaz, Gober-

nuaren eta gainerako instituzioen politiken artean koherentzia eta koordinazioa egon dadin.

- Osoko Bilkura: sarearen gobernu-organoa da eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiz osatuta dago.
- Batzorde Teknikoa: udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariaz osatuta dago, orobat Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariaz, baita Emakundeko eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzako teknikari batez ere.

2010ean honako ekintza zehatz hauek gauzatu dira:

- Eudelekin hitzarmen bat sinatu da, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza ere akordioaren barruan sartuta, Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea garatzeko.
- Berdintasun-politiken sustapenaz arduratzen den udal-langileria tekniko eta politikoarekin lan egin da.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu da eta hartutako akordioen jarraipena egin da.
- Berdinsarearen batzorde teknikoetan parte hartu da eta onartutako akordioen jarraipena egin da.
- Udalerriek Berdinsarera atxikitzeke egindako eskaerak analizatu eta ebaluatu dira. Lau udalerrri atxikitzea onartu da (Elgoibar, Deba, Mutriku eta Azpeitia). Horrela, sareko udalerrri kide kopurua 50era igo da.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako esparru ordenantza bat eta udal mailako esparru ordenantza bat prestatzeko gida bat taxutzen parte hartu da.

Horretarako kontratatutako laguntza teknikoak, Eudeleko pertsona arduradunekin batera, prestatutako dokumentuen ekarpenak analizatu eta gauzatu dira, eta materialak editatzeko eta argitaratzeko kudeaketak egin dira.

- Berdinlan protokoloen (etxeke tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta emateko tokiko protokoloak) lan-taldeetan parte hartu da.

2009an, oraindik protokolorik ez duten udaletan tokiko protokoloak abian jarritzea sustatzen jarraitu da; protokolo hori duten udalekin, berriz, horien aurrerapena eta mugen analisia egiten jarraitu da. EAEko emakume etorkinen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta arreta analizatzen lan egin da, baita Emakundek egin dituen ebaluazioak analizatzen ere. Ebaluazio horiek etxeke tratu txarren biktimen arretaren antolaketa, eskumenak eta uneko egoerak jasotzen dituzte, gizarte zerbitzuetan eta justiziaren, poliziaren eta osasungintzaren esparruan

eta esparru psikologikoan, baita gizarte-zerbitzuetan prestatzen ari diren al-daketak ere.

Zuzenean Berdinsareak sustatzen duen jarduera bat da, Eudelekiko eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekiko lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, eta prestakuntza- eta jarraipen bileretan parte hartu da.

Gainera, aurreko urteetan bezala, udaletarako diru-laguntzen deialdian, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan diagnostiko sektorialak egiten lagundu da, baita tokiko jarduera protokoloak garatzea barne hartzen duten planak diseinatzen ere.

- Berdinsarearen Hezkuntza Batzordean parte hartu da.

Batzordearen helburuak finkatzeko eta hezkuntza-esparruan gauzatu beharreko ekintzak definitzeko bilera batean parte hartu da, batez ere, azaroaren 25eko kanpainari loturiko jarduerak zehaztu dira.

- Azaroaren 25erako aurreko kanpainetan garatutako materialetan oinarrituta, unitate didaktikoak prestatzeko prozesuan parte hartu da, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan neska-mutilekin lan egiteko tresnak izan daitezzen.
- Azaroaren 25aren, Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko Nazioarteko Egunaren, kanpaina diseinatzeko lan-saioak kudeatu, koordinatu eta horietan parte hartu da.

Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta egokitze udalerrientzako, koadrilentzako eta mankomunitateentzako diru-laguntzak

Tokiko erakundeek emakumeen eta gizonen udalerrietako egoerari buruzko diagnostikoak egin ahal izan ditzaten eta, Gobernuaren irizpide orokorretan oinarrituta, tokiko planak gauzatu ahal izan ditzaten egiten den diru-laguntza deialdia Emakunderi dagokion laguntza teknikoa ematea ahalbidetzen dion tresna bat da. Legealdi honetan, 400.000 euro izan dira helburu horretarako, eta udalerritxikienek eta berdintasun politikak garatzen ibilbide txikiena duten udalerriek diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko estrategiak garatu dira, baita ildo horretan prozesu sistematiko bat hasi ahal izan dezaten ere.

2010. urteaz geroztik, hogeita hamabost proiektu lagundu dira diruz 31 udalerritan. Lau udalerritan lehen aldiz jarriko dira abian diagnostiko bat eta/edo berdintasunerako plan bat egiteko proiektuak. Gainerako proiektuak diagnostiko eta berdintasunerako plan berriak egitera bideratu dira, edota indarkeriaren, kirolaren, enpleguaren eta bestelako esparruen diagnostikoak eta sektore-planak garatzera.

UDALERRI, KOADRILA ETA MANKOMUNITATE ONURADUNEN ZERRENDA

GUZTIRA: 400.000,00 euro

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	ZENBATEKOA
Igorreko Udala	Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana	12.142,50 €
Getxoko Udala	Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Getxoko udaleko III Plana egitea	15.000,00 €
Muskizko Udala	Muskizko udalerriko puntu arriskutsuen eta irisgarritasun txikiko puntuen diagnostikoa	10.364,25 €
Azkoitiko Udala	Azkoitiko Emakume eta Gizonen Berdintasun Plana	7.464,60 €
Orozkoko Udala	Orozkoko udal protokoloa egin da, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretari buruzko erakunde arteko akordioari lotuta	3.097,50 €
Bermeoko Udala	Bermeoko Udaleko emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen errealitatearen diagnostikoa eta Biktimen Arretarako Protokoloa	13.500,00 €
Bermeoko Udala	Nerabazaroko genero indarkeriari buruzko Bermeoko udal diagnostikoa	1.500,00 €
Santurtziko Udala	Genero indarkeria eta/edo etxeko indarkeria kasuetarako udalaren jarduera-protokoloa egitea	11.682,00 €
Lezoko Udala	Lezoko Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Plana egitea	7.464,60 €
Laudioko Udala	Diagnostikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana eguneratzea	10.440,00 €
Asparrenako Udala	Diagnostikoa eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren I. Plana	10.440,00 €
Portugaleteko Udala	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana III. Planera egokitzea	6.000,00 €
Arrigorriagako Udala	Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa Arrigorriagako Udalean	5.000,00 €
Arrigorriagako Udala	Arrigorriagako emakume gazteen egoerari eta beharrei buruzko diagnostikoa	10.000,00 €

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	ZENBATEKOA
Elorrioko Udala	Elorrioko emakume eta gizonen arteko egoera ezagutzeko diagnostikoa eta III. Plana egitea	15.000,00 €
Azpeitiko Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza emateko koordinazio protokoloa diseinatzeko aurretiazko udal diagnostikoa egitea	10.339,65 €
Gernika-Lumoko Udala	Gernika-Lumoko herriaren mapa emakumeen ikuspuntutik	3.356,25 €
Elgoibarko Udala	Elgoibarren mendetasuna duten pertsonen arretarako kontziliazio estratergiei buruzko diagnostikoa	8.504,25 €
Ondarroako Udala (Ondarroako eta Markina-Xemeingo udalerriak)	Ondarroako eta Markina-Xemeingo gazteek zelan sumatzen duten emakumeen kontrako indarkeria diagnostikatzea	21.149,70 €
Amurrioko Udala	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko tokiko diagnostikoa eta protokoloa.	8.496,00 €
Donostiako Udala	Donostian mendetasuna duten pertsonen arreta emateko lanen errealitatearen diagnostikoa	15.000,00 €
Larrabetzuko Udala	Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio eta Sondikako udalerrien Lan eta Emakume eremuko Diagnostiko eta Ekintza Plana	10.875,00 €
Eibarko Udala	Eibarko Hiri Diagnostikoa, Genero Ikuspegitik	6.588,00 €
Eibarko Udala	Eibarko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana egitea	4.350,00 €
Urola Garaiko Mankomunitatea	Adindunen eta/edo nolabaiteko ezintasuna eta autonomia-galera duten pertsonen zaintzeko alternatibei buruzko diagnostikoa, *ikuspegitik	11.220,00 €
Abadiñoako Udala	Hiri Debekatuaren mapa	15.000,00 €
Bilboko Udala	Dibertsitate funtzionala duten emakumeen Bilboko enplegarritasun egoerari buruzko diagnostikoa	15.000,00 €

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	ZENBATEKOA
Uribe-Kostako Mankomunitatea	Berdintasun Diagnostikoa. Uribe-Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasunerako II. Planaren parte-hartze idazketa	20.662,50 €
Urduñako Udala	Emakumeen aurkako indarkeriako eta etxeko indarkeriako kasuetarako Urduñako Esku-hartzeko Protokoloa	4.500,00 €
Ordiziako Udala	Ordiziako elkarte-sareko emakumeen egoeraren diagnostikoa	6.960,00 €
Ordiziako Udala	Emakumeen eta gizonen diagnostikoa eta egoera eta Ordiziako kirol-arloan jarduera-ildoak ezartzea	8.040,00 €
Burguko Udala (Burguko eta Dulantziko udalerrriak)	Burguko eta Dulantziko emakumeen kirol-jardueraren diagnostikoa	10.440,00 €
Burguko Udala (Burguko eta Dulantziko udalerrriak)	Burguko eta Dulantziko emakumeen ibilbidearen eta bizitzen diagnostikoa	10.440,00 €
Tolosako Udala	Tolosako elkarte gastronomikoek berdintasun arloan daukaten garrantziaren eta gizarte eraginaren diagnostikoa	8.434,22 €
Aretxabaletako Udala	Aretxabaletako herrirako indarkeria diagnostikoa eta arreta eta interbentziorako proposamena	6.786,00 €

4.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzak

Unibertsitateak

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) antolatutako Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean lankide izaten jarraitu da. Master horren helburua profesionalak gaitzea da, berdintasunerako eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak ikasleei diru-laguntzak ematean eta irakaskuntzan parte hartzean oinarritu da.

Halaber, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan jarraitu da, Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku hartzeko Masterrean. Master horren helburua emakumeen aurkako indarkeria identifikatzen, diagnostikatzen eta horretan esku hartzen lan egiten duten profesionalak gaitzea da. Lankidetzak seigarren eta zazpigarren edizioko ikasleei diru-laguntzak ematean eta irakaskuntzan parte hartzean oinarritu da.

Europako erakundek eta programak

Emakundek 2007-2013 aldirako Enplegurako eta Elkartasun Sozialerako Europako Erkidegoko Programa (PROGRESS) aplikatzeko batzordean lan egiten jarraitu du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta bereizkeriari aurka egiteari dagokionez.

Egiturazko Funtsei dagokienez, nabarmentzekoa da horien baitan berdintasun politikak sustatu ahal izateko, Emakundek 2007-2013 aldirako Europako Gizarte Funttsaren (EGF) EAEko Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordean sartu behar izan zuela, orobat 2007-2013 aldirako Europako Eskualde Garapenerako Funttsaren (EEGF) EAEko Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordean. Emakumearen Euskal Erakundeak horietan parte hartzen jarraitu du 2010 urtean, aurreko urteetan bezala.

Beste erakunde batzuk

Emakundek Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari (UNMS) Laguntzeko Euskal Sarean parte hartzen jarraitu du. Elkarte hori elkarte mugimenduak sustatzen du eta Saharako emakumeek UNMSren esparruan gauzatzen dituzten lan eta ekimenak sustatzeko balio du.

4.2. Genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa

4/2005 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria betez, 2007an, Gobernu Kontseiluak genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak onartu zituen. Irizpide horien arabera, nahitaezkoa da zenbait egintza administratibo eta arau proiektuekin batera genero eraginari buruzko txostenak aurkeztea. Sailek egin behar dituzte eta Emakunderi bidali behar dizkiote, horrek halabeharrezko txostena bidal dezan.

Txostenean, Emakundek, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta irizpideetan xedatzen dena behar bezala aplikatu den egiaztatu behar du, eta, bestetik, hobekuntza proposamenak egin behar ditu. Horrela, 2007an hasitako lanarekin jarraituz, 2010ean 75 arau proiekturi buruzko txostenak egin ditu, jarraian ageri den taulan jasotzen den moduan.

2007-2010eko DATUAK

	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	GUZTIRA
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
2010	9	36	29	1	75
GUZTIRA	37	156	127	8	328

Horrez gainera, sailei genero eraginari buruzko txostenak egitea errazteko, Emakunderen Intranetean jartzen dira, langileek kontsultatu ahal izan ditzaten, eta telefono bidezko aholkularitza eskaintzen da. Horren harira, 82 kontsulta erantzun dira. Gainera, Emakundeko langileek irakasle gisa parte hartu dute gai horri buruzko prestakuntza ikastaro espezifikoaren bigarren edizioan. Hori HAEErekin lankidetzan diseinatu zen, Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileei zuzendutako Berdintasunean Hezteko 2008-2018 aldirako Planaren esparruan.

Bestalde, aplikazio informatiko bat prestatu da, genero eraginari buruzko txostenak erregistratzeko eta, generoaren arabera eraginaren ebaluazioaren ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuarekin, arautegian sartu diren neurriak ebaluatzeko.

4.3. Berdintasun planak: txostenak, aholkularitza

Erakunde sortzeko legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea direla eta, Emakundek, legealdi bakoitzaren hasieran, EA Erako berdintasun politiken jarraibide orokorrak jasotzeko plan bat egin behar du. Lege horretan bertan jasotakoari jarraiki, sail guztiek, organismo autonomoek, foru aldundiek eta udalek beren planak plan orokor horretan ezarritako jarraibideekin bat taxutu behar dituzte.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek Eusko Jaurlaritzako sailen eta foru zein toki administrazioen berdintasun planei buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Aipatutako txostenak egiteko, Emakundek zenbait irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukiekiko eta Gobernuak onartutako plan orokorreko helburu eta estrategiekiko bat-etortze maila handiarekin diseina daitezzen; alegia, instituzio bakoitzaren berezko beharren diagnostiko batean oinarrituta egon behar dute, teknikoki, ekonomikoki eta denborari dagokionez bideragarriak izan behar dute, eta diagnostikoan definitzen den errealitate sozialaren aldaketara egokitutako estrategiak, helburuak eta ekintzak definitu behar dituzte.

Gobernuko sailei dagokienez, 2010ean, Emakunde legealdiko programa-dokumentuei buruzko txostenak egiten hasi da. Dokumentu horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen 2010eko azaroaren 19ko bileran jaso zituen.

Foru eta toki administrazioei dagokienez, aurten foru plan bati (Arabako Foru Aldundia), mankomunitate plan bati (Bideberri), tokiko hogeita lau plani eta erakunde autonomo baten plan bati (Uliazpi, Arabako Foru Aldundiko erakunde autonomoa) buruzko txostenak egin dira. Horiek Emakunderi bidali zizkioten, zegozkien gobernu-organoei onartu baino lehen. Bestalde, bi partzuergoren (Haurreskolak eta Bizkaiko Uren Partzuergoa) berdintasun planei buruzko txostenak egin dira.

Aipatutako berdintasunerako plan eta programa horiek egiteari eta onartzeari dagokienez, administrazio publikoek egindako 65 kontsulta erantzun dira.

- Lehen planak: Alegria-Dulantzi / Artea / Asparrena / Astigarraga / Azpeitia / Bergara / Bideberri / Derio / Dima / Igorre / Lezama / Loiu / Ordizia / Sondika / Usurbil / Zaldibar / Zamudio
- Bigarren planak: Areatza / Balmaseda / Larrabetzu / Sestao / Zarautz
- Hirugarren planak: Amurrio / Arabako Foru Aldundia / Ermua

4.4. Prestakuntza

4/2005 Legeak ezartzen dituen betebeharrak zehatzak alde batera utzita, Emakunde sortu zenetik, profesionalen prestakuntza genero arloko sentsibilizazio politikak garatzeko funtsezko estrategiatzat jo da. Europako erakundeek prestakuntzaren garrantzia onartu eta gogorarazi dute, eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legealdirako Jarraibideak agirian estrategia egoki gisa planteatu da, baita aurreko planetan ere. Ildo horretan, prestakuntzak Emakunderen sustapen-estrategia lehenetsia izaten jarraitzen du.

Emakunden, prestakuntzari loturiko jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira:

4.4.1. Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuen prestakuntza-jarduerak antolatzeko aholkuak ematen ditu eta laguntzen du, edukiak diseinatzeari, irakasle eta materialak bilatzeari eta organismoen artean koordinatzeari dagokienez. Azken urteetan, lan hori gero eta garrantzitsuagoa bihurtu da.

Funtzio hori betetzeari dagokionez, nabarmentzekoa da 2010. urtean Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileei zuzendutako Berdintasunean Hezteko 2008-2018 aldirako Plana garatzeko HAEEREkin batera egindako lana. Plan hori HAEERek eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak diseinatu dute, Emakunderen zuzendaritzapean. Horren harira, HAEERi eta Gobernuo sailei 2010erako planifikatutako trebakuntza ekintzak diseinatzeko eta egikaritzeko aholkularitza eta laguntza eman zaizkie. Zehazki, Emakunderen honako prestakuntza jarduerak garatzen parte hartu du:

- «Berdintasuna, esparru politikoan», Eusko Jaurlaritzako goi-karguei zuzenduta, 4,5 orduko iraupeneko, 2010eko martxoaren 5ean.
- «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak kudeatzeko prestakuntza programa (2. zatia)», Eusko Jaurlaritzako eta horren organismo autonomoetako berdintasun politikak sustatzeko unitate administratiboetako teknikarientzat, 20 orduko iraupeneko, 2010eko urriaren 25etik azaroaren 23ra bitartean.
- «Generoa eta hizkuntzaren erabilera egokia», Administrazio Orokorreko langileria guztiari zuzendua, 16 orduko iraupeneko, 2010eko otsailaren 3tik 11ra.

- «Sailen berdintasunerako planen kudeaketa», Gobernuko sailletako pertsonek Sail arteko Talde Teknikoetako kide izateko izendatutako pertsonei zuzenduta, 20 orduko iraupeneko, 2010eko apirilaren 12tik 21era bitartean.
- «Errealitatearen diagnostikoa eta analisia genero-ikuspegitik», diagnostikoak eta azterketak egiten dituen langileria teknikoari zuzendua, 20 orduko iraupeneko, 2010eko martxoaren 15etik 18ra bitartean.
- «Genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa», genero eraginaren ebaluazioak egiten dituzten Gobernuko sailletako langile teknikoei eta berdintasuneko unitate administratiboetako langileei zuzendua, 20 orduko iraupeneko, 2010eko maiatzaren 10etik 18ra bitartean.
- «Genero eraginaren ebaluazioa», genero eraginaren ebaluazioak egiten dituzten langile teknikoei eta berdintasun unitateei zuzendua, 20 orduko iraupeneko.
- «Sailen berdintasunerako planen kudeaketa», Sail arteko Talde Teknikoak osatzen dituzten langileei zuzendua, 20 orduko iraupeneko.

HAEerekiko lankidetzaz horrez gainera, aholkularitza teknikoa ere eman da, Eusko Jaurlaritzako eta foru eta toki administratiboetako sailek berek hala eskatuta, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko.

Halaber, ikastegiak eta hezkuntza esparruko beste eragile batzuen, orobat enpresa, profesional-elkarte eta orotariko entitateen, aholkularitza-eskaerei ere arreta eman zaie, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntzaren arloko adituak eta materialak diseinatzeko, antolatze eta bilatzeko.

4.4.2. Barne-prestakuntza

Emakundeko langileak prestakuntza jardueretan antolatze eta horien partaidetza sustatzeko egiten da, helburu bikoitzarekin:

- berriak direnez, oraindik behar bezala garatu ez diren zenbait gai sakontzea eta horien inguruko irizpideak bateratzea.
- berdintasun politikak sustatzeko erreferentzia gisa balio duten esperientziak ezagutzea.

2010. urtean, Emakundeko langileek interesekoak izan diren prestakuntza-ekimenean parte hartu dute, bai HAEEn aurtengo prestakuntza planaren esparruan, bai Emakunde berak antolatutako jardueretan, hala nola Nahiko ekimenean, 2010erako Berdintasunerako Foroan eta EHUren Uda Ikastaroetan.

Gainera, programen arloko teknikarietako batek Osasun Publikoaren eta Generoaren esparruko Espezializazio Diploma jaso du, Espainiako Osasungintza Eskola Nazionalaren eta Carlos III.a Institutuaren eskutik. Bestalde, dokumentazio zentroko ardura-dunak Asmoz Fundazioak eta Tabakalerak antolatutako «Informazioaren kudeatzailea eta bitartekaria» espezializazio-ikastaroa egin du. Halaber, administrari-laguntzaile bat Zuzenean Agente izateko trebatu da, HAEEK horretarako antolatu duen prestakuntzaren bidez.

Bestalde, Emakundeko langileria teknikoak gure erkidegoko, Estatuko edo beste autonomia erkidego batzuetako zenbait instituziok antolatutako honako prestakuntza-jarduera hauetan parte hartu du:

- «Berdintasunerako legeen aplikazioaren balantzea. Erakundeetan aukera berdintasun baldintzetan lan egitea eta klimaren kalitatea» jardunaldiak, Bilboko Abokatuen Elkargoan, 2010eko otsailaren 4an eta 5ean. Legelarien Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak antolatu zuten.
- Genero-arrazoiengatiko Jazarpenari eta Asilo-eskubideari buruzko I. Biltzarra, Bilbon, otsailaren 25ean eta 26an. CEAR erakundeko (Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea) EAeko taldeak antolatu zuen.
- «Jazarpen moralaren aurreko tutoretzako puntu kritikoak. Jurisprudentzia arloko azken erabakiak. Laneko jazarpenaren delitua (*mobbinga*). (Zigor Kodea Erreformatzeko Lege Proiektua)» jardunaldia, Bilbon, martxoaren 4an eta 5ean. Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkunak antolatuta.
- Landa eremuko emakumeen garapen jasangarriari buruzko Europako foroa, Caceresen, apirilaren 27tik 29ra. Espainiako Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioak antolatua.
- Tokiko Hitzarmenak Kontziliaziorako programari buruzko II. Jardunaldiak, Iruñean, maiatzaren 13an. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatu zuen.
- EHUren Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterraren esparruan egindako «Lege-aldaketen ondoren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak: erronkak eta proposamenak» I. Jardunaldia, Donostia, ekainaren 10ean eta 11n.
- «Genero-indarkeriaren hain bistakoak ez diren moduak» jardunaldiak, Bilbon, irailaren 29an eta 30ean. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak antolatua.
- Genero-indarkeria delituak egin dituzten erasotzaileak berriz hezteko programei buruzko nazioarteko jardunaldia, Bilbon, azaroaren 5ean. Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak antolatuta.
- «Dibertsitate funtzionala duten emakumeak. Diskriminazio anizkoitza» biltzarra, Gasteizen, azaroaren 9an eta 10ean. Gutxitasun Fisikoa Duten Pertsonen Arabako Elkarteak antolatuta.

- «Osasuna politika guztietan: toki eta eskualde politikek osasunaren gainean duten eraginaren ebaluazioa» jardunaldia, Donostian, azaroaren 24an. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak antolatuta.
- EHUren Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterraren «Legealdaketen ondoren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak: erronkak eta proposamenak» I. jardunaldia, Donostian, ekainaren 10ean eta 11n.
- «Berdintasun politiken kudeaketa» prestakuntza-programa, HAEEk antolatua eta Eusko Jaurlaritzako sailetako berdintasun unitateei eta Emakundeko langile teknikoei zuzendua.

Langileek parte hartzen duten beste prestakuntza-jardueren artean, euskara ikastaroak, ingeles ikastaroak, laneko arriskuen prebentzioko ikastaroak eta informatika eta teknologia berrien ikastaroak daude.

4.4.3. Kanpo-prestakuntza

Prestakuntza jarduera propioak antolatuzera eta beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartuzera zuzenduta dago.

Honako topaketa hauek antolatu dira:

- Irakasleei zuzendutako mintegiak, Nahiko programaren³ esparruan.
- **VII. Berdintasunerako Gunea**, «Gizarte antolaketa erantzukiderako denbora berriak: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilerak. Bateragarritasun erantzukidea» izenekoa, **prestatzeko mintegia**. Mintegi hori 2010eko otsailaren 5ean izan zen, Emakunderen egoitzan, eta foro horretan parte hartzeko interesa zuten entitateetara zuzendu zen. Helburu bikoitza izan zuen: batetik, «gizarte antolaketa erantzukideari» buruz sentsibilizatzea eta horri loturiko kontzeptuen esanahia ezagutaraztea, orobat berdintasunaren helburua lortzeko kontziliario erantzukidea sustatzearen eta laguntzearen garrantzia; eta, bestetik, entitateak animatzea eta jarraibideak eskaintzea jarduerak gara ditzaten VII. Berdintasunerako Gunearen esparruan, garai hartan EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren zirriborroa zenaren II. ardatzaren inguruan. Mintegi horretan, Vicent Borrás Catalá soziologiako doktoreak bi hitzaldi eman zituen, honako izenburu hauekin: «*Lana eta familia uztartzea: mugak eta aukerak. Uztartze erantzukidea: zerbitzu soziokomunitarioak, erakundeen kultura eta hiri-plangintza*» eta «*Emakumeen eta gizonen denboraren erabi-*

3 Ikus NAHIKO programa, 4.8.1 atalean.

lerak. Gizonak etxeko lanetan eta zaintzan. Emakumeak ekoizpen-lanean eta harreman eta aisia esparruan».

- **«Emakumeak, berdintasunerako, sarean ezberdin» topaketa**, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntzako eta Informazioaren Gizarteko Zuzendaritzak eta KZguneak antolatua. Bilbon izan zen, 2010eko martxoaren 23an, emakume elkarteek informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzeari loturik dituzten prestakuntza beharrak hautemateko. Topaketa horretan, Gusi Bertomeuk hizlari gisa parte hartu zuen. Gainera, emakumeen elkarte eta kolektiboetarako Emakumeak Sarean prestakuntza proiektu digitala aurkeztu zen.
- **«Emakumeen denborak, lanak eta osasuna» jardunaldia**, Gasteizko Europa Jaurerria, 2010eko maiatzaren 28an, VII. Berdintasunerako Gunearen⁴ esparruan. Gizarte zibileko erakundeei zuzenduta zegoen, baita emakumeen osasunarekin loturiko profesional-taldeei eta enpleguaren munduarekin eta denborarekin nolabait erlazionatuta dauden politika publikoekin loturiko profesionalen ere, hau da, ia euskal administrazio osoari. Jardunaldi horretan lau hitzaldi aurkeztu ziren: «Emakumeen ondoeza: bizitako esperientzien mina eta osasuna», Emilce Dio Bleichmar doktorearena; «Emakumeen osasuna, denboran proiektatutako abentura bat», Anna Freixas Farrék aurkeztua; «Lanak, erabakigarriak osasunean dauden genero-desberdintasunetan», Lucía Artazcoz Lazcanok; eta, «Berdintasuna, praktika klinikorako gidaliburuak egiterakoan: genero-joerak nola saihestu», Rosa Rico Iturriozek aurkeztua.
- **«Berdintasunerako denborak? Denborari, generoari eta gizarte-antolaketari buruzko hausnarketak» udako ikastaroa**, Donostian, 2010eko ekainaren 17an eta 18an, EHUren Uda Ikastaroen ingurunean. Ikastaro horren helburuak hauek izan ziren: batetik, lan-denborari loturiko aldaketa sozialak eta joerak eta horiek emakumeen eta gizonen bizitzan duten eragina analizatzea, orobat bien arteko harremanetan duten eragina; bestetik, emakumeek beraientzako denbora berdintasunerantz aurrera egiteko estrategia gisa aldarrika dezaten beharri buruz hausnartzea; hirugarrenik, denboraren inguruan hausnartu zen, borroka sozial, bereizkeria eta gobernu faktore gisa; era berean, denbora politikek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko nolakoak izan behar duten aztertu zen. Honako ikastaro hauek eman ziren: «Denbora, berdintasun ezen isla», María Ángeles Durán Herasek emana; «Emandako denbora», Matxalen Legarreta Izak; «Denbora eta enpresak», Ignacio Buqueras y Bache; «Denbora, analisi sozialean», Ramón Ramos Torrek; «Gazteen denborak: tenporalitateen feminizaziorantz?», Amparo Lasen Díazek; «Denborekin politikak, ongizaterako politikak», Teresa Torns Martínek.

4 Ikus Berdintasunerako Gunea, 4.12.4 atalean.

- **VII. Berdintasunerako Gunearen itxiera-mintegia.** Mintegi hori 2010eko irailaren 15ean izan zen, Emakunderen egoitzan, eta foro horretan parte hartu zuten entitateetara zuzendu zen. Helburu bikoitza izan zuen: batetik, foroa ebaluatzea, antolaketa-alderdiei dagokienez eta edukiari dagokienez; eta, bestetik, denboraren, hiriaren eta udal politiken arteko erlazioa analizatzea, denboraren erabilera sozial berrietarako. Gainera, hiru udal esperientzia zehatz ezagutarazi ziren: Burlatako Udalarena (Nafarroa), Sant Boi del Llobregateko Udalarena (Katalunia) eta Gasteizko Udalarena (Araba).
- **«Emakumeak goi-mailako kirolean» mintegia,** 2010eko irailaren 28an, Emakunderen egoitzan. Honako helburu hauek izan zituen: batetik, emakumeek kirolean duten egungo egoerari buruzko informazioa ezagutaraztea; eta, bestetik, goi-mailako emakume kirolarien profesionalizazio-prozesuak eta ibilbideak aztertzea eta horien inguruan eztabaidatzea. Dorleta Ugalde Usandizaga eta Olatz Legarza Albizurik «Goi-mailako emakume kirolarien egoera EAEn» gaia aztertu zuten; Patricia I. Sosa González eta Jorge Dueñas de Galarzak, berriz, «Emakume kirolarien profesionalizazio-prozesua: hastapenetatik goi-mailara, eskubaloia kasuan» gaiari buruz hausnartu zuten; Edurne Elizondo Mitxelena «Hedabideek emakume kirolariekin duten tratamendua» aztertu zuen; eta, Garbiñe Etxeberria Aranburu, Eva González Berrotaran eta Maite Zunzunegi Lujanbio kirolariek «Emakume kirolarien ibilbideak» gaiari buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuten.
- **«Berdintasunerako tresnak erakundeetan» jardunaldia,** Bilbon, Eusko Jaurizaritzaren egoitzan, 2010eko azaroaren 17an, EUSKALIT-Bikaintasunerako Euskal Fundazioak sustatutako Kalitatearen eta Bikaintasunaren Europako XVI. Astearren ingurunean. Jardunaldi horren helburua gure inguruneko erakundeek berdintasunaren esparruan egindako aurrerapenak neurtzeko eta helburu hori lortzeko jardunbide egokiak ezagutarazteko abian jarri dituzten zenbait tresna eta prozesu aztertzea izan zen. Honako hitzaldi hauek egin ziren: «Erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren diagnostikoa egiteko metodologiak», Juan Fernández Vaquerok eman zuen; «Neurtzea, esku hartzeko: Unibertsitateetan izandako esperientzia», Ainhoa Novo Arbonak; eta, «Laneko jazarpen sexualaren eta sexistaren prebentziorako eta tratamendurako tresna bat», Olga Fotinopoulou Basurkok. Halaber, esperientzia praktikoen mahai-inguru bat egin zen eta honako hauek hartu zuten parte: María Angeles Guridi Legarrak, BBK-ko ordezkaria, zeina emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako entitate laguntzailea den eta Nazio Batuen Saria (UNIFEM) jaso duen; Ana Artetxe Sánchezek, Bultz-Lan Consulting erakundeak, zeina emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako entitate laguntzailea den eta T-barne hartu 2010 Saria jaso duen; Marta Senz Eriz eta Vanesa Salgueiro Losadak, Sartu eta Peñasca Fundazioa (Sendotu Elkarte) erakundearen izenean. «Bateragarritasun erantzukidea. Berdintasunerantz, gizarteratze eta gizarte-ekonomiako enpresetan».

- «Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizonak inplikatzeko berdintasun politika publikoak» jardunaldia, Gizonduz⁵ ekimenaren ingurunean.
- «Gizonak erantzunkidetasunaren erronkaren aurrean» mintegia, «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak», bigarren online prestakuntza ikastaroaren ingurunean antolatua, Gizonduzen⁶ ekimenez.

Bestalde, Emakundeko langileek honako ikastaro hauetako ikasgaiak irakatsi dituzte:

- Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) antolatua.
- Genero eraginaren aurretiazko ebaluazio-ikastaroa, HAEEK antolatua eta Administrazio Orokorreko eta horren organismo autonomoetako langileei zuzendua.
- Osasun Publikoaren eta Generoaren esparruko Espezializazio Diplomaren V. edizioa, Emakumearen Institutuak-Berdintasun Ministerioak, Espainiako Osasun Eskola Nazionalak-Carlos III.a Osasun Institutuak eta Osasun eta Kontsumo Ministerioko Emakumearen Osasunaren Behatokiak antolatua.
- Emakumeen kontrako Indarkerian Esku hartzea Masterra, Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- «Berdintasunerako sail arteko planen kudeaketa» ikastaroa, HAEEK antolatua eta Administrazio Orokorreko eta horren organismo autonomoetako langileei zuzendua.
- «Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertze bidean», Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroa, Arartekoak antolatua.
- «Generoa eta berdintasun politikak» ikastaroa, Gaztela eta Leongo Administrazio Publikoaren Institutuak antolatua.
- «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitatea», bigarren online ikastaroa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak antolatua, Gizonduz ekimenaren ingurunean.

5 Ikus Gizonduz programa, 4.8.2 atalean.

6 Ikus Gizonduz programa, 4.8.2 atalean.

4.5. Jarraipena eta ebaluazioa

4.5.1. 2006-2009 aldirako EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Plana eta 4/2005 Legea

Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Planaren indarraldia 2009. urtean bukatu zen, beraz, 2010. urtean, Emakunde haren ezarpenaren ebaluazio orokorra egin du. Bestalde, 4/2005 Legearen garapenaren eta ezarpenaren ebaluazioa egin da, lehen xedapen gehigarria betetzeko; izan ere, bost urtez behin ebaluazioa egiteko agintzen du.

VIII. legealdiaren hasieran, prozesu bikoitza egiteko plangintza egin zen, bi behar horiei erantzuteko. Batetik, legearen I., II. eta IV. tituluetan araututako neurriak eta III. tituluaren azken neurriak ebaluatu dira; bestetik, III. titulua ebaluatu da, agintari publikoek Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Plana gauzatzeko egindako jardueren urteko jarraipena eginda. Hortaz, 2006. urtean lehen aldiz neurtu zen administrazioak aipaturiko neurriei zegokienez zer egoeratan zeuden legea onartu zen unean, hau da, 2005eko lehen hiruhilekoan, alderatzeko erreferentzia bat izateko, eta 2008. urtean, tarteko neurketa edo ebaluazioa egin zen. III. tituluari dagokionez, urtero, agente publikoek IV. Plana gauzatzeko egindako jardueren txostenak egin dira.

Aurten, hots, 2010. urtean, Emakunde I., II. eta IV. tituluetan ezarritako neurrien garapenarekin eta 2009. urtean IV. Plana betetzeko agintari publikoek egindako jarduerekin zerikusia zuen informazioa bildu du, 4/2005 Legearen III. tituluko neurrien garapenaren berri emateko. Prozesu hauek, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmen baten barruan egin dira.

Aurreko neurketak osatzeko, azterketa kualitatiboa ere egin du, besteak beste, hauek baloratzeko: tokiko administrazioek berdintasun politikak garatzeko prozesua bultzatzen edo eragotz dezaketen faktoreak, eta gizon eta emakumeen berdintasunerako politiken kapital sozialaren sorkuntzan –ezagutza, gaitasun proaktiboa, harremanak, sareak eta abar– tresnei emandako balioa, hala nola legeari, berdintasun planei, prestakuntzari eta bestelakoei.


EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana botere publikoaren alorrean gauzatzeari buruzko jardueraren txostena (2006-2009)


Txosten honen helburu orokorra da Euskal Administrazio Publikoak emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politiken arloan IV. Planaren lau urteko indarraldian izandako joerak aztertzea.

Ebaluazio honen berriazko helburuak hauek dira:

- IV. Planaren lau urteko indarraldian zehar gauzatutako ekintzen azterketa orokorra egitea.
- IV. Planaren lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programetan lortutako betetze maila eta betetze horren indar maila aztertzea.
- Euskadiko Herri Administrazioiko erakundeek lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programak gauzatzeko izan duten parte-hartze maila aztertzea.
- Lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programak gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak aztertzea.
- Lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programen estaldura-maila aztertzea (kolektibo hartzaileak).
- Lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programek dagozkien helburuetan izandako eragina aztertzea.

Urteko ebaluazioetan Administrazioaren hiru mailetako erakundeek parte hartu dute. Erakunde autonomoetan, erakunde publikoetan, sozietate publikoetan eta beste erakunde batzuetan partaidetza handitu da; toki administrazioan, berriz, txikiagotu da. Hori horrela, udalen % 68k parte hartu du ebaluazio horietan, eta udal horietatik, % 88k berdintasun plana zuten 2009. urtean.





- Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen prebentzioa eta arreta hobetzea (k=356)
- Emakumeen kultur eta arte arloetako presentzia eta parte-hartzea (k=307)
- Diskriminazio anizkoitzaren pean eta bazterkeria arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetzea (k=285)
- Arlo soziokulturaletan sexismoa desagerraraztea (k=154)
- Emakumeen eta gizonen lan baldintzak berdintzea (k=151)
- Lana eskuratzeko aukera berdintasuna (k=131)
- Ikastetxeetan indarkeria prebenitzea eta bitartekaritza lana egitea (k=109)
- Lan zerbitzuetan genero ikuspegia barne hartzea (k=104)

Planaren lau urteko indarraldian, IV. Planaren programa eta helburu guztiak («Koinunika bideetan gizonak eta emakumeak berdintzearen parte hartzea» helburuari izan ezik) indar handiagoz edo gutxiagoz gauzatu badira ere, proposatutako zenbait neurri lehentasuna emateko joera dute administrazio publikoen jarduerak. Horrela, IV. Planaren lau ardatz estrategikoak kontuan hartuz, aztertutako datuen arabera, administrazioek lehentasuna eman diote euskal administrazio publikoetan genero *mainstreaming*a ezartzeari eta emakumeen ahalduz eta partaidetza soziopolitikoari.

Programei dagokienaz, laugarren planean proposatutako 27 programetatik zortzitan, egindako jardueren guztien ia bi herenak bildu dira.

Eta helburuei dagokienaz, proposatutako 76etatik 10etan jardueren % 60 bildu dira.

Hauek dira IV. Planaren indarraldian zehar politika publikoen bilakaeran nabarmen daitezkeen beste alderdi batzuk⁷:

- Berdintasun politikak kudeatzeko, bultzatzeko eta ebaluatzeko egituren jauzi kualitatiboa nahiz kuantitatiboa.

⁷ Txosten osoa Emakundearen webgunean eskura daiteke: www.emakunde.euskadi.net-en.

- Aurrerapauso handia erakunde barruko koordinazio egiturak sortzen eta emakumeek nahiz elkarteek berdintasun politiketan parte-hartzean.
- Igoera handia emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana duten toki administrazioen kopuruan.
- Berdintasunerako IV. Plana garatzeko bideratutako urteko batez besteko gastuaren igoera; % 27koa hain zuzen, III. planaren aldean.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ezarpenaren ebaluazioa

Ebaluazio honetan, batez ere, ondorengo alderdiak aztertu dira: lehenengo eta bigarren tituluak (4-22. art., biak barne), genero ikuspegia administrazio publikoan integratzeko aurretiko betebeharrak eta baldintzak ezartzen dituztelako; III. eta IV. tituluetak alderdi batzuk; eta, xedapen gehigarrietan eta azken xedapenetan aurreikusitako neurrien betetzea. Zehazki, legean jasotzen diren alderdi hauek ebaluatu dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan politikak sustatzeko eta garatzeko oinarrizko erakunde antolaketa.
- Botere publikoen arteko koordinazio-mekanismoak.
- Legean agertzen diren neurriak finantzatzeko irizpideak eta finantza-lankidetzarako formula posibleak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egitea eta gauzatzea.
- Estatistiken eta azterlanen egokitzapena.
- Genero eragina aurretik ebaluatzeko arauak edota jarraibideak egitea, baita desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzea ere.
- Administrazio publikoetako langileen trebakuntza.
- Berdintasun printzipioaren ezarpena administrazioko araudian eta jardueretan.
- Emakumeen eta elkarte-mugimenduen parte-hartzea.
- Hedabideen eta publizitate euskarrien bidez transmititzen den publizitatearen inguruko aholkularitza eta analisia.
- Enpresetan berdintasunerako planak arautzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea.

Atal honen hasieran adierazi den moduan, hirugarren tituluko gainerako neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planari dagokion ebaluazio prozesuaren bidez ebaluatu dira urtero, izan ere, beste gauza batzuen artean, titulu honetako neurri guztiak garatzeko egin eta onartu den plana da hori. Neurri horien helburua aurretik aipatutako jarduera eremuetan emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra sustatzea da.

Helburu nagusia jarraipena egitea izan da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea betetzen, garatzen eta aplikatzen ote den ikusteko. Hala, Legea zer neurritaraino betetzen den ikusi ahal izan da, aplikazioan sortu diren zailtasunak zehaztu dira, eta erabakiak hartzeko garaian ekarpenak egin dira.

Bestalde, helburu espezifikoak honakoak dira:

- Legean agertzen diren hainbat alderditan berau onartu aurretiko egoera eza-gutzea.
- Legea bost urte hauetan nola aplikatu den jakitea eta deskribatzea.
- Aplikatu denaren eta aplikatu nahi zenaren arteko desberdintasunak aztertzea.
- Legea aplikatzeko eta aplikatzerakoan sor daitezkeen zailtasunak aztertzea eta deskribatzea.

Hiru administrazio publikoetako erakunde publikoak erabili dira informazio iturri moduan:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
- Eusko Jaurlaritzako sailak eta erakunde autonomoak
- Foru Administrazioiko teknikariak
- Toki Administrazioiko teknikariak

Datuak biltzeko erabilitako teknikak era askotakoak izan dira: elkarrizketa egituratua, Emakundeko teknikarientzat; *ad hoc* galdeketa Eusko Jaurlaritzako, hiru foru aldundietako eta berdintasunerako plana duten hiru lurralde historietako udalen sailetako teknikarientzat; dokumentazioa berrikustea (aldizkari ofizialak eta webguneak); eta, datu-baseak berrikustea.

Egindako azterketaren ondoren, Emakundek Berdintasunerako Legearen lehen bost urteko indarraldiaren balorazio positiboa egin du. Aurrerapauso garrantzitsuak ikusi dira Legean jasotako zenbait artikulutan; esaterako, I. tituluan, berdintasun erakundeei eta koordinazio organoei buruzkoetan. Gauza bera esan

daiteke II. tituluan jasota dauden eta euskal agintaritzaren eta administrazio publikoen jardueretan genero ikuspegia erabiltzeko buruzkoak diren neurriak buruz. Partaidetza soziopolitikoari buruzko III. tituluko I. kapituluari dagokionez, 23. artikulua aplikatzeak aurrerapen handiak ekarri ditu Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta hein txikiagoan, udaletako goi karguetan dagoen emakume kopuruan. Hala ere, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten erakunde autonomo eta erakunde publikoetan goi karguetan dagoen emakume kopuruan.

Bestalde, Berdintasunerako Legearen azken xedapenetako laugarrenean hauteskundeetan parte hartzen duten hautagaiei dagokienez sartutako derrigorrezkotasunari alderdi guztiek jarraitu diote, Eusko Legebiltzarrerako nahiz Batzar Nagusietarako hauteskundeetan. Horrek, eragin positiboa izan du bien osieran. Hala ere, oso emakume gutxi dira zerrenda-buru bi kasuetan, eta Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako datuak aurrekoetakoak baino txarragoak izan dira.

Egiteke edo hobetzeke dauden alderdien artean hauek aipa daitezke: elkarte eta erakunde profesional eta enpresarialetan, gizarte ekonomiako elkarteetan, sindikatuetan eta elkarte politikoetan emakume eta gizon kopurua orekatua izatea; emakumeek eta herritarren elkarteek benetan eta modu askean parte hartzeko bidea sortzea; publizitatea aztertzeke eta haren inguruan aholkatzeke organoa sortzea; enpresen berdintasun planak ebaluatzea eta haiek bultzada handiagoa ematea; berme funtsa, pentsioak ordaintzen ez direnerako; eta etxean tratatu txarrak izan dituzten emakumeei laguntzeko programa sortzea⁸.

Berdintasun politikek EAEn sortutako kapital sozialaren azterketa

Ikerketa kualitatibo honen bidez, Emakunde 4/2005 Legeak udaletan eta aldundietan berdintasun politiken garapenean izan duen eragina gehiago aztertzen saiatu da, berdintasun planen garapenari, aliantzak sortzeko eta berdintasunaren arloan kontzientziatuta dauden eta proaktiboak diren udaleko langile kopurua handitzeko dagokionez. Helburu orokorra da jakitea berdintasun politikak (berdintasun planetan jaso ohi dira) zein neurritan ari diren «kapital soziala» sortzen, betiere kapital soziala *mainstreaming* politikak garatuz sortzen diren harremanen saretzat hartuta. Halaber, erakundeetan genero ikuspegia zeharkakotasunez ezartzeko zenbaterainoko eragina duten jakin nahi da.

Bestalde, elkarrengandik ikastea errazten duten eta berdintasun unitateek erantzukizunak bete ditzaten eraginkortasun eta asertibitate handiagoa ekartzen duten jardunbide egokiak identifikatzeko ahalegina egin da.

⁸ Txosten osoa Emakundearen webgunean eskura daiteke: www.emakunde.euskadi.net-en.

Elkarrizketa eta eztabaida-taldeen bidez garatu da, eta aldundi, hiriburuetakoa udal eta udaletan oro har, bilakaera eta gaur egungo egoera aztertu dira. Udal horiek elkarren artean alderatu dira. Horrela, berdintasun planak eta berdintasun politikak garatzen nolabaiteko jardura dutenak eta planak ez dituzten edo duela gutxi onartutako planak dituzten udalak alderatu dira.

Egindako azterketaren arabera, 4/2005 Legea onartzeak bultzada handia eman dio udalen berdintasun planen garapenari. Bultzada horren arrazoia bikoitza izan da: batetik, EAEko administrazio asko berdintasuna garatzeko funtsezkoak diren egiturazko elementuak (planak, talde teknikoak, aurrekontuak, koordinazio egiturak) ezartzen hastera edo indartzera behartu dituelako; eta, bestetik, berdintasun eragileei haien ekimenak eta, bereziki, administrazioan barne zeharkakotasuna lortzeko ekintzak, babesteko zilegitasun tresna garrantzitsua eman dielako. Ildo horretan, 3/2007 Lege Organikoa ez da hain erreferente garrantzitsua izan, edukiei eta zilegitasuna emateko eginkizunari dagokienez. Hala ere, indartzeko balio izan du, eta oso une egokian onartu zen, udal eta foru legealdiaren hasieran.

Kapital soziala sortzeari dagokionez, azterketa honetan definitu den moduan, berdintasun planen ahalmena nabarmendu behar da, berdintasun politikak zehazteko tresna nagusiak baitira. Hala ere, ahalmen hori garatzeko zenbait baldintza behar dira, besteak beste: teknikari batek bultzatzea, ahal dela berdintasunean aritua den eta esperientzia duen pertsona batek, baina batez ere karguan luzaro egoteko asmoa duenak, proiektu jarraitu bat sortu eta horri eutsi ahal izateko; aurrera egiteko gaitasuna izatea; administrazioaren, elkarteen eta berdintasun planen eraginpean dauden biztanleen ezaugarri bereziak ezagutzea; eta, plangintza metodologiak udalen errealitatera egokitzea –berdintasun planek, kapital soziala sor dezaten, administrazioaren barruko eraikuntza prozesu baten emaitza izan behar dute–.

Inplikazio politikoa ezinbesteko faktoretzat jotzen da berdintasunaren aldeko kapital soziala sortzeko. Horrez gain, beste faktore garrantzitsu batzuk daude: herritarren partaidetza, koordinazio egiturak sortzea, arduradun politikoei presakuntza ematea, komunikazioa hobetzea eta lankidetzak sareak sortzea⁹.

9 Berdin.

4.5.2. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko zerbitzuek duten eraginaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 51.2 artikulua haxe ezartzen du: «Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldian-aldian ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena». Urte honetan EAEko gizarte zerbitzuen arloan dauden baliabideak ebaluatzeko egindako txostenak jarraipena ematen die aipatutako agindua betetzeko 2006. urtean hasitako ebaluazioei. Geroago, 2007. urtean, polizia eta justizia zerbitzuak aztertu ziren; 2008an, osasun eta psikologia zerbitzuak; eta, 2009an, zerbitzu arruntak eta premia-zerbitzuak.

2010. urte honetan, batetik, indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko Gizarte Zerbitzuen arloko programa eta arreta zerbitzuen eraginkortasunaren eta eraginaren ebaluazioa eguneratu da, 2009ko datuetan oinarrituz; eta, bestetik, jarraipen, ebaluazio eta komunikazio parte-hartzailerako proposamen bat diseinatu da, hurrengo ebaluazioak egiteko proposamen metodologiko moduan.

Ebaluazioan helburu hauek planteatu dira:

Azterketaren helburuak:

- Gizarte zerbitzuen emakumeen kontrako etxeko tratu txarren arloko programa eta arreta zerbitzuen eraginkortasunari eta irismenari buruz 2006an egindako ebaluazioa eguneratzea, 2009ko datuak eta 2010eko informazioa erabiliz.
- 2006ko ebaluazioan zerbitzuaren kalitatea eta zerbitzu-ematearen baldintzak hobetzeko egindako gomendioen jarraipena egitea.
- Jarraipen, ebaluazio eta komunikazio parte-hartzaileko sistema proposamen bat diseinatzea, hurrengo ebaluazioak egiteko proposamen metodologiko moduan.

Prozesuaren helburuak:

- Gizarte zerbitzuen baliabide eta programetan esku hartzen duten pertsona eta eragileekin sortutako partaidetza esparruak hobetzea.
- Ebaluazio galdeketa luzeak betetzeko zereginak denbora eta bolumen aldetik murriztea, hainbat prozesu eta erakundetatik iristen diren askotariko eskaerek motibazio eza eragiten dutelako eskatutako datuak bilatzeaz eta emateaz arduratzen diren pertsonengan.

Ikerketan dokumentuak aztertu eta teknika kualitatibo nahiz kuantitatiboak erabili dira. Udal, foru aldundi eta Eusko Jaurlaritzako kudeaketa eta politika arloko

langileekin eta tratu txarren biktima diren emakumeekin lan egiten duten elkar-
teekin elkarrizketak egin dira. Bestalde, udal teknikariei eta eztabaida taldeei
–udalerrietako teknikariz nahiz zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumez osatuta
daude– 43 inkesta egin zaizkie.

Emaitzen arabera, aurrerapen handiak egin dira 2006. urtearen aldean, hala
ere, oraindik erakundeen bultzada handiagoa behar da, besteak beste tokiko eta
eskualdeko erakunde arteko koordinazio mekanismoen hobetze beharrari erantzuz-
teko, arreta zuzeneko langileak prestatzeko, problematika gainditzeko prozesuan
laguntza programak indartzeko eta horiekin lotutako arazoak dituzten emakumeei
irtenbidea emateko.

Hurrengo ebaluazioak egiteko proposamen metodologiko moduan jarraipen,
ebaluazio eta komunikazio parte-hartzaileko proposamen bat diseinatzeari da-
gokionez, jarraipenaren, ebaluazioaren eta koordinazioaren arloetan gaur egun
dagoen egoera gehiago aztertzen eta aurreko ikerketetan eta azken txostenen
balantzean antzemandako beharrari emandako erantzunetan aurrera egiten saiatu
da Emakunde. Izan ere, arazo hauek aurkitu dira guztietan: Lurraldean arabera,
zerbitzuetan eskuragarri dagoen informazioaren edukian alde handiak egotea,
bolumenari, eguneratzeari eta adierazleei dagokienez; datuak biltzeko zailtasuna;
tokiko erakundeak lanez gainezka egotea, hainbat erakundetatik heltzen diren
eskaerengatik; eta abar.

4.6. Emakumeen elkarteei aholkua ematea eta laguntzea

4.6.1. Aholku Batzordea

Berdintasunerako Emakumeen Kontseilua sortzeke dago. Bitartean, Aholku Batzordeak ohiko zereginekin jarraitu du. Bestalde, Emakundek Aholku Batzordeko ordezkari bat Euskal Administrazio Publikoaren mailetan sortutako partaidetza organo sektorialetan izatea bultzatzen eta ahalbidetzen jarraitu du, baita udal, eskualde eta lurralde mailan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatzen ere.

Sortu zenetik, Emakunderen lehentasunezko jardura ardatzetako bat emakumeen elkarteen sarea sustatzea eta sendotzea da. Horretarako, haiek esku-hartze publikoko esparru guztietan politiken diseinuan eta erabaki-hartzean parte hartzea sustatzen du. Lan hori dela-eta, iraganean, arian-arian, elkarteekiko harreman eta truke mekanismoak sortu dira, eta haien arteko trukea eta lan koordinatua bultzatu eta babestu da. Horren guztiaren ondorio dira Emakunderen Aholku Batzordea eta elkarteek, berdintasunezko gizartea lortzeko, sentsibilizazioan eta gizarte aldaketan arloan egindako ekarpenak.

Egindako bideari esker, 4/2005 Legean (24.5 art.)¹⁰, emakumeek eta elkartemugimenduak parte hartzeko erakunde bat sortzea aurreikusi zen. Argi dago aipatutako erakundea definitzera, sortzera eta arautzera eraman behar duen prozesua oso konplexua dela, baita aberasgarria ere, bai Emakunderentzat, bai elkarteentzat berentzat. Prozesu hori goian aipatutako legea onartu aurretik hasi zen eta aurrera jarraitzen du, sustapen, dinamizazio eta laguntza tekniko zein ekonomikoko lan handi baten bitartez. Emakundek prozesu hori indartzen jarraitzen du. Horrek, erakundea sortzeaz gain, emakumeen partaidetza soziopolitikarako dinamika eta estrategia berriak abian jartzeko eta finkatzeko prozesu konplexua ere badakar.

Esparru horretan, elkarteekin lurralde bilerak sustatzen eta dinamizatzen jarraitzen du, haien jardura esparrua eta tokiko eta lurraldeko administrazioekin duten harremana edozein dela ere, sareak finkatzeko, modu egonkorrean koordinatzeko, eta guztientzat interesgarriak diren ekimenak eta proiektuak sortzeko.

Emakunderen Aholku Batzordeko elkarteetako ordezkariak, elkarlan kultura sortzeko asmoz, lurralde bakoitzean parte har dezaten bultzatzeari esker, emakumeek

¹⁰ Gaur egun, Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseilua sortzeko lege aurreproiektuaren zirriborroa administrazioan izapidetzen ari dira.

elkarteetan parte-hartze aktiboa izatea bultzatzeko estrategiak zehazten ari dira eta konpromisoak zein etorkizuneko ekimenak bilatzen.

Hauek dira 2010. urtean egindako jarduerak:

- Lurraldeetako aholku azpibatzaordeen bilerak: batetik, aholkuak emateko eta partaidetza errazteko eta sustatzeko; eta, bestetik, sareko proiektuak bultzatzeko.
- Aholku Batzaordearen barruan dauden batzaordeei eta lan-taldeei laguntzea eta haien jarraipena egitea. Lan-taldeen artean hauek daude:
 - Gizarte bazterketaren esparruan diharduten elkarteak.
 - Emakume alargunen elkarteak.
 - Komunikabideak eta elkarte mugimendua.
 - Lurralde jardunaldiak antolatzen dituzten elkarteak
 - Emakume etorkinen ordezkariak
 - Emakume nekazarien ordezkariak
- Hainbat proiekturen inguruko aholkularitza ematea eta jarraipena egitea:
 - EAEko emakume alargunen sareak.
 - Lurralde esparruko hedabideak eta emakume elkarte mugimendua.
 - Landa eremuko emakume elkarteak.
 - EAEko emakume ijitoen elkarteak.
 - Ezintasunak dituzten EAEko emakumeak, lurralde bakoitzeko erakunde mistoetako emakumeen sailaren ordezkari osatuta.
 - Udal, eskualde eta lurralde sareak finkatzen eta sortzen laguntzen duten proiektuei laguntzea, tokiko administrazioekin elkarlanean.
 - Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
 - Arrantza sektoreko emakumeen elkarteak
- Trebakuntza jardueretan laguntzea

Emakunde emakumeen elkarte artean, eta haiekin, elkartzeko guneak errazten, sustatzen eta finkatzen jarraitu du, eta topagune horietan hainbat gai aztertzen ari dira, besteak beste: elkarte mugimendua beharrezkoa dela eta antzeko preskakuntza interesak dituzten elkarte mugimendua artean preskakuntza proiektu koordinatuak antolatzeko estrategiak.

Lurralde bakoitzean eta eskatzen duten eskualdeetan topaketak eta prestakuntza jardunaldiak bultzatzen eta dinamizatzen jarraitzen du, eraginkorragoa izango den eta orain artekoak ez bezalako ereduak eta estrategiak erabiliko dituen parte-hartze baten oinarriak finkatzeko, bai emakume erakundeen barne dinamikari dagokionez, bai haiek tokian tokiko, lurraldeetako, autonomiako, Estatuko eta nazioarteko sareetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Halaber, testuinguru honetan, eta Aholku Batzordearen esparruan, lurralde-prestakuntzako jardueren proiektuak sortzea erraztu eta lagundu da, denbora parte-hartze soziopolitikorako erabiltzeari buruz hausnartzeko eta ondorioak bilduko dituen dokumentu bat osatzeko xede nagusiarekin.

Emakunde teknologia berrietan trebatzeko proiektu bat bultzatzen eta finkatzen aritu da. Proiektu hori, emakumeen elkarteentzat da eta elkarte bakoitzaren prestakuntza beharretara egokituta dago. Besteak beste, Berrikuntzako eta informazioaren Gizarteko Zuzendaritzak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eta KZguneek lagundu dute.

Etengabe prestatzeko guneak finkatu dira hiru lurraldeetan, genero ikuspegian oinarritutako partaidetza soziopolitikorako.

Prestakuntza ekimenak bultzatu dira, haiek ebaluatu eta martxan jar daitezzen.

- Koordinazioan laguntzen duten tresnak eguneratzea

EAEko emakume elkarten gida banatzen eta eguneratzen jarraitu da. Era berean, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko elkarte mistoen, erakundeen eta taldeen katalogoa berrikusten eta zabaltzen jarraitu da. Horren helburua da baliabideak koordinatzea eta optimizatzea, eta esperientzien trukea sustatzeko tresna izatea, horren ondorioz elkarten arteko sareak sortu eta sendotu daitezzen.

- Trukerako laguntza jarduerak

Trukea bultzatu da Estatuko eta nazioarteko emakume elkarte mistoekin eta beren jardura hainbat esparrutan gauzatzen duten beste elkarte misto batzuekin.

- Aholku eta informazio jarduerak

Genero ikuspegia kontuan hartzen duten partaidetzaren inguruko prestakuntza proiektuetarako aholkularitza emateaz gain, elkarteei proiektuak egiteko eskatutako laguntza teknikoa ere eman zaie, eta egindako proiektuek genero ikuspegia kontuan hartzen duten ikusteko ebaluazioa egiten lagundu zaie.

Halaber, toki mailan, mankomunitatean, lurralde mailan eta autonomia erkidegoan sareak indartzeko aukera ematen duten dinamika eta ekintzei buruzko aholkularitza eman zaie.

- Gobernuko beste sail batzuekin lankidetzak jarduerak, partaidetzak soziopolitikoaren arloan.

Emakundek Landa Eremuko Emakumeen Batzordean parte hartu du eta lehenetsunez jotzen ziren plan estrategiko berriko ekintzen garapenean eraginkortasunez lagundu du. Besteak beste, emakume nekazarien estatutua egiteko batzordea eratu da eta Landa Eremuko Emakumeen Batzordea bera arautzeko ordenamendua egin da.

Adineko Pertsonen Batzorde Iraunkorrean parte hartzen hasi da. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Boluntarioen Euskal Kontseiluarekin elkarlanean aritu da. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritza. Emakundek dituen informazio eta komunikazio baliabideen bidez, ekintza boluntarioaren hedapena hobetzen duten jarduerak ildo estrategikoei lagundu zaie.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetzak Sozialerako Kontseiluan parte hartu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

Elkarlan ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat emakume elkarte, udal eta gizarte eragileri bi motatako aholkularitza eman zaie: batetik, parte-hartze soziopolitikoarekin eta parte-hartze organoak dinamizatzearekin zerikusia duten hitzaldiak, mintegiak eta sentsibilizazio eta heziketa jarduerak antolatzeak aholkularitza; eta, bestetik, genero ikuspegia kontuan hartzen duen herri-partaidetzak sustatu eta koordinatzeko lan metodoei buruzko aholkularitza.

Aholkularitza teknikoak eman eta jarduerak antolatzen laguntzeaz gain, Emakundek elkarten jarduerak diruz laguntzen jarraitu du, urtero diru-laguntza deialdiak eginez. Deialdia irabazi asmorik gabeko emakumeen elkarte eta federazioetarako da, baita xede eta jarduerak esparru bakarra emakumeak sustatzea duten fundazioetarako ere. Diru-laguntzaren helburua emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzea helburutzat duten elkarteak eta jarduerak sustatzea da. Emakundek behar duten laguntza teknikoak ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai diru-laguntzak izapidetzekoan. Horrez gain, beste administrazioen diru-laguntza deialdiei buruzko informazioa ematen du.

Diru-laguntza eskatu zuten 151 elkarteetatik, 128k jaso dute. Bestalde, 260 proiektuak jaso dute diru-laguntza eta laguntzaren zenbateko osoa 269.000 eurokoa izan da. Bestetik, Emakundek aurkeztutako proiektuen jarraipena egin du, bereziki, sareak sendotzeko buruzkoena.

Hauek dira diru-laguntza jaso duten emakume elkarteak:

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
ERAGIN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldi zikloa 	704,00 €
DULANTZIKO ETXEKOANDREEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak Tailerra: «Misoginia, emakumeen arteko lehiaren ardatz nagusi gisa. Ezagutzea eta desegitea» 	2.000,00 €
ARRASATEKO EKIN EMAKUMEAK AED KULTUR ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Autobabes ikastaroa Elkarteko kideei zuzendutako formazio saioak Emakumeon aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio tailerra Emakume etorkinen egoera ezagutzera emateko sentsibilizazio tailerra Osasun zikloa 	1.005,00 €
ESKUZ-ESKU, PRESTATZEKO ETA GARATZEKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroa: «Aro Modernoko emakumeen inguruko historiaren, literaturaren eta artearen bidezko azterketak» Proiektua: Generoa eta aukera berdintasuna. Parte hartzeko eta esku hartzeko tresnak 	5.940,00 €
ARRITOKIETA EMAKUMEEN ELKARTE PSIKO-SOZIO-KULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldiak 	800,00 €
EMAKUMEEN PRESTATZEAREN ALDEKO ESNATU ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Narrazio Literarioen XVIII. ESNATU Lehiaketa 	900,00 €
DEUSTU-SAN INAZIOKO IZAERA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldiak 	800,00 €
EMEKI EMAKUME ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Emakumearen astea Ikastaroa: Emakumeen elkarteak kudeatzeko moduak, «Ahalduntzerako bidean» 	900,00 €
ASAMMA, BULARREKO MINBIZIA ETA GINEKOLOGIKOA DUTEN EMAKUMEEN ARABAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Funtzioak berreskuratzeko eskola Hitzaldia: «Osatze-emozionala» Hitzaldia: Elikadura eta antsietatea 	900,00 €
EMAKUMEA SUSTATZEKO URETAMENDI KULTUR ZENTROA	<ul style="list-style-type: none"> Uretamendiko emakumearen sustapenerako ABRILOCIO programa 	300,00 €
MAZALA, ZEANURIKO EMAKUMEEN ELKARTE SOZIO-KULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen alkar ekintzarako habilesia sozialaren lanketa 	400,00 €
BASAURIKO ALARGUNEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak Hitzaldiak 	900,00 €
SUTONDOAN, DERIOKO ETXEKOANDRE ETA KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen nazioarteko astea Hitzaldi zikloa Proiektua: Estimulazio kognitiboa 	704,00 €
DURANAKO EMAKUMEEN ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> Emakume langilearen nazioarteko eguna Kultur bisita Irakurketa tailerra 	800,00 €
AIZAN, BERDINTASUNERAKO ELKARTE PSIKOSOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> Genero indarkeriari buruzko jardunaldia 	500,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
GALDAKAOKO MIRARI KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Mintegia: Artearen historia eta emakumeak 	712,00 €
HARRESIAK EMAKUMEEN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Landareen eskulan lantegia Antsietate egoerak kudeatzeari buruzko tailerra Literatur lehiaketa 	1.095,00 €
GALDAKAOKO AZTIAK ANTZERKI ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Antzerki tailerra 	400,00 €
URKABUSTAIZEKO DENOK BAT BIDETIK KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak 	400,00 €
ZORNOTZAKO EMAKUME ALARGUNEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Emakume alargunen elkarte eta federazioen Estatu biltzarrean parte hartzea Solasaldiak 	990,00 €
BABEL MUNDUKO EMAKUMEAK ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Lauhilabetekaria: <i>Mujeres del Mundo - Munduko Emakumeak</i> 	1.410,00 €
BILBOKO EMAYS KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldiak Ikastaroak 	600,00 €
EKINBIDE EMAKUMEEN GIZARTE ETA KULTURA SUSTAPENERAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Mintegia: Artearen historia eta emakumeak 	600,00 €
AMA, ARABAKO AMEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Amagandiko edoskitzeari buruzko hitzaldiak 	600,00 €
GIZATIAK, AREETAKO EMAKUMEEN GIZARTE ETA KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroa: Gizartiar elkarteko zuzendaritza batzorderako eta boluntarioentzako prestakuntza 	720,00 €
BIZKAIKO EMAKUME ALARGUNEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldiak Ikastaroak 	1.200,00 €
KAMPAZAULO, EMAKUMEAREN INTEGRAZIORAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak 	200,00 €
IRATZARRI ETXEKOANDREEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak 	800,00 €
PEÑASCALEKO EMAKUMEAREN PRESTAKUNTZA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Martxoaren 8aren inguruko jarduerak Proiektua: Nor bere hazkunderako taldeak 	600,00 €
HAIZEA, ELGOIBARREKO EMAKUMEEN PRESTAKUNTZARAKO ZENTROA	<ul style="list-style-type: none"> Jabekuntza ikastaroa, sexualitateari buruzko eztabaidan eta genero indarkeriaren prebentzioan oinarritua Ikastaroa: Komunikazio eraginkorra, ahaldunderako tresna Ikastaroa: Hurbildu zaitez Patchworkera 	2.300,00 €
ANDEREBIDE, IURRETAKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeak haien eskubideak ezagutuz ahaldunderako proiektua 	900,00 €
BIZKAIKO EMAKUME ABERTZALEEN BULEGOA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak 	1.005,00 €
LUTXANAKO EMAKUMEEN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak Kultur astea 	600,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
MUNGIAKO EMAKUMEEN KULTUR ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak 	800,00 €
ALAITASUNA, HEZKUNTZA, KULTURA ETA JOLAS ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak Proiektua: Emakumearen astea eta Enkarterriko emakumeen elkarten topaketa 	1.005,00 €
ANDRAK, LEIOAKO EMAKUMEEN ELKARTE SOZIOKULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Generoa eta komunikabideak. Trebakuntza-programak 	6.000,00 €
AVAL, ARABAKO EMAKUME ALARGUNEN KRISTAU ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak Hitzaldi zikloa 	1.395,00 €
HERRI KULTURA ETA HELDUEN SUSTAPEN ZENTROEN FUNDAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak 	200,00 €
LAS AMIGAS, ERREPELEGAKO EMAKUMEEN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroa: Emakumeen parte hartzea XX. mendeko lehen abangoardietan 	704,00 €
PAGATXA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: «Sexualitatea plazerraren bidez bizitzea» 	600,00 €
EMAKUMEEN DOKUMENTAZIO ZENTRUA	<ul style="list-style-type: none"> Mugimendu feministari buruzko literatura grisaren digitalizazioa eta erabilerraztasuna (1975. urtetik) 	3.400,00 €
BESARKADA, EMAKUMEEN ANTZERKI AMATEURREKO ELKARTE ETA TALDEEN FEDERAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Antzerki tailerra IV. antzerki zirkuitua: «Emakumeak agertokian» 	400,00 €
LUNA LLENA, ANTZERKI SOLIDARIOKO ELKARTE TALDEA	<ul style="list-style-type: none"> Antzerki tailerra eta antzerki ikuskizun bat prestatzea 	300,00 €
MENAGARAIKO EMAKUME TALDEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Landa eremuan emakumeek genero ikuspegia kontuan hartuta parte hartzeko didaktika 	1.600,00 €
LILATON TALDEA ELKARTE FEMINISTA	<ul style="list-style-type: none"> Lilaton, emakumeen herri lasterketa 	3.200,00 €
GURE SOROA, ARABAKO EMAKUME NEKAZARIEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Landa eremuko emakumeak, gure ingurunean ikusezin izatetik protagonistak izatera 	1.200,00 €
OSTADAR TALDE FEMINISTA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Mintegia: Harreman afektibo eta sexualen heziketa 	704,00 €
EMA-HITZA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikerketa proiektua: Emakumeen herritar kontzientzia garatzea 	704,00 €
EMILIA PARDO BAZAN KOHEZIKETA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerra: Balioen aldeko heziketa, Lehen Hezkuntza garairako 	704,00 €
LANBROA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Lanbroa aldizkariaren 27. zenbakia argitaratzea Mintegia: Feminismoaren kontrako indarkeriaren azterketa II XX. Feminismo Eskola Martxoaren 8ko ekitaldiak, beste emakume elkarte batzuekin 	2.920,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
BARRIKAKO EMAKUMEEN HITZA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Uribe Kostako Mankomunitateko emakumeen elkarteetan parte hartzeko proiektua 	5.940,00 €
ETXEKO-ANDRE, ETXEKOANDREEN ETA FAMILIA KONTSUMOAREN PROBINTZIA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Antzerkia • Etxeko-Andre elkartearen hitzaldiak • <i>Etxeko-Andre</i> buletina argitaratzea • Ahalduntze ikastaroak 	3.200,00 €
INOLA, URDULIZEKO EMAKUMEAREN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio ez-sexistarako tailerra 	1.110,00 €
LAND@XXI, LANDA EREMUKO EMAKUME ETA FAMILIEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua: Gure seme-alabak eta teknologia berriak • Gazteentzako ipuin-kontaketa saioa, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean sentikor bihurtzeko • Emakumeen defentsa pertsonalerako ikastaroa 	1.305,00 €
ANDRE BERRI EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzaldiak • Solasaldiak • Tailerrak 	704,00 €
ZOKO MAITEA, ETXEKOANDRE ETA KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzaldia: Ordenamendu juridikoak emakumeei onartzen dizkien eskubideak hedatzea • Ikastaroak 	704,00 €
SANFUENTESEKO EMAKUMEEN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume elkarteak kudeatzeko gizarte trebetasunen inguruko ikastaroa • Elkartearen XX. urteurreneko ospakizuna • Proiektua: Generoa eta komunikabideak. 	7.395,00 €
ENARRIA, ZARATAMOKO ANDREEN ELKARTE SOZIOKULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroa: Emakumea eta familia, familia harremanen inguruko ibilbidea, genogramaren bidez 	704,00 €
GALDAKAOKO ERABIDE KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroak 	50,00 €
ARABAKO LANDA INGURUNEKO EMAKUMEEN SAREA	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza proiektua: Landa garapena, generoa eta partaidetza • Emakumeen Sarearen IX. Bileraren transkripzioa 	3.000,00 €
ERALDATZEN, EMAKUMEEN ALDEKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeek hainbat jarduera esparruetan duten koerantzukizunari buruzko foroa • Ahalduntzerako eta emakumeen kontrako indarkerien prebentziorako eskola • Ohiko testuinguruetan eta osasun arloan emakumeen genero eta aukera berdintasunean ahalduntzeko eta trebatzeko tailerren zikloa 	2.200,00 €
HUTSUNEA BETEZ EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Tailerrak 	800,00 €
ATE ZABALIK, BASAURIKO ETXEKOANDREEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Tailerrak • Ikastaroak 	1.005,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
ITZATU, EMAKUMEEN GIZARTE ZENTRO ETA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Genero ikuspegia kontuan hartuta parte hartzeko prestakuntza proiektua • Itzatu kultura ikasgelak: «Emakumeek dute hitza» • Trebakuntza antzerkia • Prestakuntza proiektua: Herri kulturekiko topaketa 	3.800,00 €
ROMI BIDEAN, IJITO ETA IJITO EZ DIREN EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Jardunaldiak • Tailerrak • Amen eskolak 	1.500,00 €
ALDARTE, SEXU ASKATASUNETARAKO AZTERLAN ETA DOKUMENTAZIO ZENTROA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Trebakuntza ikastaroa: Ahalduntzea eta lesbianismoa. Sartu sexu aniztasuna zure berdintasunaren aldeko lanean • Erakusketa ibiltaria: «Bidean: ezkutukotik ikusgaitasunera, 1977-2007» • Dibulgaziozko eta informazio hitzaldiak • Dibulgazio koadernoak egitea eta zabaltzea: «Emakume lesbianen amatasunaren historia eta oraina» 	3.720,00 €
EHAFA, EUSKAL HERRIKO ALARGUNEN FEDERAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Genero ikuspegia kontuan hartzen duen partaidetza prozesua 	6.000,00 €
AVILLO, LAUDIOKO ALARGUNEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Tailerrak • Jardunaldia: «40/2007 Legea eta haren aldaketa eta errealitatean duen eragina» 	4.800,00 €
ACAMBI, BIZKAIKO BULARREKO MINBIZIAREN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Tailerrak 	1.005,00 €
ITZARTU, EMAKUMEAREN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroa: Emakumeak historian • Publizitateari eta sexismoari buruzko tailerra • Ikastaroa: Nola hobetu egunero nire kontzentrazioa eta oroimena • Ikastaroa: Emakumeentzako autodefentsa 	1.900,00 €
EMAKUME LANGILEAREN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Martxoaren 8ko kanpaina. Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna • Emakume Langileen Nazioarteko Konferentzia 	300,00 €
GURE IZARRAK EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpaina: Azaroak 25, Genero Indarkeriaren aurkako Eguna • Kanpaina: Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna • Espainerazko tailerra etorkinentzat • Proiektua: Ateak zabaltzeko astea. Bazkideak erakartzeko kanpaina • Elkartearen funtzionamendua hobetzeko prestakuntza jarduerak • Ebaketa eta jantzigintza tailerra 	1.005,00 €
EMAGIN, EMAKUMEAREN INGURUKO IKERKUNTZA SUSTATZEKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeentzako eskola feminista: Ekonomia Feminista eta Herritartasuna 	1.200,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
HITZEZ BASERRIKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldiak Tailerrak 	1.005,00 €
SOLASTIAR, EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Hitzaldia: Emakumea eta generoa Kanpaina: Emakumeen Nazioarteko Eguna, martxoak 8 Kanpaina: Azaroak 25, Genero Indarkeriaren aurkako Eguna, zine-foruma Hitzaldia: «Giza eskubideak» «Urriak 8», Etxejaunaren eta etxeakoandreaken eguna, kafe-antzerkia 	900,00 €
SIM ROMI EMAKUME IJITOEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Sim Romi emakume ijitoen VI. jardunaldiak EAEko emakume ijitoen inguruko sentsibilizazio eta sustapenerako materiala egitea 	1.305,00 €
ARNASATU EMAKUME KRISTAUEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> «Arnasatu» jardunaldiak: «Emakumeen osasuna II» 	800,00 €
AMPEA, ARABAKO EMAKUME PROFESIONAL ETA ENPRESARIEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ampearen webgunean informazioa emateko jarduerak Prentsa-kanpaina 	600,00 €
ENTZUTEKOA GIZARTERATZE ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Euskara tailerra Trebakuntza tailerra Autoestimatu tailerra 	800,00 €
ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA	<ul style="list-style-type: none"> Ermuko mendeko pertsonen arretarako zerbitzu integralaren aldeko plataforma indartzeko proiektua 	2.720,00 €
BOGA-BOGA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Aurre emateko trebetasunak 	800,00 €
MAMARIGAKO EMAKUMEEN KULTUR ZENTROA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak Ikastaroak 	800,00 €
ELORRI-LORE ANDREEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ahalduntze ikastaroa 	1.410,00 €
BILBOKO ALETU EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Erdi Aroko emakumearen egoerari buruzko azterketa, Euskal Herriko historia, literatura eta artea oinarritzat hartuz 	900,00 €
KATXALIN, BULARREKO MINBIZIA ETA GINEKOLOGIA MINBIZIAK ERAGINDAKO EMAKUMEEN GIPIZKOAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Boluntarioen taldea prestatzeko eta arreta emateko zerbitzua Hitzaldiak Elkartearen mugimenduaren inguruko informazioa emateko, hartzeko, laguntzeko eta eusteko programa 	1.200,00 €
EUSKADIKO ESNEAREN LIGA	<ul style="list-style-type: none"> Informazio hitzaldiak urtean zehar, eta amagandiko edoskitzearen nazioarteko astea Amagandiko edoskitzerako ama bakoitzarentzako laguntza - 2010 	800,00 €
KILLIRIKUPE EMAKUMEEN KULTUR ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak: «Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak» 	1.005,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
ALTZOA, EIBARREKO ALARGUNEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak Jardunaldia: «40/2007 Legea eta haren aldaketak eta alargunen eguneroko errealitatean duen eragina» 	5.340,00 €
ASMUBE, BEASAINGO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikus-entzunezko dokumentua: «Topaketa irekiak, Goierriko emakumeen bertako emakumeentzako ekintza eta gogoeta» Asmube fundazioaren XX. urteurrena-Kultura eta elkarte esparruan emakumeen partaidetza sustatzeko Beasaingo Emakumeen Elkarte 	4.800,00 €
ARANZAZU, GIPUZKOAKO ETXekoANDREEN ETA FAMILIA KONTSUMOAREN PROBINTZIA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Jardunaldia: Emakumea eta XXI. mendea, frankismotik demokraziara Jardunaldia: Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala, lan, hezkuntza, gizarte eta ekonomia arloan ematen dituen eskubideak 	900,00 €
SALINERA DE SANTA ANA GIZARTE ETA KULTUR ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Elkarteen arteko trukea Parte-hartze tailerrak 	400,00 €
GREMIOAK, ENPLEGUA SUSTATZEKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Generoa eta aukera berdintasuna. Parte hartzeko eta esku hartzeko tresnak 	8.075,00 €
KUKUBEDARRA, URDAIBAICO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Urdaibain erantzukizunak banatzearen alde. Lurralde plangintza eta erraztasunak ematen dituen garraioa 	1.005,00 €
BAGABILTZA, EMAKUMEEN ELKARTE SOZIOKULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen lanbide eta okupazio heziketa programa 	10.080,00 €
ARALDI, EMAKUMEAREN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Generoa eta aukera berdintasuna. Parte hartzeko eta esku hartzeko tresnak 	4.920,00 €
BAGABILTZA FUNDAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko emakumeen elkarten jardunaldia/kongresua Lorazaintza ekologikoari eta konpostajeari buruz ikasteko tailerra 	12.000,00 €
ARGITAN EMAKUMEENTZAKO AHOLKU ETXEA	<ul style="list-style-type: none"> Jardunaldia: «Jostailu ez-sexistak» Eraso sexisten kontrako kanpaina: «Festa, gauak ere gureak dira» Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguneko kanpaina. Mahai-ingurua: «Krisiak emakume aurpegia du» 	1.900,00 €
LANKUME, ORTUELLAKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte bazterketa egoeran dauden emakumeentzako programa 	800,00 €
BILBOKO EMAISIA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> «Hezkidetzeta eta hezkuntza ez-formala» ikastaroa Genero taldeko jarduerak, laburmetraia 	2.680,00 €
MIRRA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunaren aldeko Euskadiko III. World Kafea: «Independentziaren kontzeptua berritzea» Emakumearen lidergoari buruzko ikastaroak: «Emakumeen energia, berrikuntza eta ekintza» Proiektua: «Elkarte ikuspegiak integratuz» 	2.000,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
BASAURIKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Basauriko udalerrian emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean sentikor bihurtzeko eta kontzientziatzeko kanpaina 	1.095,00 €
KIMETZ ELKARTE SOZIOKULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> Literatur solasaldiak Martxoaren 8aren inguruko jarduerak Ikus-entzunezko dokumentua: Topaketa irekiak, Goierriko emakumeen bertako emakumeentzako ekintza eta gogoeta Hitzaldia: «Koadro bati begiratzea» Literatur lehiaketa Proiektuak: Topaketa irekiak: Goierriko emakumeen bertako emakumeentzako ekintza eta gogoeta Negoziatzeko komunikazioa, genero ikuspegitik Formakuntza-sentsibilizazio hitzaldia: «Emaztea, ama edo monja» genero ideologia frankismo garaian eta egungo oinordetza Zinema saioen zikloa, genero ikuspegian oinarritua 	5.340,00 €
SANPOR ELKARTE TERAPEUTIKOA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak Tailerrak 	600,00 €
EMAKUME, EMAKUMEENTZAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Lilatan lasterketan eta Emakumearen Egunean parte hartzea sustatzeko proiektua 	600,00 €
OLETAKO BRISKA TALDEA EMAKUMEEN KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak 	300,00 €
PLAZANDREOK, SEXU BERTINTASUNERAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Tailerrak eta emanaldiak, 2010eko Feministaldiaren barruan 	4.920,00 €
CHANELAMOS ADIKERAR, EUSKAL HERRIKO EMAKUME IJITOEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Programa: Emakume ijitoen elkarteetako gizarte-sarea 	1.800,00 €
ANDRAIZEA DIMEKO ANDREEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak: Sentsibilizazio kanpaina 	900,00 €
UZTAI-BELAR, EMAKUMEAREN KULTURA ETA JOLAS ZENTROA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: «Emakume jakintsuen sarea» Gipuzkoako emakume elkarten VII. topaketa 	6.630,00 €
REDAGI, GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ELKARTEEN SARE FEDERAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> Formazio eta esperientzien gida bat diseinatzea eta egitea 	9.120,00 €
HEGALDI EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: «Genero ikuspegia kontuan hartuta parte hartzeko prestakuntza. Partaidetzarako didaktikak». 	11.280,00 €
ITSAS BERRI, FAMILIA ETA NATURA PLANGINTZARAKO ZENTROA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Familia plangintza naturala erakustea 	200,00 €
EMAKIN, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERTINTASUNERAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> Proiektua: Donostiako Emakumeen Elkartearen berri hedatzeko kanpainarako materiala egitea 	5.040,00 €

ESKATZAILEA	DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUEREN IZENBURUA	DIRU-LAGUNTZA
ETXE-BARRUKOAK, EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua: «Noiz arte eskubiderik gabe?» 	1.900,00 €
ERANDIOKO EMAKUMEEN ELKARTE SOZIOKULTURALA	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientziazio kanpaina: «Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean tolerantziarik ez» • Dibulgazio proiektua: Elkartearen aldizkaria egitea 	900,00 €
GARAIPEN, EMAKUME ETORKINEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Autodefentsa feministarako tailerra • Antzerki tailerra 	2.300,00 €
GAURKO ANDREAK, BERDINTASUNAREN ALDEKO ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua: Genero ikuspegia kontuan hartuta parte hartzeko prestakuntza 	4.000,00 €
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeon kontrako indarkeriari emakumeon erantzuna artikulatu jai espazioetan 	1.005,00 €
EUSKADIKO GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Guraso bakarreko familien arazoari buruzko sentsibilizazio kanpaina 	500,00 €
BIZKAIKO EMAKUMEA SUSTATZEKO ZENTROA FUNDAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume etorkinak prestatzeko proiektua: Komunikazio tailerrak 	2.000,00 €
SAFA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzukidetasun tailerra 	696,00 €
LACASTUN, LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzukidetasun tailerra 	696,00 €
VOZ-COLOMBIA	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua: Arabiar emakumei gaztelania irakastea, giza eskubideen eta genero indarkeriaren arloan aplikatuta • Hitzaldi eta solasaldi zikloa, emakume atzerritar guztientzat 	2.000,00 €
I-ROMI EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume ijito gazteentzako programa: «Bilatu zure proiektua, aurkitu zure zentzua» 	1.005,00 €
ARGIRI EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna aldarrikatzeko jai ekitaldiak 	10.080,00 €
HIRU KANALE, EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna aldarrikatzeko jai ekitaldiak 	10.080,00 €
IZARRAITZ ZURIA ANTZERKI TALDEA KULTURA ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Antzerki adierazpen eta sormen ikastaroa 	200,00 €
LAS CARRERASEKO EMELKA EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Sexualitate tailerra • Kontrapublizitate tailerra eta argazki erakusketa • Aukera berdintasunari buruzko tailerra 	2.000,00 €

4.7. Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza

EAEko administrazioen arteko lan eskumenen banaketaren, eskumen batzuk falta izatearen eta abarren ondorioz, Emakundek arlo horretan egiten duen lana, nagusiki, sentsibilizatzea, aholkuak ematea eta enpresetan berdintasun planak egiten eta abian jartzen laguntzea da.

4.7.1. Berdintasun planak: Txostenak eta aholkularitza

Emakundek enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasun arloko legediari, eta lan inguruetan emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak garatzeko dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruzko aholkularitza ematen die.

Berdintasunerako Legea garatzearen, eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientziazio handiagoa izatearen ondorioz, informazio eta laguntza eskaerak handitu dira, ez berdintasun planak eta diagnostikoak egiteko asmoz bakarrik, baita plan horiek abian jartzeko ere.

Halaber, zenbait erakunderi prebentzio protokoloak egiteko eta sexu jazarpen kasuak tratatzeko aholkuak eman zaizkie.

Bestalde, 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari edo sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokolo bat egin da, gobernuko hainbat sailekin aztertu eta gero.

4.7.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Berriz ere enpresa eta erakunde pribatuek emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak prestatzeko laguntza teknikoa kontratatzeko diru-laguntzen deialdia egin da. Horrez gain, hamahiru enpresa hauei diru-laguntza eman zaie:

ENPRESA ETA ERAKUNDE ONURADUNEN ZERRENDIA

ERAKUNDE ONURADUNAK	Diru-laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
ECLAT LIMPIEZA, SA	8.000,00
DIGITAL MOBILES, SL (DIGITALAK)	4.000,00
CEAR EUSKADI	8.549,00
ACERIA DE ÁLAVA, SA	7.265,00
MARGOTU, GIZARTE BAZTEKERIAREN AURKAKO ELKARTEA	8.642, 00
BEROHI. S. COOP. GIZARTE EKIMENA	4.125,00
ELDU, SA	4.937,50
TUBACEX, SA	4.225,00
TXINDORRA KONTSULTORIA, SL	3.492,50
AUTOBUSES CUADRA, SA	6.000, 00
ARTECHE CENTRO DE TECNOLOGÍA, AIE	4.675,00
GIZAKIA FUNDAZIOA	6.600, 00
GURUTZE GORRIA ZENTRO SOZIOSANITARIOA – Erresidentzia, Irun	5.874,00
DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA	76.385,00

Haien artean zazpi enpresa, aholkularitza-enpresa bat, kooperatiba bat eta gizarte partaidetzako lau erakunde daude. Lurralde kokapenari dagokionez, hiru Araban, hiru Gipuzkoan eta zazpi Bizkaian daude. Gizonezko langile asko dituzten industria-enpresen eta emakumezko langile gehiago dituzten hirugarren sektoreko enpresen eta elkarte eta fundazioen arteko oreka dago. Azken horien kasuan, zerbitzuen erabiltzaile gehienak ere emakumeak dira. Diruz lagundutako erakundeak askotarikoak direnez, berdintasun planak abian jartzeko jarduerak inguru oso ezberdinetan eragin soziala izatea espero da, eta etorkizunean gizartearen eragin biderkatzaile garrantzitsua izatea, bai emandako zerbitzuen kalitateari dagokionez, bai haietan lan egiten duten pertsonen lan baldintzei dagokienez, bai emakumeen eta gizonen artean gizarte eta ekonomia baliabideak lortzeko dauden aukera desberdintasunak murrizteari dagokionez.

4.7.3. Erakunde laguntzaileen jarraipena

Erakunde laguntzaileen jarraipena egin da, 424/1994 Dekretuari jarraiki. Dekretu horrek 2009. urteko jarraipen txostena eta 2010. urterako lan plana entregatzea agintzen du.

Era berean, aurreko deialdietan Emakunderen diru-laguntza jaso eta justifikatu duten erakundeek jarraipena egin da, eta erakunde laguntzaile bihurtu arte lanean jarraitzeko konpromisoa betetzeko eskatu zaie. 2010. urtean erakunde laguntzaile gisa onartutakoen zerrenda 2.4.2. atalean jaso da.

4.7.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan enpresei eta erakundeei aholkularitza teknikoak emateko homologazioa lortzeko deialdiaren inguruko informazioa eta aholkuak eman zaizkie aholkularitza-enpresei.

Bi enpresa eskatzailearen eskaerak baloratu dira eta biak aholkularitza-enpresa homologatu gisa akreditatu dira, enpresetan eta erakundeetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan laguntza teknikoak emateko, 105/2004 Dekretuaren arabera. Enpresa hauek dira:

- Abella Legal (Global Symmetry, SL)
- Betean Auditoría, SLP

Halaber, kontraste jardunaldi bat antolatu da aholkularitza-enpresa homologatuekin, Emakunde enpresetako emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egiteko diseinatutako metodologia berria azaltzeko. Metodologia hori 2009. urtean aurkeztu zitzairen enpresei, proba zezaten. Era berean, aholkularitza-enpresen ekarpenak baloratuta, Emakunde metodologia eguneratu du.

2010. urtean, Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) aholkularitza-enpresen homologazioa arautzen duen dekretua aldatzeko dekretu proiektua biderratu du, homologatua izateko gutxienez hiru emakumezko langile izan beharreko baldintza kentzeko; izan ere, baldintza horrek, gaur egun, ez zion erantzuten eraginkortasun, kalitate eta profesionaltasun irizpideei. Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28ko saioan onartu zuen aldaketa hori, eta 2011ko urtarrilaren 13ko EHAA argitaratu zen.

Azkenik, homologatutako aholkularitza-enpresen jarraipena egin da, homologazioarako baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

4.8. Programak gauzatzea

4.8.1. Nahiko

Nahiko programa Lehen Hezkuntzarako egindako berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria ezerako hezkidetza programa da. 2003an abiatu zen, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan (10-12 urtekoak). Bestalde, 2010. urtean, programaren beste fase esperimental bat hasi da, eta 2012. urtean bukatuko da. Fase hori, Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako da; zehazki, lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. Fase esperimental berri horretan, EAEko 29 zentrok parte hartuko dute; guztira, 1.084 ikaslek.

Programa horren barruan jarduera hauek egin dira aurten:

- Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloan Nahiko programa ezartzen ari diren ikastetxeei irakasleentzako aholku eta mintegien bidez laguntzea. 2009. urtearen azken hiruhilekoan egindakoarekin jarraituz, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloaren fase esperimental bukatzean, zenbait zentrok Nahiko programa beren kabuz ezartzen jarraitzeko interesa agertu zutenez, Emakundek zentro horiei eta aholkularitza ematen dieten Berritzeguneei irakasleentzako laguntza eta prestakuntza programa bat ematen jarraitu da. Horrela, prestakuntza mintegiak egiten dira. Mintegi horietan, unitate didaktiko jakin batzuei buruzko materialak aurkeztu eta lantzen dira. Halaber, aditu baten bidez, unitate horietako edukiekin zerikusia daukan gai bat azaltzen da. 2010. urtean, mota horretako bi mintegi egin dira.
- Irakasleen trebakuntza. 2010-2012 aldirako esperientzia pilotu berrian parte hartzen ari diren zentroetako irakasleentzako eta Berritzeguneentzako lehen mintegia egin da. Mintegi horretan, adituek parte hartu dute, taldeak zenbait gai garrantzitsuren inguruko gogoeta egin dezan; besteak beste, neska-mutilen eredu eta erreferenteen, neska-mutilen gorputzaren eta eskolan tratu txarrak prebenitzearen garrantziaren inguruan.
- Ikasleen sentsibilizazioa. Hiru hilabeteko unitate didaktiko batean antolatuta dago. Unitate hori ikasle eta irakasleentzako zenbait lan koaderno, hainbat euskarrirako material eta jolas osagarri, eta etxean familia jarduerak egiteko familia koaderno batez osatuta dago. 2010. urtean, lehen unitate didaktikoa egin da, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, eta gai nagusia «gorputza» da.
- Zentro bakoitzean hiruhileko saioak: Esperientzia pilotu berriaren barruan, irakasleek ikasgelan bertan jardueren bidez ikasleak sentsibilizazio egiten duten lana indartzeko helburuarekin, ikasleekin saio bereziak deiturikoak antola-

tzen dira. Zehazki, 2010. urtean, «gorputza» unitate didaktikoarekin zerikusia duen tailerra egin da. Halaber, dinamika hauek garatu dira: argi eta itzalen tailerra, jolas eta ipuinen tailerra. Hartarako, aurrez aukeratutako eta prestatutako langile espezialisten laguntza izan da. Haiek arduratu dira aipatutako saio berezietan, parte hartu duten 29 zentroetan.

- Familiak sentsibilizatzea. Parte hartu duen zentro bakoitzean saio bat egin da, 2010-2011 ikasturtearen lehen hiruhilekoan, parte hartu duten ikasleen familiekin, eta esperientzia pilotu berriarekin hasi dira. Horretarako, aurrez hautatutako eta trebatutako langile adituen laguntza izan da. Neska-mutilak berdintasunean hezi beharrari eta desberdintasunei buruzko gogoeta egin da, baita lehen unitate didaktikoaren gai jakin batzuei buruzkoa ere.

4.8.2. Gizonduz

Gizonduz Emakundek bultzatutako ekimen aitzindari eta berritzailea da. Ekimenaren helburua gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatzeko lortzea da, eta haien artean masa kritikoa sortzea, adierazitako helburua lortzeko aurrerapen handiagoak egin daitezkeen.

Ekimenaren bidez, ondoko helburuak lortu nahi dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizaturiko gizonen kopurua handitzea.
- Berdintasunaren arloan prestakuntza duen gizon kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea.

Gizonduz ekimenaren barruan jarduera hauek garatu dira 2010. urtean:

- Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea kudeatzea (www.euskadi.net/gizonduz). Webgune horretan ekimenari buruzko informazio zabala dago, hainbat euskarritan. Horrez gain, elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietara sartzeko estekak eta beste-lakoak dituzten hainbat atal daude. Bloga ere badauka webguneak, berdintasunarekin, gizonekin eta gizontasun mota berriekin lotutako iritziak, gogoetak eta gaurkotasunezko iruzkinak plazaratzeko. Eguneratzen eta kudeatzen jarraitu da, ez webgunea bakarrik, baita Gizonduzek Youtube-n eta Facebook-en dituen profilak ere. 2010ean, Gizonduzek Facebooken 4.600 lagun baino gehiago lortu ditu.

- Aitentzako Gizonduz bizkar-zorroa banatzea. 2008ko irailean aurkeztu zen bizkar-zorro hori eta 2010. urtean 10.000 guraso inguruk jaso dute, emaginen eta adopzioen arloan eskumena duten foru aldundietako organoen bidez. Bizkar-zorroak barruan dituen sentsibilizazio materialen helburua, alde batetik, zaintzari eta aitatasunari buruzko gako praktikoen inguruko jarraibideak ematea da, eta bestetik, aitaren ereduak balore ez sexisten transmisioan daukan eraginari buruzko hausnarketa egiteko gakoak ezagutaraztea. Euskadiko Kutzaren babesa izan dute, eta zehazki, materiala hau da: *Aitak* dokumentala, *Aitaren sekretua* ipuina, *Aitak berdintasunean* gida, *Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak* gida, Berdinometroa jolasa, autoan jartzeko eranskailua eta Gizonduz egunkaria.
- Sentsibilizazio eta prestakuntza programa. 2010eko martxoan, programa horren bigarren edizioa jarri zen abian. Programan, zuzenean nahiz Internet bidez egitekoak diren zenbait ikastaro daude. Beren ezaugarri nagusiak doakoak izatea, eskaintza zabal eta askotarikoa edukitzea eta egokigarriak eta malguak izatea dira. Bi motatako ikastaroak daude: batetik, programatutakoak, hots, ikastaroaren alderdi nagusiak (edukiak, ezaugarriak, egutegia, tokia, hizkuntza eta abar) aurretik prestatuta dituztenak; eta, bestetik, programatu gabeak edo neurrira egindakoak, eskaeraren arabera egindakoak, hedadurari nahiz edukiei edo tokiari eta hartzaileei dagokienez. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala duten edo ikuspegi profesionaletik, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Hori horrela, gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak eta eremu zeharo ezberdinak jorratzen dituzte: osasuna, zaintza, aitatasuna, bide segurtasuna, toxikomania eta kriminalitatearen prebentzioa, eta abar. 2010. urtean, 330 orduko prestakuntza eman da, aurrez aurreko 84 ikastaroren bidez. Guztira, 895 gizonen eta 900 emakumeen parte hartu dute. Horrez gain, 83 gizonen eta 52 emakumeen parte hartu dute 60 orduko online prestakuntza ikastaroaren bigarren edizioan, eta beste 245 lagunek (46 gizonen eta 199 emakumeen) 8 orduko sentsibilizazio ikastaroa online egin dute. Gogobetetasun-maila oso handia izan da, eta nabarmendu behar da parte hartu duten pertsona gehienentzat baliabideak erabilgarriak izan direla, haien bizi pertsonalerako nahiz profesionalerako.
- Berdintasun masterra, unibertsitateko graduondokoak eta Berdintasunerako Gunea zabaltzea. Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak horietan gizon gehiagok parte har dezaten sustatzeko, haien publizitatea egin da, Gizonduz aldizkari elektronikoaren eta webgunearen bidez.
- Bestelako sentsibilizazio jarduerak. Ekimenaren berri emateko, Emakunde hainbat komunikabidetan agertu da eta sentsibilizatzeko jarduerak ugaritan parte hartu du (hitzaldietan, jardunaldietan, biltzarretan, eta abar).

Horri dagokionez, alde batetik, «Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizonak inplikatzeko berdintasun politika publikoak» jardunaldia antolatu izana nabarmendu behar da. Jardunaldi horretan, Genero Indarkeriaren kontrako Gobernu ordezkariak, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretako zuzendariak eta Emakundeko zuzendariak parte hartu zuten. Bestetik, «Gizonak erantzunkidetasunaren erronkaren aurrean» mintegia nabarmendu behar da. Gizonduzen online prestakuntza ikastaroaren barruan antolatu zen, eta txostengile eta dinamizatzaile moduan Paco Abril soziologoa aritu zen. Bi ekitaldiak zuzenean eman ziren, Internet bidez, Irekia zerbitzuaren webgunean.

- Halaber, Emakundek Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordearen lan saio batean ekimenaren garapenari buruzko informazioa emateko parte hartu duela nabarmendu behar da. Parte-hartze horren ondorioz, Parlamentuak parlamentuko talde guztiek sinatutako mozioa onartu zuen. Horren bidez, foru gobernuari dinamika bat abian jartzea eskatu zion, gizonek ere berdintasunaren alde lan egin zezaten.

4.9. Aholkularitza juridikoa

Emakunderen Aholkularitza Juridikoak Emakunderi emandako eginkizunak egiten parte hartu du. Horrela, gaiak barnean eta kanpoan bideratzen lagundu du, bereziki, diru-laguntzak eta hitzarmenak bideratzen, arau juridikoak egiteko prozeduran, eta aplika daitekeen arautegiaren berrikuspenean, jarraipenean eta eguneratzean. Halaber, partikularrei eta Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta EAeko udaletako sailei aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du, erakundearen jarduera esparruaren berezko gaitan.

Hain zuzen, aholkularitza juridikoaren eginkizunak hauek izan dira:

- Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseilua sortzeko legearen aurreproiektua bideratzea (4/2005 Legearen 25.4 artikuluan aurreikusitakoa). Une honetan, Lehendakaritzak baloratzeko dago.
- Aholkularitza-enpresen homologazioa arautzen duen dekretua aldatzeko dekretu aurreproiektua bideratzea. Emakundeko Zuzendaritza Batzordeak 2010eko ekainaren 9ko saioan onartu zuen, eta 2010eko abenduaren 28an Gobernu Kontseiluak. Bestalde, 2011ko urtarrilaren 13an EHAA n argitaratu zen.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aldatzeko lege aurreproiektuaren zirriborroa egitea eta bideratzea. Zuzendaritza Batzordeak 2010eko abenduaren 22an onartuta, derrigorrezko txostenak egitea falta da.
- Emakunderen Berdintasun Saria sortu eta arautzen duen dekretua aldatzeko dekretu proiektuaren zirriborroa egitea eta bideratzea. Zuzendaritza Batzordeak 2010eko abenduaren 22an onartu zuen, eta derrigorrezko txostenak egitea falta da.
- Genero eraginaren alde aurrezko ebaluazioari buruzko txostenak argitaratzea, 4/2005 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta toki erakundeetako sailen berdintasun planei buruzko txostenak egitea, 4/2005 Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Emakume eta gizonen berdintasunaren arloan aholkularitza tekniko emateko erakunde laguntzaileak onartzearekin eta ez onartzearekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea.
- Emakume eta gizonen aukera berdintasunaren arloan jardutekoak diren aholkularitza erakundeen homologazioarekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea, eta hala badagokio, atzera botatzea.
- Emakunderen kontratazioen arloko txosten eta ebazpenak egitea, eta erakundearen kontratazio mahaietan laguntzea.

- Deialdien, kontzesioen eta gainerako gorabeheren (minorazioa, itzultzeak eta abar) ebazpen proiektuak bideratzea, Emakunderen lehiaketan diru-laguntzei dagokienez:
 - elkartegintza sustatzeko,
 - udaletarako eta bestelako tokiko erakundeetarako,
 - enpresa eta erakunde pribatuetarako, aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatuzko,
 - azterlanak egiteko.
 - azterlanak argitaratzeko proiektuak egiteko,
 - familian esku-hartzeari eta babesgabe eta/edo gatazka egoeran dauden adingabeen kasuan esku hartu eta bitarteko izateari buruzko masterrak egiteko.
- Erakunde hauei emandako diru-laguntzak bideratzea:
 - Baleuko, SLri, *Izarraren argia* filma egiteko, ekoizteko eta banatzeko.
 - Emakumeari buruzko Azterketan Dokumentazio Zentroari, Emakumeen Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen XVII. Topaketa egiteko.
 - Euskal Herriko Unibertsitateari, 2010-2011 ikasturtean Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra online emateko.
- Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako diru-laguntza bideratzea, Filme Sozialak Nazioarteko II. Zinemaldiko emakumezko zuzendaririk onenaren saria finantzatzeko.
- 2010eko Emakunde Sariaren deialdia eta ebazpena bideratzea, eta haren ku-deaketaz arduratzea.
- EITBrekiko hitzarmena bideratzea, «Zenbakiak egiazkoak dira. Zeure ardura ere bada» kanpaina egiteko.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearekin elkarlanean aritzeari uko egiteagatik 2009. urtean hasitako bi zehapen espedienteak bideratzen bukatzea. Horizon Venture Global, SL enpresari dagokiona, EHAAn argitaratutako ebazpen baten bidez bukatu zen. Sociedad Gastronómica Recreativa Txoko Eder elkarteari dagokiona, berriz, epaia exekutatzeko ebazpenaren bidez. Horrela, isunaren ordeztarazpena ezarri zioten.
- Lan eta familia bizitza uztartzearen arloan egoera pertsonalei arreta ematea eta bideratzea, baita lanaren, Gizarte Segurantzaren prestazioen, gizarte zerbitzuen, laguntza juridikoaren eta banantzearen, ezkontza baliogabetzearen eta dibortziatzearen arloko beste gai batzuei arreta eman eta bideratzea ere.

4.10. Azterketak, ikerketak, argitalpenak

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak

Emakunde sortzeko 2/1988 Legeak urtero EAEko emakumeen egoerari buruzko txosten orokorra egitera behartzen du. Txosten horren xede nagusia da garrantziaren arabera aukeratutako zenbait datu gizarte erakunde eta eragileen administrazio publikoen eskura jartzea, emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen ikuspegia emateko; horrela, programa publikoak diseinatzea eta planifikatzea errazagoa izango da. Herritarrei informazioa ematea eta sentikor bihurtzea ere badu xede.

Txostenean jasotzen diren zenbait adierazle etengabe eguneratzen direnez, gaur egungo gizarte baldintzak deskribatzeaz gain, denboran zehar gertatzen diren aldaketa prozesuak ezagutzeko aukera ematen du. 2010eko Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak txostenean, emakumeek eta gizonek euskal gizartean duten posizioa deskribatzen duten zenbait adierazle biltzen dira. Txosten horretan aurrekoetan ez zeuden beste bi datu sartu dira: erreferentzia urtea eta aztertu diren esparruen antolaketa. Txosten horren urtea ez da diagnostikoa egin den aldikoa, bilketa egin den urtekoa baizik. Horrela, 2010. urterako argitaratutako azken datuak jasotzen dira. Halaber, txosten honetan, ohiko adierazle sistemaren ordena eta 2010eko ekainean onartutako IX. Legealdirako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean jasotako neurrien arlokako antolaketa batzen ditu.

Lan metodologia, funtsean, honetan datza: aurreko urteetan bildutako adierazle nagusiak eguneratzean, bilakaeraren ikuspegia emateko eta, gai bakoitzean duten garrantzi bereziaren arabera, adierazle berriak sartzeko. Txostenean bildutako informazioa iturri ofizialetatik hartu da, autonomia, Estatu eta Europako erakundeetatik; estatistikak egiten espezializatuta dauden erakundeetatik, bereziki¹¹.

Gizarte errealitatea hobeto ezagutzen laguntzen duten beste jarduera osagarrietako batzuk lanak argitaratzeko eta ikerketa bekak egiteko diru-laguntzen deialdia, eta Dokumentazio Zentroa mantentzea eta kudeatzea dira. Dokumentazio Zentroak ikasteko eta ikertzeko aholkularitza nahiz bitartekoak ematen dizkie, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako pertsonalari, bai beste esparru batzuetan –unibertsitateetan eta abar– ikerketan dihardutenei.

¹¹ Eranskinak ebaluazioaren laburpen bat barne hartzen du. Txosten osoa Emakunderen webgunean eskura daiteke: www.emakunde.euskadi.net-en

4.10.1. Diru-laguntza eta beketarako deialdia

Aurreko deialdietan Emakunderen diru-laguntzen xedea emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ikerketa lanak eta ekintza pilotuak egitea eta argitaratzea zen. Aurreko ekitaldietako kudeaketa eta emaitzak baloratuta, 2010. urterako ikerketa lanak argitaratzeko diru-laguntzei bakarrik eustea erabaki da, beken bidez, batez ere orain arte landu ez diren arloetan ikerketa lanak egitea erregulatzeko.



Rosario Morejónen liburuaren aurkezpena: «Género, Autoeficacia y proyección profesional. La transición Universidad - Mundo Laboral»

Argitaratzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdira 10 proiektu aurkeztu ziren, eta argitalpen horiek aztertuta eta ebaluatuta, proiektu hauek jaso dute laguntza:

TXOST. ZK.	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	GEH. ZENBAT.
1P/2010	Deustuko Unibertsitatea	Generoa, autoeraginkortasuna eta proiektzio profesionala. Trantsizio unibertsala – Lan mundua	6.309,00 €
6P/2010	Dordoka	Emakumea, euskal arte eszenikoetan. XX. mendea	13.691,00 €

Ikerketa lanak egiteko hiru beken deialdian, bakoitzaren ikerketa xedea hau da: 1. motako beka: emakumeen jarduera profesionalaren azterketa eta bilakaera, eta EAEko ezagutza esparruetan identifikatzea; 2. motako beka: egoeren eta desberdintasunen azterketa, bazterkeria anitza izateko arriskua duten emakume taldeetan, eta bereziki, gizarte baliabide ekonomikoak eta segurtasuna lortzeko zailtasunak dituzten emakumeengan; 3. motako beka: gaur egun, EAEko kultura edo arteen sektorean prestakuntza, sorkuntza, ekoizpen, banaketa eta berrikuntza jardueretan emakumeek duten partaidetza aztertzea eta identifikatzea.

Lehen motako bekarako, sei eskaera aurkeztu ziren; bigarren motako bekarako, 15 eta, hirugarren motako bekarako, zazpi. Balorazioak eta elkarrizketak eginda, hiru bekak esleitu ziren eta haien jarraipena egin zen, xede horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Esleitutako beken gaiak hauek dira:

1. MOTAKO BEKA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
B1/01/2010	Emakumeen jarduera profesionala Euskadin: arrakasta kasuen bilakaera aztertzea eta haiek identifikatzea	23.333 €
2. MOTAKO BEKA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
B2/10/2010	Emakume etorkinen errealitatea, EAEko esku-hartze soziosanitarioaren aurrean	23.333 €
3. MOTAKO BEKA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
B3/05/2010	Emakume artisten elkarlanerako joera eta emakumeen mugimendu antolatuarekiko harremanak	23.333 €

laz emandako diru-laguntzen justifikazioari buruzko dokumentazioa eta memoriak aztertuta, emaitza ona izan zen. Ikerketa lanak eta ekintza pilotuak aurreikusitakoaren arabera egin ziren. Hala ere, hiru kasutan, laguntza txikiagotu egin behar izan zen, zenbait gastu justifikatzea falta zelako, eta, diru-laguntza esleituta, bi ikerketa lan proiekturi uko egin zieten laguntza jasotako erakundeek.

4.10.2. Argitalpenak

Txostena. Emakunde, 2009

Mila ale paperean, argitalpen elebiduna.

Kultura esparrurako hizkuntza gida

3.500 ale paperean.

EAEko emakumeen lanbide ibilbide eta egoerako desberdintasuna. Emakumezkoen talentua alferrik galtzearen kostu erlatiboa.

500 ale paperean, argitalpen elebiduna.

NAHIKO

Berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria ezerako NAHIKO hezkidetza programako materialaren edizio mugatua egin da, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko 3. eta 4. mailatarako 75 ale paperean, eta Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 5. eta 6. mailatarako 25 ale (jolasak, baliabi-deak eta gida didaktikoak). Edizio elebiduna.

EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako Jarraibideak.

Bi mila ale paperean, argitalpen elebiduna.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planeko Jardueren CD-gida

2.000 ale, ele bitan.

Hainbat argitalpenen azalak



4.11. Dokumentazio zentroa

Emakunderen Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexaketa, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikulua hustea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta eskaintzearen inguruko lanak ere egin dira:

- Informazio eskariei erantzun, gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean.
- Aholkularitza bibliografikoa eskaini eta zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak egin, eskaerak jaso ahala; bai Emakundeko langileentzat, bai kanpoko erabiltzaileentzat.
- Gai jakinei buruzko prentsako albisteak hautatu.
- Liburu, bideo eta abarren maileguak.

Emakundeko langileei arreta eta maileguak eskaintzeaz gain, zentroak kanpoko kontsultei ere erantzuten die. Emakunde barnekoak, 2010ean, 309 izan dira (96 liburu eta 55 ikus-entzunezko dokumentu-bideo, DVD, CD-Rom eman dira maileguan). Kanpoko kontsultak, berriz, 298 izan dira, eta horietatik % 15, 43 eskaera alegia, beste autonomia erkidego batzuetatik etorritakoak izan dira. Barne kontsultak % 4 handitu dira, 2009. urtearen aldean (299 kontsulta, guztira). Kontsulten igoera arin hori mota guztietako kontsultetan islatu da; ez, ordea, maileguan utzitako materialean, erdia baino gehiago jaitsi delako maileguan utzitako liburu kopuruari dagokionez (2009: 214 liburu; 2010: 96 liburu). Barne kontsulten igoera arin hori 2008an hasi zen langile kopuruaren handitzearen isla da; izan ere, Emakunde osatzen duten langile teknikarien kopuruak gora egin du. Mailegatutako liburu kopuruak behera egin arren, mailegatutako ikus-entzunezko materialaren kopurua (DVDak eta CD-Rom-ak) handitu da, eta kasu askotan bideoa eta liburuak ordezkatu ditu (2009: 40; 2010: 55). Kanpoko kontsulten kasuan, nabarmendu behar da, egin diren eskaeretatik zazpi beste herrialde batzuetatik egindakoak izan direla.

Aurreko ikasturteari dagokionez, 2010ean (298 kanpo kontsulta) jaitziera arina gertatu da 2009. urtearen aldean (331). Bestalde, eskaera guztien % 75 posta elektronikoz egin dira. Kontsultarako bide horrek igoera handia izan du 2009arekin alderatuta, orduan % 72,50 izan baitziren posta elektronikoz bidez egindako eskaerak. Maileguan emandako gaien kopurua hauxe izan da: 65 liburu, 5 bideo eta 30 CD edo DVD. Maileguan emandako liburu kopurua nabarmen jaitsi da, baina jaitziera hori ikus-entzunezko dokumentuen (batez ere CDak edo DVDak) maileguek izandako igoerarekin orekatzen da. Zentroari kontsultak egiteko posta elektronikoen bidez izan duen igoera nabarmenari lotuta, aurreko urteetan

aipatu den moduan, adierazi behar da gero eta gehiago direla dokumentu elektronikokoak bidaltzeko eskatzen duten edo dokumentu horiek bidalita asetzen diren eskaerak (monografiak, artikuluak eta pdf edo word formatuko dokumentuak). Gehienak Emakundek paperean argitaratutako dokumentuak dira, baina agortuta daude edota formatu horretan bakarrik argitaratuta. Gelan edo zuzenean egindako kontsulta kopuruak jaitsiera arina izan du 2009. urtearen aldean (2009an % 20 jaitsi zen eta % 18 2010ean). Laburbilduta, posta elektronikoa tresna nagusi gisa sendotu egin da, bai kontsultetarako, bai dokumentazioa lortzeko. Aldiz, aretoko kontsultak eta dokumentazioa paperean eskuratzea jaitsi egin dira. Kanpoko kontsulten jaitsiera 2003. urtean hasi zen, nahiz eta 2006. eta 2008. urtean igoerak izan. Jaitsiera horren arrazoa da gero eta dokumentu elektronikoko gehiago daudela, Emakunderen webgunean (lehen mailegatzen ziren eta orain webgunetik jaitsi daitezkeen dokumentuak edo argitalpenak) edo Dokumentazio Zentroaren gure katalogoan (barne argitalpenak, kanpokoak eta abar).

Guztira, 762 kontsultari telefonoz erantzun zaie, 2009. urtean baino askoz ere gutxiagori; izan ere, urte hartan 937 kontsulta egin ziren. Azken urteetako telefono bidezko kontsulten jaitsierak jarraitzen du. Horren arrazoa da erabiltzaileek webgunea erabiltzen dutela interesatzen zaien informazioa aurkitzeko, gure erakundera deitu behar izan gabe edozein dokumentu edo informaziori buruz galdetzeko. Kontsulta hauen banaketa ez da erregularra urtean zehar, baina oso adierazgarria da, aurreko urteetan bezala: dei kopuru gehien urrian, azaroan, maiatzean eta martxoan jaso dira, gehienetik gutxienera ordenatuta. Urrian eta azaroan egin ziren kontsulta gehienak. Horrek adierazten du azken garaietan azaroaren 25eko efemerideak, hots, Emakumearen kontrako Indarkeria Desagerarazteko Nazioarteko Eguna, gero eta eragin mediatiko handiagoa eta proiektio soziala duela. Martxoan kontsulta asko egiten dira telefonoz, martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta. Maiatza ere hilabete garrantzitsua izan zen, unibertsitateko ikasle askok eskaera asko egin zituztelako.

Kanpoko kontsultekin jarraituz, 2010eko lehen lau hiletan izan dira kanpoko erabiltzaile gehien zentroan, beste hilabeteekiko alde handiarekin gainera. Joera hori aretoan eta liburuaren maileguan nabaritu da (Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta). Hala ere, oro har, kanpoko kontsulta kopuruak behera egin du hilabete gehienetan (apirilean eta uztailean izan ezik). Aurretik adierazitako moduan, azaroaren 25ari buruzko kontsultak eta eskaerak irailean hasten dira, eta urrian dute goren unea. Zentroaren erabiltzaileek ez dute azarora arte itxaroten eskaerak egiteko, eta hori eskertzekoa da, eskaera horiek behar bezala kudeatzeko eta erantzuteko.

Laburbilduz, barne kontsulta kopuruak gora egin du aurreko urtearen aldean, eta kanpoko kontsultek behera egin dute. Dokumentazio Zentroaren historian lehen aldiz, barne kontsultak gehiago izan dira kanpokoak baino. Horrek gogoeta egitera

bultzatzen gaitu: zentroak beste baliabide batzuk bilatu behar ditu unibertsitateetan, ikertzaileen artean eta abarretan ezagutzera emateko, gure funtsak eza gut ditzaten. Katalogoa Internet bidez, Emakunderen webgune berriaren bidez (2008), eskura badaiteke ere, emakumearen gaian interesa duten pertsona askok ez dakite Dokumentazio Zentroa dagoela. Horregatik, ikusgai egiteko moduak aztertu beharko dira; esaterako, sare sozialen bidez, facebook erabiliz eta abar.

Liburutegiko datu basean 950 erreferentzia dokumental berri sartu dira 2010ean (% 30 monografiak dira eta % 50etik gora artikuluak, dokumentuak, eta abar). Nabarmentzekoa da, halaber, erreferentzia dokumental berrien % 20 euskarri digitalekoak direla (DVD). Emakundek egindako ikus-entzunezko dokumentu asko digitalizatzeko edo haien formatua aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) euskarri digitalera (DVD) pasatzeko. BRS programatik liburutegiak kudeatzeko ABSYS programara aldatuta, datu-basean sartzeko zeuden zentroko aldizkako argitalpenen analitikak sartu dira. Hortaz, egunean jarri da zentroan husteko zegoen edukia.

Katalogatutako materialen erreferentziekin, hilean behin *Berrikuntzen Buletin*ak egin dira. Buletin horiek Emakunderen barruan (teknikariei) eta kanpoan (eskatzten duten dokumentazio zentroeiei) banatzen dira, posta elektronikoaren bidez. Halaber, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailen berdintasun unitateek buletin hori jasotzen dute, iaztik.

2007an, barne antolakuntzako lanak ere egin dira, dagoen dokumentazioa hobeto baliatzeko eta zaintzeko. Esaterako, 2010a baino lehenagoko materialen eskuragarritasuna kontrolatu da eta bakarrak diren aleak mailegu sistematik kendu dira. Horrela, katalogotik kanpo dauden edo berriro jartzeko zailtasunak dituzten dokumentuen osotasuna bermatu da.

Horrez gain, Dokumentazio Zentroak hiru hilean behin argitaratzen den *Emakunde* aldizkarian parte hartu du. Aldizkari horretan, argitaratu berri diren eta dokumentazio zentroak eskuratu dituen liburu eta dokumentuak proposatzen dira «Liburuak» atalean.

2009. urtean adierazi zen moduan, 2010. urtean Dokumentazio Zentroaren datu-baseetan zegoen informazioa aldatzeko prozesua bukatu da, 2008an hasi zena. Datuak gorde egin dira, katalogazio, kudeaketa eta kontsulta bibliografikoetarako ABSYS programan; Eusko Jaurlaritzako programa informatiko estandarra da. Horretarako, migrazio informatikoa eginda, erregistro bibliografikoak garbitu eta zuzendu dira, aurretik aipatutako programaren barruan, eta erregistro bibliografikoen ISBD arauetara egokitu da, baina Emakumearen Erakundearen thesaurusaren deskribatzaileak gordez erregistro berriak katalogatzean. Prozesu hori

2010. urtearen erdialdera bukatu zen, eta erregistratu eta katalogatzeko zeuden dokumentuak egunean jarri dira.

Estatuko beste dokumentazio zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da dokumentazio zentroen eta liburutegien sareak garatutako jarduera eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola, Aldizkarien Katalogo Kolektiboa proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektu bat da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «Emakumea» gairako espezifikoa diren indextatze tresnen (thesaurusa) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte.


Dokumentazio Zentroaren funts bibliografikoen digitalizazio prozesuaren barruan, Emakundek 1990. eta 2003. urteen artean egindako argitalpenak digitalizatu dira, kontsultatu eta webgunetik deskargatu ahal izateko. Zentroaren digitalizazio eta modernizazio prozesu horren barruan, Emakunde gaian adituak diren argitaletxeek editatutako zenbait argitalpen digitalizatzen hasi da, CEDROrekin eta haiek argitaratzeaz arduratzen diren argitaletxeekin negoziatu ondoren. Asmoa da webgunean kontsultatzea eta ikustea, erabiltzaileek berregitea edo inprimatzea saihesteko.

EMAKUNDE DOKUMENTAZIO ZENTROA - ESTATISTIKAK

	2006	2007	2008	2009	2010
Barne kontsultak	109	146	251	299	309
	82 LIB.	109 LIB.	85 LIB.	214 LIB.	96 LIB.
	10 BID.	5 BID.	47 DVD-BID.	37 DVD-BID.	55 DVD-BID.
Kanpoko kontsultak	470	255	450	331	298
	234 LIB.	183 LIB.	144 LIB.	87 LIB.	65 LIB.
	51 BID.	61 BID.	55 BID.	10 BID.	5 BID.
		11 CD-DVD	29 CD-DVD	43 CD-DVD	30 CD-DVD
Telefono bidezko kontsultak	928	970	1.089	937	762
Dokum. erref. berriak	648	410	467	672	925
	20 BID.	17 DVD	50 CD-DVD	85 CD-DVD	205 CD-DVD


Kanpo eskaeren kopurua, erabilitako kontsulta moduaren arabera (2009-2010)

	2009	2010
posta elektronikoz	240	221
aurrez aurre	64	53
faxez	3	1
postaz	7	6
telefonoz	17	17




Hilabetea sailkatutako kanpo-kontsulten kopuruaren bilakaera (2009-2010)

	2009	2010
urtarrila	31	30
otsaila	37	35
martxoa	64	35
apirila	21	33
maiatza	27	28
ekaina	20	19
uztaila	16	25
abuztua	1	4
iraila	26	25
urria	31	24
azaroa	31	30
abendua	26	10



Telefono bidezko kontsulta - kopuruak hilero izan duen bilakaera (2009-2010)

	2009	2010
urtarrila	75	60
otsaila	83	65
martxoa	103	72
apirila	98	55
maiatza	75	80
ekaina	74	57
uztaila	71	51
abuztua	6	2
iraila	72	68
urria	94	92
azaroa	99	89
abendua	82	71



4.12. Gizarte sentsibilizazioa

4.12.1. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea

2010ean, *Emakunde* aldizkariaren euskarrian aldaketa gertatu zen. Horrela, aldizkari digitala izatera pasa zen. *Emakunde* aldizkariak euskarri digitalaren alde egindako apustuak teknologia berriek ematen dituzten abantailekin, ingurumena errespetatzearekin eta herstura ekonomikoarekin zerikusia du. Hala ere, papera ez da alde batera utzi, pertsona guztiek ez dutelako aukera teknologia berriak erabiltzeko. Horregatik, gure erkidegoko emakumeen elkarrekin bereziki zuzendutako aldizkari honen laburpena ere argitaratzen dugu aldi berean. Laburbilduz, emakumeen elkarrekin, liburutegietara eta dokumentazio zentroetara paperean bidaltzen da, eta «Aldizkari digitala» ataletik pdf formatuan deskarga daiteke.

Argitalpenaren maiztasunari eutsi zaio, hots, urtean lau aldizkari egiten dira. Hala ere, bertsio digitalak etengabe eguneratzeko aukera ematen du. 2010ean, aldizkariaren 78. zenbakia argitaratu da, izenburu honekin: «Plazandreok, egungo feminismo onuragarria». Ale horretan, bestelako edukien artean, Lourdes Oñederra euskaltzainari egindako elkarrizketa argitaratu zen. Hurrengo zenbakia ere argitaratu zen, 79.a, izenburu honekin: «Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumeak: partaidetza soziopolitikorako denboraren bila». Marcela Lagarde antropologo eta etnologo mexikarrari egindako elkarrizketaz gain, beste artikulu batzuk ere argitaratu ziren.

Aldizkari berriak atal hauek ditu: «Iritzia», «Puntako emakumeak», «Mugarik gabe», «elkarrekin», «Praktika egokiak», «Emakunde martxan», «Kultura», «Berriak», «Agenda», «Iritzia eman» eta «Sarean».

Hamabost egunez behin, azken berriak jasotzen dituen newsletter-a edo buletin elektronikoa bidaltzen zaie harpidetu diren pertsoneri.

Aldizkariaren bertsio digital berriak eskaintzen dituen abantaila bat elkarrekin da, iritziak, iradokizunak, salaketak eta abar bidaltzeko aukera ematen duelako. Paperezko bertsioaren aldean bada beste abantaila bat: multimedia edukia sartzeko aukera, alegia, bideo atal bat baitu. Bestalde, aldizkaria elebiduna da. Bertsio osoa euskaraz eta gaztelaniaz dago.



4.12.2. Berdintasunaren Emakunde Saria

Berdintasunaren Emakunde Saria irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren bidez sortu da eta horri jarraiki arautzen da. Hala ere, 1990. urtean Emakunde Sariekin hasitako lanaren jarraipena da. Sari horiek 2005. urtera arte banatu dira, etenik gabe, urte hura barne.

2006. urtean, Emakunde Sarien inguruan 16 urte lanean eman ondoren, izena aldatu zitzaien, eta Berdintasunaren Emakunde Sariak izena jarri zitzaien. Haien xedea hau da: emakumeen lanaren eta haien jabeakuntzaren aintzatespena hobetzea ekarri duten ekintzak, lanak edo proiektuak, edo emakumeen funtzioa baloratzen eta duin bihurtzen lagundu dutenak, edo EAEn emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasuna sustatu dutenak eginda, emakume eta gizonen berdintasunaren esparruan nabarmendu diren pertsona fisiko, publiko edo pribatuaren jardueraren azpimarratzea eta saritzea.

Berdintasunaren Emakunde Sariari dagokionez, 2009an, Emakundeko zuzendaria 2009ko abuztuaren 12ko ebazpenaren bidez egin zen deialdia. Epaimahaia (Emakundeko Zuzendaritza Batzordeko kideek eta aurreko urteetan saria jaso duten erakundeen legezko ordezkariak osatutakoa) 2010eko urtarrilaren 11n bildu zen, eta Lilaton Taldearen aldeko epaia eman zuen, hogeitertietan jarraian Lilaton proiektua egiteagatik. Donostian, oro har, maiatzaren lehen igandean egiten den herri lasterketa da.



Emakunde Saria



Epaimahaiak Lilaton Taldearen oinarrizko lana eta berdintasuna lortzeko helburuan duen konpromisoa ere baloratu zituen. Bereziki azpimarratu zuen elkarte horrek emakumeek kirolean parte hartzearen, haien jabekuntzaren eta osasunaren alde egiten duen lana, Lilaton proiektuak Gipuzkoako herrietan eragiten duen emakumeen elkartearen dinamizazioa, eta hainbat adinetako emakumeek herri lasterketan parte har dezaten egindako lana.

Epaimahaiak prentsan eman zuen epaiaren berri, otsailaren 1ean, eta EHAAn otsailaren 17an argitaratu zen ofizialki. Saria banatzeko ekitaldia 2010eko apirilaren 14an izan zen, Donostiako Kursaal Jauregian. Saria Patxi López lehendakariak, Maria Silvestre Emakundeko zuzendariak eta Arantxa Elizondo Emakundeko idazkari nagusiak eman zioten Lilaton Taldeari. Ekitaldian, kirola egiten duten hainbat emakumeri omenaldia egin zieten, baita eguneroko lanari esker, kirol esparruan berdintasuna lortzeko bidea erraztu duten emakume ezezagun guztiei ere.

2010. urtean, Berdintasunaren Emakunde Sariaren deialdia 2010eko uztailaren 23ko ebazpenaren bidez egin zuen Emakundeko zuzendariak. Epaimahaia abenduaren 22an bildu zen, eta saria Teresa del Valle Murgari ematea erabaki zuten, euskal hezkuntza arloan berdintasuna lortzeko lan handia egin duelako. Oro har, emakumeen errealitateari eta bereziki, euskal emakumeen errealitateari buruzko ezagutza sortzen eta zabaltzen eskarmentu handia du. Hezkuntza mailan egindako lanaz gain, gizartean duen eragina ere baloratu zuten.

Teresa del Valle Murgaren lana nabarmenduz, ezagutzaren, ikerketaren eta irakaskuntzaren arloetan aritzen diren emakume guztien lana ere nabarmendu zuten. Urte horretan, gainera, 100 urte bete dira emakumeek unibertsitatean libreki matrikulatzeko aukera izan zutenetik, ikasle ofizial moduan matrikulatzeko bai-menik eskatu behar izan gabe.

Epaimahaiaren erabakia 2011ko urtarrilaren 4an egindako prentsaurrekoaren bidez jakinarazi zuten, eta sari banaketa 2011ko ekitaldiko apirilean egitea aurreikusita dago.

4.12.3. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina.

A woman with short dark hair and glasses, wearing a grey turtleneck and a blue cardigan, holds a large, round, black-framed clock. The clock face is white with black numbers and hands. The date 'MARTXOA 8' is printed on the clock face. The background is a grey stone wall.

Ordu asko
beharrean, etxeko lanetan, zaintza-lanetan...

eta denbora gutxi
gizarte eta kultur jarduetarako, aisialdirako...

Zentzuz eta berdintasunez banatu
dezagun gure buruarentzat, lagunentzat,
famiarentzat eta lanerako dugun denbora.

MARTXOAREN 8a.
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA



EMAKUNDE
Euzko Emakumeen Erakundeak
Euzko Emakumeen Erakundeak
Euzko Emakumeen Erakundeak

2010eko martxoaren 8ko (Emakumeen Nazioarteko Eguna) kanpainaren goiburua «Ordu asko eta denbora gutxi» izan zen, eta helburua gizartean denboraren erabilerei eta denbora pertsonalaren, sozialaren, familiarraren eta lan denboraren erabileren artean oreka handiagoa lortzeko gizartearen ezinbesteko laguntzari buruzko eztabaida sortzea izan zen.

Kanpaina errealitate hauetan oinarritu zen:

- Desoreka dago denboraren erabilera pertsonal, sozial, familiar eta laboralaren artean.
- Emakumeek eta gizonen arlo pribatuan eta publikoan desberdin erabiltzen dute denbora.
- Etxeko lanen eta zainketen denboraren banaketa faltak emakumeek eta gizonen arlo publikoan denbora berdina ez erabiltzea eragiten du.
- Arlo pribatuan lan denboraren banaketa faltak eragin negatiboa du emakumeen posizioan, autonomia ekonomikoan, eta bizi zein osasun baldintzetan.
- Emakumeek eta gizonen denbora berdina ez erabiltzea eragozpen handia da berdintasunaren helburuan aurrera egiteko.

Kanpainaren bidez, denboraren erabileren (pertsonala, soziala, familiarra eta lanekoa) artean oreka handiagoa lortzeko gizarte osoak laguntzearen garrantziaz sentsibilizatu zen. Halaber, emakumeek eta gizonen arlo publiko eta pribatuan denboraren erabilera ezberdina egiteak berdintasunaren helburuan ondorio negatiboak dituela nabarmendu zen.

Emakume bat erloju bati heltzen izan da «Ordu asko eta denbora gutxi» esaldia goiburutzat izan zuen kanpainaren irudi nagusia. Kanpainaren mezu osoa hau izan zen: «Ordu asko beharrean, etxeko lanetan, zaintza-lanetan... eta denbora gutxi gizarte eta kultur jardueretarako, aisialdirako... Zentzuz eta berdintasunez banatu dezagun gure buruarentzat, lagunentzat, familiarentzat eta lanerako dugun denbora». Otsailaren 24an egindako prentsaurrekoan eman zen kanpainaren berri, eta martxoaren 2an kanpoko publizitatea hasi zen, autobus, metro eta tranbia geltokietako markesinetan. Bestalde, bost mila kartel inguru banatu ziren erakunde publiko, elkarte, hezkuntza zentro, sindikatu, kultur etxe, osasun zentro, komunikabide eta gainerako gizarte erakunde eta eragileen artean. Kanpainaren irudia idatzizko komunikabideetan argitaratu zen, martxoaren 8an bertan, eta irrati bidez ere haren publizitatea egin zen.

2006. urteaz geroztik, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean, Berdinsareak, urtero, gaiak kontzientziatzeko kanpaina bat egiten du. Eudelekin eta Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan, Emakundek ere haren diseinuan eta hedapenean parte hartu du, eta ahaleginak egingo ditu, sareari atxikitako udalen artean zein atxikita ez daudenen artean, gero eta gehiagok egin dezaten bat kanpaina bateratu horrekin, udal guztientzako mezu bera erabiliz. Horrez gain, aurten, hiru foru aldundien eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza izan du. Hurrengo jarduerari begira, lankidetzan aritzeko estrategia bat formalizatzeko bidea aztertu da.

2009. urtean, kanpaina gazteei zuzentzea erabaki zen, eta Beldur Barik kanpainarekin batera garatu zen. 2010. urtean, azterketen arabera indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak gero eta gazteagoak direla ikusita (2009an, Euskadin egindako salaketan % 42, 32 urtetik beherako emakumeek jarri zituzten), aurreko kanpainarekin jarraitzea eta arreta gazteengan jartzea erabaki zen. Horrela, gazteen artean indarkeria prebenitzeko Beldur Barik kanpaina martxan jarri zen. Kanpainaren barruan, batetik, «Adierazi beldur barik!» lehiaketa antolatu da, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarduerak eta proposamenak sustatzea helburu zuena, eta erantzun handia du; izan ere, 90 proposamen baino gehiago aurkeztu dira eta 500 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute. Bestetik, Beldur Barik jaialdia antolatu da, lehiaketan parte hartu dutenen lana ezagutzera emateko eta artearen, berdintasunaren eta emakumeen indarkeriaren kontrako borrokaren esparruan garatzen ari diren esperientziak trukatu ahal izateko; 400 pertsona inguru bertaratu dira. Azkenik, aurreko kanpainetan garatutako materialean oinarrituz diseinatutako zenbait unitate didaktiko egin dira, neska-mutil gazteekin emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako prebentzioan lan egiteko tresnak izan daitezzen. Bestalde, lila puntua erabili da emakumeen kontrako indarkeriaren gaitzespen sozialaren sinbolo moduan.

4.12.4. VII. Berdintasunerako Gunea

Berdintasunerako urteroko foro honen xedea da EAEn erakunde publikoek nahiz pribatuek emakume eta gizonen berdintasunarekin lotuta egindako sentsibilizazio eta prestakuntza ekimenak bultzatzea eta ezagutzera ematea. Zazpigarren edizio honetan, aurreko bi deialdietan prozedura aldetik egindako aldaketei eutsi zaie: batetik, ardatz nagusi bat izatea, denboraren erabileretan eta kontziliazio erantzukidean erantzukizunak partekatzea, zeinaren ingurukoak izan diren erakunde guztien jarduerak; eta, bestetik, Emakundek bi mintegi antolatzea, bata, prestakuntza arlokoa eta bestea, ondorioak ateratzekoa, foroan parte hartzen duten erakundeen lana errazteko eta lotzeko. Foroan 62 erakundek parte hartu dute: 14 elkartetek,



Berdintasunerako
Gunea (urteroko
foroa)

13 udalek, 9 enpresak, 7 fundaziok, Eusko Jaurlaritzaren 5 sailek, 4 unibertsitate edo ikastetxek, 2 alderdi politikok, 2 enpresa-elkartek, 2 foru aldundik, 2 elkargo profesionalek, 1 tokiko garapenerako agentziak eta 1 sindikatuk. Guztira, 60 jarduera egin dira 18 herritan, eta 4.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Nabarmendu behar da edizio honetan parte-hartzaile kopurua bikoiztu egin dela, agian, parte-hartzaile asko bildu dituzten jarduera instituzionalak eta eskola-jarduerak egin direlako. Halaber, esanguratsua da gizonen/mutilen partaidetzaren ehunekoaren igoera, 2004an % 5ekoa izatetik 2009an % 14koa eta 2010ean % 22koa izatera pasatu delako. Eskola eta gazte jarduerak eta guraso eta seme-alabentzat berariaz antolatutakoek lagundu dute igoera horretan.

Emakundek 2010eko Berdintasunerako Gunearen esparruan antolatu zituen mintegiei eta jardunaldiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 4.4.3 atala.

4.12.5. Beste erakunde edo gizarte eragileek antolatutako jardueretan parte hartzea

Emakundek, gizartea sentsibilizatzea lortzeko lanaren barruan, hitzaldietan, txostenetan, mahai inguruetan eta bestelakoetan parte hartzen du beste erakunde, emakume elkarte eta EAEko nahiz Estatuko gainerako herrietako beste erakunde batzuekin lankidetzan. Zehazki, 2010. urtean, jarduera hauetan parte hartu du:

- «Gizonduz proiektua» txostena, Errioxako Unibertsitateak antolatutako «Generoa eta Berdintasuna» VII. Jardunaldi Soziologikoen barruan aurkeztua.
- «Gizonduz ekimena» hitzaldia, «Sexu-genero nortasun berriak» jardunaldiaren barruan emana, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolak antolatuta.


4.12.6. Emakumeen desberdintasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina

Abenduaren 1etik 19ra bitartean, Emakundek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko sentsibilizazio kanpaina jarri zuen abian, ETB-1 eta ETB-2 kateetan eman ziren hiru iragarkiren bidez. Kanpaina hori, Emakundek eta EITBk sinatutako lankidetzaren hitzarmen bati esker egin zen, eta herritarrei horren berri prentsaurreko baten bidez eman zitzaizkien, abenduaren 1ean.

Kanpaina Emakundek urtero EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruz egiten duen azterketaren datuetan oinarritu zen («Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak»). Kanpainaren helburua hainbat arlotako desberdintasunei buruz sentsibilizatzea izan zen, hala nola: pobrezia eta gizarte bazterketaz; batez besteko errenta pertsonal osoaz eta urteko batez besteko soldata desberdintasunaz; eta, etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan emandako denboraz.

Emandako hiru iragarkien helburua biztanleak hiru zifraren aurrean sentsibilizatzea izan zen, zifrekin batera ondoko mezuek zabalduz:

- 82,9: Pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen % 82,9 emakumeak dira. Gizonen kopurua halako lau.
- 7.140: Gizonen eta emakumeen urteko soldataren artean 7.140 euroko aldea dago. Alderik handienak zerbitzuen sektorean gertatzen dira.
- 2,23: Emakumeek egunero gizonek baino 2 ordu eta 23 minutu gehiago ematen dituzte etxeko lanak egiten eta adingabeak, gaixoak eta mendeko pertsonak zaintzen.



Sentsibilizazio-
kanpainaren
fotogramak

5> EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN IX.
LEGEALDIRAKO KOMUNIKAZIO PLANA



Bederatzigarren legealdirako komunikazio plana (2009-2013) Emakunderen barne eta kanpo komunikazioaren zerbitzura dagoen lan tresna da. Haren helburu nagusiak hauek dira:

1. Irudi korporatibo positiboa sustatzea, erakundearen helburuetara egokituta dagoena eta haren historiarekin bat datorrena, berdintasunezko etorkizuna lortze aldera.
2. Emakunderen xede orokorrak lortzen laguntzen duten barne eta kanpo komunikaziorako prozesuak, bideak, tresnak eta lan harremanak sustatzea, eta hala badagokio, hobetzea.
3. Emakumeen jabetasuna eta komunikabideetan parte hartzea sustatzen jarraitzea.

Horretarako, komunikazio planak IX. legealdirako barne eta kanpo komunikazioaren oinarritzko irizpideak eta urtero ezarri beharreko programak definitzen ditu.

Bestalde, komunikazioari dagokionez, jardueraren irizpideak eta printzipioak ezartzen ditu. Komunikazio planak ezartzen dituen printzipioak hauek dira: lehenetasuna, gardentasuna, eskuragarritasuna, kalitatea, jasagarritasuna eta ingurumena.

Komunikazio planean zortzi programa zehaztu dira, eta haietatik, lehenengoak, barne komunikazioaren harremana du.

Komunikazio planaren arabera, barne komunikazioa ezinbestekoa da antolaketaren eta kudeaketaren arloan, eta eragin handia du lan helburuen lorpenean. Horregatik, barne komunikazio planaren helburuak hauek dira: erakundearen lan egitean duten pertsonen arteko komunikazioa sustatzea; haren zerbitzura dauden pertsonen garapen pertsonala eta profesionala sustatzea; lantaldeak bat egitean sor daitezkeen barne gatazkak murriztea; eta, iritzia emateko eta parte hartzeko guneak sortzea. Barne komunikazioko zenbait neurri ezartzen ditu, hala nola barneko aldizkari elektronikoak egitea eta bidaltzea (*Albisteak* buletina, dokumentuak biltzen dituen buletin juridikoa), Emakunderen Intranet hobetzea, barneko lan egiturak eta parte hartzeko bestelako guneak sustatzea, eta abar.

Kanpoko komunikazioari dagokionez, komunikazio planaren helburuak hauek dira: hartzaile desberdinentzako komunikazio gune eta bide berriak mantentzea, hobetzea eta sortzea; erakundeak inguruarekin duen harremana sustatzea; eta, pertsonekin, elkarteekin, gizarte eragileekin eta erakundeekin elkarrizketa eta lankidetzak kudeatzea. Horren guztiaren helburua sentsibilizazioa, informazioa eta

berdintasun politiken garapenean pertsonen eta erakundeen partaidetza sustatzea dira; izan ere, horrek, eragin positiboa izango du Emakunderen lan helburuak bete daitezen.

Komunikazio planak zortzi programa aurreikusten ditu kanpoko informazioa eta komunikazioa hobetzeko:

1. Lehena, herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak eta publizitate kanpainak garatzeari buruzkoa da.
2. Emakunderen webgunea hobetzeko eta teknologia berriak erabiltzeko programa.
3. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko pentsamoldea eta ezagutza zabaltzeko programa.
4. Emakume elkarteekiko komunikazioa eta komunikatzeko kanalak hobetzeko programa.
5. Seigarrena, erakundeekiko komunikazioa eta lankidetzaren sustatzeko programa.
6. Zazpigarrena, Eusko Legebiltzarrekin komunikatzeko programa.
7. Komunikabideekin informazio eta komunikazio jarduerak aurreikusten dituen programa.
8. Eta, azkena, emakumeek bizitza publikoan, oro har, eta, bereziki komunikabideetan, parte har dezaten sustatzeko programa.

Diseinatutako plana legealdi osorako denez, hau da, 2009-2013 aldirako, planean bertan adierazitako jarduerak pixkanaka gauzatzeko asmoa dago. 2010. urtean Komunikazio Planaren barruan egindako jarduerak dokumentu honen hainbat ataletan antolatu eta deskribatu dira.

